



Salbador Zapiain  
«ATAÑO»

# AZKENEKO SASKIGILLEA



AUSPOA

2237  
GAS-128/73



EUSKALTZAINDARIA

Arabako Ordenak

# **AZKENEKO SASKIGILLEA**

Auspoa  
215

---

AUSPOA LIBURUTEGIA  
EDITORIAL AUSPOA  
Plaza Santa María, 2 - Tolosa (Gipuzkoa)  
Tfno. (943) 67 12 82

Salbador Zapiain  
«ATAÑO»

**AZKENEKO  
SASKIGILLEA**

Auspoa Liburutegia  
215

*Azalean: Erniokogurutze aundia.  
Juan Ramon Elisbururen marrazkia.*

© Auspoa Liburutegia (Tolosa - Gipuzkoa)  
Fotokonposatzaille: Cometip Fotocomposición, s.l. - Pamplona  
Inprimatzaille: Gráficas Lizarra, S.L., Estella (Navarra)  
ISBN 84-7158-148-5  
Depósito Legal: NA. 1.932-1991

## ETORRERA

Garai batean, eta nere gaztetan ere bai, etxez-etxe ibiltzen ziran saskigilleak. Oraindik gogoan daukat gure baserrian izan zanaren azken agurra.

Udazkena aurreratu xamarra ordurako. Basoak beiñepein soilduak zeuden. Gure aitak txaratik ekarri zituen errotik edo bere zepatik ebakitako gaztain gazte, lirain eta abarrik gabeak. Adaskak ez dute zumitzak egiteko balio. Abegi asko izaten baidituzte. Gazteak bear dute, eta guri-guriak. Etxe aurreko putzu zulo batean sartu, an ximeldu ta xamurtu ditezten.

Ni oraindik gaztetxea nintzan, eta ezin igerri aitak zertarako egin zuen ori. Baiña zaarragoko anaiak bazekiten, lenago ikusita.

–Laxter emen diagu saskigillea –zioten elkarri, jakintsu.

–Nor dek ori? –zan gure galdera.

–Etortzean ikusiko dezute –esanta utzi giñuzten. Illebete pareren bat gutxieneko gaztain aiek an egongo ziran urean, zumitzak egiteko guritzen eta xamur-

tzen. Saskiak ondatzen ziranean egiten zuen aitak lan ori bera, ortxe bost urtetik bein. Beraz, gure anaiak ziotenez, egun gutxi barru apupillo berriren bat egun batzuetarako izango genduen gure etxean.

Saskigille batzuk –bat baiño geiago izango ziran noski baserriz-baserri ibiltzen ziranak–, benetako artetsuak, urtero-urtero gure tolarean aritzen ziran, ijitoak bezela. Sarats zumeekin dotoreneetako saskiak egiten zituzten, aundi ta txiki, gero azokan saltzeko.

Beste saskigille au, ordea, langille bat bezela, diru truke zebillen. Ori zuen bere bizibidea. Sei-zazpi egun, askotan geiago, zenbateko lana ematen zitzaion, baserrian biziko zan. Bertan mantenua ta aterpea. Zenbat kobratuko zuen, ori ez dakit. Egiten zuen lanak erakutsiko zuen. Baiña mantenuaz gaiñera etzuen izugarrizkorik jasoko. Aurretik itzegiña etorriko zan, saskiko onenbestean, eta ez eguneko. Ori saskigilleari komeniko zitzaion, baiña ez aitari. Saski kontuan egingo zuten tratua.

Aitaren ezaguna ezik, adiskidea ere izan bear zuen. Len lan ori bera askotan egiña. Beiñepein, elkarrekin ondo konpontzen zirala probak eman zituzten.

Saskigilleak azokara joaten ziran lan billa. Nere aita zanak ere an egingo zuen tratu ori. Noiz etorri noski saskigillearen esku geratuko zan, baiña abisatzekotan.

Zumitz gaiak ximeldu ta xamurtzeko zenbat denbora bearko zuten, arek jakingo zuen ondoena.

Aste guzian lanari lotua bizitzen zan gure aita. Igande ta jai arratsaldeak, berriz, jai egiten zituen. Etxea bete seme bazeukan; batzuk pranko aziak. Baiña gu ez giñan iñora erteten. Txanponak palta



artarako. Oraindik gazteegiak ere bai. Iñoizka, inguruko mendietara joaten giñan.

Auzoko baserrian sagardoa salgai zeukaten: amar kargako kupela koxkor bat. Bereala zabaldu zan inguru aietan, sagardo ona zanaren otsa. Ori izaten zan jendea ekar arazteko deia:

–Aizak: Arkirin sagardoa salgai omen zegok; eta, izan diranak diotenez, oso ona.

–Paseo txiki bat egiñez azaldu bearko.

Urrengo igandean an izango zan jendearen etorrera. Gutxitan saltzen zan oietakoa omen zala. Aspaldidanik ots ona zeukan sagardotegi arek.

Erri alde txiki aietatik pillaka zetorren jendea. Baita Donostitik ere. Eguraldi bikaiña, illunabar aldera zerbait zakartu bazuen ere. Igande artan sagardozaleak eman zioten milla litroko kupelari kontua, asi ta buka, illuntzerako.

Ara joana zan gure aita ere, ordu atsegin batzuk lagun artean igaro ta, nai zuenik bazan beiñepein, bertso batzuk kantatzeko. Arako abian abisu txiki bat eman zigun:

–Arkirira niek. Gaur etorriko dek noski gizon bizar aundi bat. Ni baiño lenago baletor, esaiozute auzora joana naizela sagardotegira, ta mesedez itxogiteko.

Arratsalde guziko gure eginkizuna etzan besterik: jolasa. Illunbistan zaarrenak ukuillura joango ziran. Urrengoak, berriz, aparria jartzera. Guk, gazteenok, jolasean jardungo genduen.

Alako batean, goiko bidetik gure etxe aldera etortzen ikusi genduen bitarteko aiton xaar bat, ille ta bizarrez josia. Etzitzaion arpegirik ikusten ere, belarriak eta sudurra besterik. Illeak eta bizarrak bat

egiten zuten. Bildutako triku aundi bat zirudien aren buruak. Txapel txar bat zekarren, ainbeste euri ta eguzki artu ondoren kolorea joana. Iru edo lau txulotatik illea moltsoka ateratzen zitzaion. Ez dakit txapela ez ote zan bera baiño zaaragoa.

Garrondotik txintxilik, atorraren lepoan kokatua, zaarraren zaarrez aterkin urdin txurixta. Bizkarrean zeraman, berriz, makil batetik dilindan, pardel kokor bat. An ekarriko zituen bere tresnak. Eskuan matxete moxtaka txabal bat ere bai.

Zarpail jantzia, oso zikiña, ia urtebete etxera gabe zebillena etorri zan. Bere semearekin etxera ezkondutako erraiña gaztearekin asarretuta, famelia ez naastutzearren aldegin zuen, oraindik etxeko nagusi zegoen aiton gizarajoak, bere borondatez. Geroztik, sortetxez kanpora, saskigiñetik bizi zan. Askok, urrikalduta deitzen zuten, ainbeste urtean baserri aietan ibili zana. Jana ta aterpea emango zioten, baiña sari gutxi noski.

Geldi-geldi aldapak beera zetorren gure saskigille ori. Guk abisatuta, atera ziran beste anaiak ere etxetik. Arrituta begira geunden.

–Ori dek otsoa, ori! –genion elkarri.

Gizon estraño bati bezela begiratzen geniola antzeman zion, eta seguru asko bere kasa parrez ariko zala. Bertara iritxi zanean, ala esan zigun:

–Ez al dezute egundo gizonik ikusi-edo?

–Bai; baiña orrenbesteko ille ta bizarrekin ez –erantzun genion.

Lasai par egin zuen gure saskigilleak.

–Dirua zertarako dek? Emen zegok aberastasu-na. Etxearen etorkizuna ere bederatzi anai ikusita zion ori-. Aita etxean al dezute?

–Ez. Arkirira joana da, sagardoa saltzen daukate ta.

–Ondo egiña. Ordu batzuk lasaiak pasatzea komeni zaiok ari ere.

–Esan digu, bai, gizon bizar aundi bat badala etortzekoa. Bera baiño len azaltzen bada, itxogiteko, laxter datorrela ta.

Atariko petrillan exeri zan. Ernانيتik gure etxe-raiño oiñez etorrira, nekatu xamarra zegoen. Txapel zaar aren azpitik, ille artetik, igeltsuzko pipa atera zuan. Tabako toxa ez dakit, berriz, nondik. Pipa ondo bete ta zapalduz, artu zuen tunda, garai bateko metxeroa, eta piztu. Orduan ala eskatu zigun:

–Sagardorik bai al daukazute?

–Bai, bai. Aukera gaiñera. Aurten sagar urte ona zan.

–Ekatzute, ekatzute, mesedez. Urrutitik eta oiñez etorri nauk, eta egarririk.

Saskigille auek uste det asko ibiltzen zirala, eta egarritzea etzan arritzekoa. Ortxe, litro ta erdiko lurrezko txarro bat, bete-betea, ekarri zioten. Aoan artu ta txarroaren ipurdia gora ta gora zijoan. Asi ta buka, tantorik utzi gabe dena zurrupatu zuen saio batean. Oraindik alakorik!

–Ez dek orixe gaizki sartu. Ederra zitxion.

Ekarri zuenak, adarra jotzeagatik, ala esan zion:

–Beste bat ekartzea nai al zenduke?

–Ez, motell. Sartu detana ere zerbait badek.

–Litro ta erdiren izenean daukagu.

–Martxa ontan, ni emen banengo, zuen sagar-doak jipoi ederra artuko litekek.

–Ez dakit ori. Baiña norbaitek kupelategiko bi-dea ondo ikasi bearko luke.

Parrez asi zan noski. Ez genion antzik ematen zer ari zan. Ala esan zigun:

–Enborrharen ezpala al aiz? I ere bertsolaria?

Alaxe, arekin izketan ari giñala, etorri zan aita.

–Kaixo, Joan Manuel! Ongi etorria! Erlojua bera baiño ere txuxenagoa zera zu, emandako itzetan azaltzeko.

–Ongi arkitua, Joxe, zure semeen artean. Au dek aberastasuna! Emen bizi zera zu, luartza bere ume saillaren erdian bezela, pake-pakean.

–Bai. Ez diozu gezurrik. Ortaraño ekartzen badi-tuzte lanak, emendik aurrerakoa egiña dago. Aurrik gabeko fameli bat ere tristea da, bada. Aspergarria gaiñera senar-emazteentzat. Beti elkarri begira. Zaputzaaldiren bat izaten badute, berriz, beti bata bestearen aurrean. Emen ez dezu zalaparta ta ixkanbilla-ren paltarik. Asarre, mutur-joka ta negarrak ere bai. Baiña dena ortan bukatzen da. Orrek gure eguneroko bizimodu aspergarriari bizitasuna ematen dio. Bat gora, bestea beera, txistuka edo kantari, ez dezu etxe au, arratsean izan ezik, bein ere ixilik arrapatuko. Lanerako ere poza ematen du orrek. Badakizu norentzat ari zeran lanean.

–Bi edo iru baserritan ederki ikasia daukat ori. Etxe aietan ez dago emen bezelako umorerik. Ez baidute etorkizunik ikusten. Ni, nere agurean, etxe-ko suspergarri bezela edukitzen naute. Kanpoko be-rrri bat etortzeko zorutzen, arekin itzegiteko. Tristee-giak dira etxe oiek neretzat.

–Bai. Nik ere ezagutzen ditut olakoak. Illoba bat badet Ondarrabian, ia nere adiñekoa. Zer ez luteke

emango seme edo alabaren bat edukitzeagatik? Gurean bederatzi badira, baiña bat bakarrik ez da so-bratzen. Denentzat badago emen zer jantzi, zer jan ta aterpea.

Aitak artu ta berekin eramán zuen barrura.

## APARIA

Gu jolasean genbiltzan bitarte, aitak erakutsi zion bere logela, betikoa. Etortzen zan guzietan an kokatzen baizan. An utzi zituen traste pixarrak. Bear zituen puskak ere an zituen. Komona non zegoen ere bazekien. Lenagoko etorrialdian aien berri ikasia zeukan. Ez baizuen gure etxeak ezere aurrerapenik egin, aldaketarik ain gutxi, maizterrak giñan ta. Nagusiaren etxean egindako lanak arentzat ondo etortzen omen dira.

Kandela eta poxpoloak mai gaiñean. Toalla ere bai, bera bakarrarentzat. Baiña ez det uste beartu zanik. Jarri bezela geratu zan.

Arrotzekin aita oso oparoa genduen. Txeetasun guziei begiraten zien, emakume batek bezela. Bein bakarrik garbitu zuen arek arpegia, eta orduan aita zanak aginduta. Beste denok toalla bat izaten genduen orduan, eta ura sukaldean, eskuak eta arpegia garbitzean txukatzeko. Etzan besterik. Oiñetarako, berriz, edozer zaku zaar. Ez genduen jazten kastu aundirik egiten.

Putzu zulo bat bazan etxe barruan, euria egiten

zuenean teillatutik zetorren urarekin betetzen zana. Ontzi batekin atera ta ekartzen genduen sukaldera. Baiña zikiña oso.

Putzua itxua zan. Etzuen azpitik ixuririk, eta benetan zailla ondo garbitzeko. Baiña denok, atarian geneukan ur putzuan egiten genduen lan ori.

Aitak dena erakutsi zion. Baiña arentzat alperrik noski. Sagardoak atsegin geiago ematen zion, axalean geratzen zan urak baiño. Berak zionez, etzan gaztetan artara oitua, eta urtebete artan etxetik kanpora zebillen. Leku askotan erreztasun aundirik ere ez. Ez baizegoen gaurko aukerarik. Aparitara deitu giñuztenean ziran kontuak.

—Nondik jan bear ote du orrek? —nion nereko—. Ez baidu aorik ageri.

Baiña kutxareak billatzen zuen zuloa. Ontzi bate-tik jaten genduen denok. Orduko baserri geienetako oitura ori zan.

Gurean ala genduen beiñepein. Maiaren erdian pertzakada jarrita, bakoitza bere kutxarearekin, amaika gizonezko saskigillearekin, txita txikiak ore aontzitik bezela, aldiko bost edo sei kutxare baziran pertzakada artan, eten gabeko atzera-aurreraka. Ortara oituak geunden. Zikiña edo garbia, ez aintzakotz artu ere. Orrek etzigun nazkarik ematen. Gure artean ez baizan bizar aundirik.

Baiña arek jaten zuen bezela bai. Bizarrez itxi-itxia baizeukan aoa. Etzitzaion zulorik ikusten. Dena bizarra; eta, kutxarea sartzerakoan, sasiz inguratutako ar zulo gorri bat bezela azaltzen zitzaion aoa. Bizar luze aiek koipez zikinduta, bein ta berriz aren kutxareak ala jardun zuen, bizar aundi aiek eskobillak bezela kutxarea garbituz eta ezpaiñak jakiz zikindurik, gero denon pertzan sartuz. Zer nazkaga-

rriagorik? Txarro batetik edaten genduen, eta sartzten zituen pitarretan koipetan zikindutako bizar zuri aiek.

Berak zionez, etziotela etxe askotan bertako fameliarekin batera jaten uzten. Etzan batere arritzekoa, ura artara ikusi ta atzera egingo etzuenik etzan ta. Ni, oraindik gaztetxoa izan arren, zearo nazkatu nintzan. Azkeneko artu genduen katillukada esnea, ura bai ederki sartu zala, baiña garbia.

Ez nintzan ni bakarra nazkatu. Ikusten nuen aitak ere oso arpegi estrañoa jartzen zuela, arek kutxarea kazuelan sartzten zuen bakoitzeko. Orduan uste det, urrengo goizean egingo zuenaren asmoak artu zituela. Bestela, ura gure etxean zegoen bitarte, otordu guziak nazkaturik egin bearko genituen; edo bestela, leku askotan egiten zutena, berex eman ari. Baiña ori etzan aitaren gogozkoa.



## TOLOSAKO ZUBIA

Oraindik oieratzeko goiz. Egun guzia eguraldi gozoa egin zuen. Baiña, apal ordurako, tximista, trumoi ta kazkabarrari eraso zion. Urte giro ortan olako aldaketak maiz daki egiten.

–Sukaldeko epelean ondo gaude, Joxe. Bota dezala, gu ez gaitu arrapatuko ta.

–Ortatik ere geiegia ez da ona. Badaki kalte ikaragarriak egiten.

–Bai orixe: arraixku txarreko lur jausiak, etxeak bota, zubiak urak eraman ere bai... Tolosako zubia jaso zuenari ixtilu gorriak erakutsi zizkion.

–Ez det egundo entzun –zion aitak.

–Nik bai askotan kontatu ere. Jakiña ipuia izango dala.

Ori entzun genduenean, anai guziok batera eskatu genion:

–Konta zazu! Konta zazu!

Aren aotik ateratzen ziran itzak ez giñuzten nazkatzen. Izlari dotorea zan. Asko entzun, ikusi ta

ikasiaz izaki. Arek kontatu zizkigun ipuiekin liburu eder bat idatzi liteke.

–Kontatuko al diet? Lotara joateko zorutzen egongo dira, ordea...

–Berak ez dute, bada, eskatu? Kontaiezu. Bitartean, nik ere ikasiko det.

–Ori, ori! –eskatu genion berriro.

Saskigillea buru argiko gizona zan. Etzuen egokiera ori galduko. Ibili zan baserri oietan, gazte ta zaarren berri ondo ikasia zegoen. Bai-baizekien gurekin ondo etortzeak saskigiñean igaroko zituen egunetarako arentzat garrantzi aundia zeukala. Sarreran gure eder eginta, gazteen biotzak orrekin irabaziko zituela.

–Tolosari, beste erri askori bezela, erditik ibaia dijoakio. Ori ez da txarra. Baiña bidearen berdiñetik; eta, azitzen danean bi aldeetara zabalduz, karririk ibai biurtzen ditu; eta urak, daraman indarrean, bertako dendak garbitu ta zikindu batera egiten ditu. Garbitu, barrungo puska guziak eramanez; eta zikindu, lokatzez beteta. Ori askotan gertatu zaio. Baiña okerreana, zubia ere eraman izan duela, aurrean artuta. Orduan erria bi puska eginda gelditzen, eta zubia bear.

Garai batean –nik ere ezagutu nuen ori zenbait erritan–, gaur autobusak bezela, txalupak egoten ziran beren Karonte edo arraunlariarekin. Ortatik bizi zana, alegia. Ordu jakiñetan ibai gaiñetik joan-etorria egiten zuena, alde batekoak eraman ta beste-koak ekarriz. Txalupa aiek bazuten nagusia, negozio ori zeramana. Arraunlaria etzan aren langille bat besterik. Baiña bere bizimodua ortatik aterako zuen.

–Len zer esan dezu: Karonte edo arraunlaria? Nor da ori? –galdetu zion aitak.

—Inpernurako sarreran arteerarik etzuen ibai aundi bat omen zegoen, jentillak uste zutenez; eta arako zigortuak eramaten zituen arraunlariak Karonte omen zuen izena. Emengoak ere antza bazuela ta orregatik ematen diot izen ori. Ura, betea joan ta utsik etorriko zan. Ez arritu nik auen berri jakitea, markesaren seme izan nintzan garaietan ikasitako ipuiak dira ta.

—Alajainkia! Zu markesaren seme? Ez daukazu gaur itxura aundirik. Len izango zifian. Aldaketa ederra egin dezu geroztik.

Par egin zuen saskigilleak.

—Orren esplikazioa gero emango dizutet. Orain jarrai dezaiozun asitako ipuiari.

Zurezko zubiak ere ezagutu nituen erreka txiki batzuen gainetik egiñak. Ibai aundietan, ordurako, arrizko zubi ederrak zeuzkaten jasoak.

Erriak azi alean, bearrak ere goraka joango ziran.

Arraunlariak motelak, zurezko zubiak ere aulak zama aundiak igarotzeko, eta edozer ugolde koxkorrek aurrean eramango zituen.

«Etzeukagu beste alderdirik: arrizko zubiak jaso» erabaki zuen udalak. Ortarako dirua bear, eta ez oso gutxi. Erriko aundizkien bitartez, auentzat bentaja ikaragarria baizekarren arrizko zubi batek, naiko dirua bildu zuten.

Bando baten bitartez eman zioten erriari asmo orren berri: nola arrizko zubi eder bat jasotzeko erabakia artu zuen udalak; olako egun, ordu ta lekuan subastan aterako zutela, eskeintzarik onena egiten zuenari emateko.

Ori jakin zutenean, erri guzia poztu zan, batzuentzat erreztasun aundia ekarriko zuelako orrek; besteentzat, berriz, lana.

Subasta ori egin zan, baiña iñor gutxik artu zuen parte. Lan aundia ta diru gutxi eskeintzen zuela udalak. Arraixku aundikoa iruditzen zitzaien an, aurre-rapen geiago gabe, arrizko zubia jasotzea. Erriko seme bati eman zioten. An ziran batzuek esan ere bai:

–Ai, gizarajoa! Galtza zaarrekin baabil, ez dek berriak egiteko diru asko aterako ortik. Ederki larrutua utziko aute.

Bere beldurrak bazituen, bai, gai onarekin egin eta urrutitik ekarriz. Tranpa egiterik, berriz, etzeukan.

Kontzientziak ere zerbait lotzen zuen. Zeletari bat ere jarri zioten, emandako baldintzak betetzen ote zituen.

Asi ziran lanean. Zubia, orduko aurrerapenekin egiteko, ondo zijoan. Iñork uste baiño azkarrago gaiñera. Ortan zegoen kontratuaren irabazia. Zalan-tzan jarri zutenak ere arrituta zeuden.

Gure nagusia esneketariaren kontuak ateratzen ari zan, irabazi polita geratuko zitzaiola ta. Baiña aurreratua zeramatenean, ugolde gaizto batek artu ta ibaiak beera eraman zion dena. Oso eroria geratu zan gure kontratista gizarajoa.

–Orra nere itxaropenak porrot eginta.

Utziko ote zuen ere zalantzan ibili zan. Baiña oraindik irabazi pixar bat aterako zuela, laguntza ere eskeiñi zioten eta berriro ere eraso zion lanari.

Lenengoan bezela, ondo zijoan lana, laxter bukatuko zuela ametsetan. Baiña asieran bezelaxe, beste ugolde batek lan txarra egin zion: artu ta eraman. Astelen goizean, lanerako asmoan joan ziranean, etzuten zubirik arkitu.

–Nereak egin dik! Galdurik gabe egingo nuen pozean nenbilleken, eta auxe bear nin orain! Emen zubia bukatuko duenik ez dek jαιο! Bestela, egun batean bukatu bearko dik dena!

Orduantxe benetan etsi zuen. Bere burua galtzeko zorian zebillen.

–Artuko detan ainbeste dirua eraman zidak, eta lanari berritik eraso bear.

Norbaitek aolku emanta, erriko azti sonatu batengana joan zan. Onek, aren kezakak entzun ondoren, txartel bat eman zion, eta berak ezagutzen zuen sorgin baten aurrera biali. Bukatu gabe etzuen utzi nai, eta txuxenean sorgiñarengana joan zan. Onek, txartela irakurri ta nork eman zion jakin zuenean, ongi etorri bero bat egin zion, eta berriro sorgiñari agertu zizkion bere kezka guziak.

–Ondo dago. Itxogin ixtanpat.

Alako otoitz ta zeremoni batzuk egin ondoren, kea zeriola an azaldu zan bereala gomaz jantzitako itxura zeukan gizon aundi estraño bat.

–Nor ote da ori? –zion berekiko kontratistak.

Baiña sorgiñak, auspez jarrita agurtu zuen. Etzan, bada, edozein izango.

–Zer nai zenduke? –galdetu zion serio sorgiñari.

–Gizon onek zurekin itzegin nai luke –esan zion onek, burua makurtu ta agur apal bat egiñez.

–Nork erakutsi dik onerako bidea? –galdetu zion, zear begiratu zorrotz bat egiñez, gomazko gizonak.

–Tolosan denok ezagutzen degun azti batek.

–Ez al ditek aginte aundiko gizoni agur egiten erakutsi?

–Nik bai al dakit zu nor zeran?

Zekarren kuadernotxo batean gomazko gizonak apuntatu zuen zerbait.

–Ire arrokeri ori zapalduko detan eguna etzegok oso urruti. Zer nai uke?

–Lenengo beñepein, zurekin tratuan asi baiño len, zu nor zeran ikasi.

–Eskubide osoa daukak. Ni inpernuko deabru guzien nagusia nauk. Luzifer nere izena. Entzungo uan noski.

–Bai, jauna. Jainkoak sortu duen izakirik gaiztoen ta itxusiena. Jendeak bildur diona gaiñera. Guk Satanas esaten diogu.

–Gezurretan ari aiz. Satanas nere mendeko bat dek. Jainkoak sortu zuan izakirik ederrenetako bat niñuen ni. Baiña nere arrokeriak ontaratu nioken.

–Non sartu naiz ni? Barkatu, barkatu! –zion kontratistak, andik aldegin nairik.

–Guk etzekiagu barkatzea zer dan. Non sartu aizen? Erorrek ez dek eskatu, bada? Esan zak lenbailen zer nai dekan. Bestela, nere igurtziren batzuk artuko dituk. Gure artean etzegok txorakeririk.

Sorgiña sartu zan bitarteko, gizon gizarajoari mingaiña lotu zitzaion ta.

–Gizon au bere anima saltzeko prest dago.

–A, bai? I aiz orduan Tolosako zubiaren kontratista?

–Bai, jauna. Egia da ori. Baiña nola ezagutu nauzu?

–Ez al dakik zuetako bakoitzak nere mendeko deabru bat daukala zaindari?

–Etzerate gutxi orduan!

–Bina jarriko banizkitzute ere, oraindik sobratu-

ko ituke. I, gaiñera, gaiztoz ezaguna aiz. Ire pekatuz betetako kuadernotxo bat an zeukat nik inpernuan. Ik orduan anima saldu nai uke?

–Zoritxarrez, ori da egia.

–Eta zeren truke?

–Zuk len esan dezun bezela, Tolosako zubi orren kontratista naiz ni, ta badakizu nola dijoan.

–Nola dijoan diok? An etzegok zubirik.

–Bi aldiz ia bukatzeraiño ekarrita, urak eraman baidit.

–Eta bera jasotzeagatik anima saldu nai uke? Gizarajoa! Naiago nitek ik bezelako egokiera baneuka, nerea salbatzeko.

–Bai, baiña baldintza batzuk jarrita.

–Nolakoak dituk, bada, ire baldintza oiek?

–Porrot egin det, eta zubi ori jasotzea nai nuke. Baiña arrats batean, eta jendeak ez dezala jakin nola jaso dan. Arratsean izarrak agertu ta goizean oillararak kukurruku kantatu bitarte.

–Ire animak, gaiñera, ezer gutxi balio dik. Langilleei egiten dieken lapurreta eta igande ta jaietan lana egin arazteagatik, len ere ire anima nerea dek. Baiña arrats batean zubi ori jasotzea gureztat ez dek lana. Tratua egiña zegok. Gero damutzea alperrikakoa izango zaik. Artu ta bizirik eramango aut. Zuek, oraindik bizi zeraten oiek, txoro galantak zerate, anima galtzen orren errez uzteko. Baiña...

Alako txinparta batzuk atera zituen; eta, azufrearen usai gaiztoa inguruan zabalduz, bertan ezkutatu zan.

Luzifer joan zanean, zenbat bear zuen galdetuzion sorgiñari.

–Batere ez –erantzun zion–. Zure anima ori billatu detalako, joan dan orrek ordainduko dit. Zuk, berriz, anima galduarekin dena galtzen dezu.

Gure kontratista beldurrak atera zan andik. Oillarrak kukurruku jo baiño len bukatzen bazuten, berekin eramango zuela; ta orrekin zer irabazten zuen? Tolosari zubi eder bat egingo zioten, baiña kontratista betiko galdu.

Zeruan lenengo izarrak azaldu baiño len, millaka zaldi laukoan baletoz bezela, izugarrizko anka otsak nabaitu zituzten.

–Emen dituk deabruak –zion kontratistak–. Bukatuko ote dute? Luziferrek esan duen ainbeste baldin badira, aixa.

Bertara urbildu aiñean, kantari zetozen:

Amalau milla deabru gatoz,  
Mikel izena daukagu,  
zubi txiki bat eraikitzeke  
eman digute enkargu.  
Arrats bateko lana, len ere  
ontan oituak gaude gu;  
beste Mikel bat diruzalea  
lagun berria badegu.

–Amalau milla deabru, eta nere izenekoak! Ez dek inpernu ori txikia izango! Galdu nauk! Ordubetean jasoko ditek!

Gu, millakak amalau  
deabruak, gatoz gaur,  
jasotzera zubi au.  
Zeruan izarrak, gau;  
asi gaitezen, *rau-rau!*

Zeruan izarrak agertu ta kantu au entzun orduko,



ikusten zituen ondo landutako arriak, kate maillaren gisa lotuak baleude bezela, zubia jasotzen ari ziran lekura etortzen. Baiña langillerik etzan ageri. Zubia bai arrigarrizko moduan gora ta gora zijoala. Kantari ari ziran beren lanean:

Batzuk arria landu, bestek  
eraman eskurik-esku;  
kukurruku jo baiño len lana  
aixax bukatuko degu.

Kontratastak bere artean ala zion:

–Inpernuan gaizki bizi dirala? Ez dik itxurarik, auek kantari ari dituk lanean ta.

Amalau milla Mikel izeneko deabru ari omen ziran lanean, iru kilometrora zegoen arrotitik. Batzuek an bertan landu arria, aukeran aukerakoa, jarri beste lanik etzeukana, ta beti kantari. Tarteka oiukaragarriak eta zigor otsak ere bai. Etzuen kontratastak iñor ikusten. Baiña zubiak gora zeraman martxaz oarturik, benetan izutu zan, oillarrak kukurruku jo baiño len aixax bukatuko zutela. Berak anima galdu, berriz. Amalau milla Mikel aiekin joan bearko zuela betiko sutara.

Laxterka aztiarengana joan zan, zer gertatzen ziztaion esatera.

–Egitea nai etzenduen, bada?

–Bai; baiña nik anima galdu gabe.

–Zoaz lenbailen, eta bota atzaparkada bat gatza sutara, ta zirika zazu beatzarekin azpitik oillarra. Orduan bereala egingo du kukurrukua.

Aztiaren agindua egin zuenean, kukurruku ozen

bat egin zuen oillarrak. Ondoren, inguru aiek guziak dardarazteko aiñako karraxia entzun omen zan, eta millaka zaldi laukoan zijoazela omen zirudien, ta egundoko oiua ta zirti-zartakoak ematen omen zizkiela beren buru zekartenak. Iru milla arrainu, laxter aldegin omen zuten andik Mikel izeneko amalau milla deabru aiek.

Goizean urduri asko joan omen zan kontratista ikustera. Zubi dotorea iruditu zitzaion, bere ustez dena bukatua. Anima galdu ote zuen? Ez, aztiari eskerrak. Oraindik arri bat palta zuen osatzeko. Gerroztik ez omen du iñork ura nola jarri asmatzen. Ementxe bukatzen da ipui au. Polita al zan?

–Bai orixe! Olako zenbat ote dakizkizu?

–Liburu bat ederra egiteko aiña bai.

–Ez nuen nik ere ori sekula entzun –zion aita–. Ori asmatu zuenak bazeukan bere talentua.

Eta denok lotara joan giñan. Artarako bai giro zegoela.

## AITA MOTXAILLE

Jeiki orduko, gure lenengo lana atariko putzuan arpegia garbitzea izaten zan. Bestela, etzigun aitak gosari txikia egiten utziko.

Saskigillea ere bai; goiz jeiki zan. Baiña lasai zebillen ura. Egun asko igaroagatik, etzan kejatuko. Aterpea ta mantenua seguru baizeuzkan. Arek etzuen arpegirik garbitu asmorik ere. Alare, aitak etzion gosari txikirik ukatu.

Bezperako aparitan gu nazkatu giñala esan nue-nean, ikusten genduenez, bai aita bera ere. Arek gurekin egiten zituen otordu guzietan, ez giñan jaten genduen bota nairik ibiliko. Gosari txikia egin zue-neko, ala esan zion aitak:

—Aizazu, Joan Manuel: otsoa berbera dirudizu. Bizar-ille oiek moztea nai al zenduke? Berdin kanporako ez dago girorik. Nik egingo nizuke lan ori.

—Joxe, aspaldi ontan ez dit iñork olako arrazoirik eman. Ez didazu bi aldiz esan bearrik. Ez nuke nolanaiko atsegiña artuko. Joan dan urtebete ontan ez naiz etxera bildu, eta zuk badakizu zergatik. Ez dau-

kat, bada, non ta nork mozturik. Beti gerorako utzi, ta Adan bat egiña nabil.

–Bi arrazoi dauzkat ori egiteko: bat zuregatik eta bestea guregatik.

–Zuei ere enbarazu egiten al dizuete nere ille-bizarrak?

–Egia esango dizut: nere semeei nazka ematen diezu.

–Ondo dakit nik ori. Onera baiño len oartu naiz ortaz.

–Nai badezu beñepein, oraintxe bertan moztuko dizkizut; ez da noski etxe oietan bezin txukun geratuko baiña.

–Ez dio batere ajolik. Eskallerak egiten badizkidazu ere, ni emendik ateratzerako berdinduko dira.

–Ez eskallerarik, ez. Aurrerapen obeak badituk.

–Beraz, moztu ta eskerrik asko. Au bai etzaidala bein ere aztuko.

Ordurako bazan gure etxean illea mozteko makina. Bere gelatik ekarrita ura, bere aurrean jartzeko zapi txuria eta ixpillu txiki bat; eta ortarako geneukan aulkia aurrean ipiñi ondoren:

–Exeri zaitez mesedez emen.

Zapi txuria lepotik txintxilik jarri ta ixpilluari begiratzeko esanez:

–Begira ezazu onera, Joan Mañuel, zer moduzko gizona zauden ikusteko.

Algara gozoa egin zuen saskigilleak.

–Ori al naiz ni? Ai zer nolako artza nagoen! Ez daukat len nintzanaren antzik. Markes baten semea

ortaraino erortzea ere... Etzait arpegirik ikusten, sudurra ta belarriak besterik. Itzegiten astean ere, etzait aorik azaltzen, bizarrak dantzatzen dirala. Ez naiz batere arritzen, ni jaten ikusi ta nazkatzea.

-Ez al zenduen ixpillurik, ari begiratzeko?

-Oiek emakumeen txismeak ez dira, bada? Etxean inoizka begiratzen nion, emazteak bazeukan gelan olako bat eta. Etxetik aldegin ezkerro, nere burua txukuntzen ez ditut ordu asko igaro.

Gure saskigillea zearo bere buruari utzia bizi zan. Lana ematen ziotenean, egin. Beste gaiñerakoan, modurik bazuen, zurruta. Elizako joerak ere erdi utziak zeuzkan. Alare, sinismena etzuen oraindik soil galdu, otoitz ere egiten zuen ta. Ukuilluko astoa bezelaxe, borondaterik gabea. Lau ankako oien antzera, ara-onera bestek ibil erazi eta eramana.

Ernanira ezkonduetako alabak zerbait laguntzen zion.

Ille mozteko makinarekin, zeroan jarrita, lenengo bizarra moztu zion. Gero, neguan bizi giñan eta, iru maillaz gorago ipiñita, illea, kalpar lege bat utzirik, bere semei bezela. Urrena, berak erabiltzen zuen labana zorrotzarekin, txukundu aurpegi ta lepondoa. Gure aitak orduan egin zuen lana, milla pezetarekin ez luke ordainduko. Bukatu zuenean, aurrean jarri zion ixpillua. Arriturik, saskigilleak:

-Len ura ta orain au al naiz ni?

-Bai. Ura zu ziñan, eta au ere zu zera.

-Ez al nago ni oraindik gizon bapoa?

-Bai, bai. Zure adiñerako, gordiña oraindik. Alperkeriak on egin dizu.

-Laxter bukatu dezu lana. Aurrerapen aundiko tresna da ori.

–Bere balioa badu. Baiña bai onenbeste semeei illea mozteko ere. Egun jakiñean illero-illero denei egiten diet lan ori.

–Eta ez al didazu lan au dena ezer kobratu bear?

–Emen artuko dituzun diruekin etzenduke ordainduko.

–Eskerrik asko orduan, Joxe. Gizon mazalak bizi dira mundu ontan oraindik. Amar urte kendu dizkidazu bizkarretik. Au freskura ta txukuntasuna nere arpegiak!

–Ori ez da egia izango. Baiña bai amar urtez gazteagoa dirudizula.

–Orain beiñepein gizon baten itxura badaukat.

–Edozeiñen musua artzeko ere etzaude gizon aldrebesa.

–Musua? Ez det bein ere gogozko izan ori. Geienetan berekoia ta gezurrezkoa izaten baita. Judasena bezela, billaua.

–Arrazoi dezu. Oraindik beiñepein etzaude iñoren musua artzeko moduan. Arpegi ori pixka bat ez badezu garbitzen, ezta txakurrak ere ez lizuteke emango. Urte batzuetako krakak or dauzkazu erantsiak.

–Ai! Zu bertsolaria izaki!

–Baita seme askoren gurasoa ere. Orain zurekin bezela ibiltzen naiz oiekin.

Jaboa ta txukakia eman zizkion aitak eskura.

–Atariko putzura joan ta garbi zazu arpegi zikin ori.

Besteen esanera oitua dagoen asto zaar bat bezela, an joan zan putzura.

–Aita izan ta olakoa zeranean, etziñan zu ama txarra izango.

–Emen biak dauzkat egin bearrak.

–Urte ontan, euri jasaren batek izan ezik, etzuen nere arpegia urak ukuituko.

Amaren eskuetara makurtzen dan ume txiki bat bezela, jarri zan saskigillea gure aitaren borondatera. Ateraldi ura eskertu omen zion saskigilleak bere bizitza guzian. Guk ere bai.

## SASKIGINTZA

Saskigilleak leio aundi bat eta balkoiaren atea zeuzkan. Atzean, leku argitsu batean jarri zan, bere aulkia erdian. Lanerako argia bear. Negua zan, eta gau luzeak eta egun motxak.

Gaztain zumitz gai aiek guziak guk ekarri genizkion, berak lan egin bear zuen ingurura, ia zutitu gabe arrapatzeko moduan. Dena ondo jarri genioanean –guk ala uste genduen beiñepein– eta andik abian, ni deitu niñun, eta goxo-goxo ala eskatu zidan:

–Aizak, txikito; ez al dek emen ezeren paltarik arkitzen?

–Ori ez dakit. Baiña aitak agindutako guziak ekarri ditugula uste det.

–Lanerako bear ditudan puskek bai. Baiña bada-kik lau orduan emen ariko naizela. Zurrutero xamarrara nauk ni gaiñera, ta daukazuten sagardo ori ain zaidak atsegiña. Mesedez, ekarri zak txarrokada bat.

Eskatu bezela ekarri nioanean, bere tirabidean utzi zuen, zutitu gabe arrapatzeko moduan, bere bizkar atzean babesturik, lanean ari zala bota etzezan. Arratsaldean beste bat ekarri bear izan nion. Otor-



duz fuera, iru litro sagardo sartu ziran eztarri artatik beera.

Patxaran ekin zion bere lanari. Zumitz gai lodienetik asi zan. Ortarako zeukan matxete txabal batekin, zumitz gaia muturretik artesten zuen; eta, beatza sartuz, eta uste det erdikoa zala, beste lauekin zumitz gaiari eusten ziola, bi aldeetatik geiegi zabaldu etzedin, eta belaunarekin indar egiñez, batetik bestera bi erdi egin zuen, biak berdintsuak. Gero, aietako bat artu ta lan bera, dena zumiztu arte.

Banaka-banaka denak zumiztu zituenean, aundiak aundiekin eta txikiak txikiekin bi sailletan berezi. Baziran ia lau zentimetroko zumitzak. Aiek, azpian jartzeko aukeratu zituen, esian lotzeko gogorre-giak zirala ta. Alako zortzi bat jarri zizkion azpian gurutzetuak, eta zumitz guri ta meagoekin esitu, ondo biribilduz. Ondoren, azpiko zumitz zabal aiek bi aldeetatik gora txutik jarri, aien artean beste batzuk sartuz. Ortarako lendik moldatua zeukan zumiztu gabeko gatzain guri me legun batekin egindako buruntzia edo uztai erantsi. Oni lotu zizkion zumitz zabal aiek, esola bezela artuz. Poliki-poliki dena esitu zuen uztairaiño, bi aldeetara eskulekuak utziz. Orrela, bukatua zegoen saskia.

Batzuk txikiagoak, besteak aundiak, asto saskia ere bai, baziran denetatik. Lanerako era askotakoak bear baidira.

Otar asko erabiltzen da baserrian. Baiña zarea esaten diogun beraizik sagar biltzeko egiten dana ere bada, ta neurri-neurrikoa. Olako amabirekin karga sagarra osatzen baida, ta birekin zaku bat. Gipuzkoako kargak sei zaku ditu. Naparroakoak, iru besterik ez. Garai artan zareak bear-bearrezkoak ziran. Sagar lan ikaragarria izaten baizan baserrietan.

Zareak gaiñez-gain kirtena izaten zuten eskuleku gisa. Guk kizkia deitzen diogun batekin artzen genduen sagarra lurretik. Gaur oraindik oitura ori dago. Kirten txiki artan kolpe bat emanta erortzen da sagarra zarearen barrura.

Kizkia ez da besterik: makil baten puntan iltze bat kakuan jarri. Ura sartzen zaio sagarrari; eta, zarearen kirtena jotzean, barrura erori.

Ez dakit zenbat denboran. Baiña, geldi-geldi, otar pilla polita egin zuen.

## AITAREN BESTE ATERALDIA

Saskigilleak esanta noski, aitak bazekien etzala geiago etorriko: Euskalerrian, Gipuzkoan beiñepein, azkenekoa ura izango zala. Azken agurra bezela, beraren omenez, oillo eder bat il zuen bazkaltzeko. Olakoxea zan ura. Beartsua, beartsurik bazan. Baiña zeukan pixarretik ematen zekiena.

Lanak bukatu ta amaiketako egitera sukaldera joan zanean, katillukada bat salda jarri zion aurrean, maian alegia, iru txikiko ardo botilla batekin. Murtxatu zueneko, atsegiñez galdetu zion:

-Au, Joxe, ez ote da gero oillo salda?

-Txastatzaille ona zaude zu oraindik ere.

-Jan-edateko kontuan bai orixe.

-Bai. Ala da. Ez omen zerala geiago etorriko ta zergatik ez jarri?

-Eskerrik asko. Neregatik oilloa il dezu? Txe-etasun auei begirutzen diezu, bada? Ortan agertzen da nolakoa dan baten biotza.

-Nik ez diot inportantzi geiegirik ematen.

-Nik artzen diot, bada, ta ez txikia. Amaika leku-

tan iritxi naiz. Baserri aberatsetan ere bai. Baiña ez naute emen bezela iñon artzen, eta gutxitan mai batetik jango degu. Ni beti berex. Agurra ere otza. Egindako tratua txintxo bete, ori bai, ta kito. Emen fameliko baten antzera artzen nauzute etxean. Nere ille-bizarrak nazkatzen dituela ta botatzen naute. Zuk dena moztu ta txukundu nauzu. Ori, beartsua izanik. Oiek dira oparoenak. Ez ote daukazu sendi ontan xox pixar oiek ezin enpleaturik? Eskerrik asko, Joxe. Bizi naizen arte etzait aztuko au.

–Nik jango det. Nere semeak ere bai. Bitartean, bazkari on batekin egingo dizugu agurra, aspaldiko gure lagun xaarra zeran ezkerro. Datorren urtean, garai ontan, oillo baten gora-beeragatik ez gera aberatsago edo beartsuago izango. Eta, gaiñera, aspaldiko saskigillea zaitugu zu emen.

–Gudatea bukatu ta bereala –ogei ta seiren bat urte izango nituen–, zure aitarekin asi nintzan. Zu, oraindik txikia, auek bezelako umetxoa ziñan. Gerroztik, batez beste, bost urtetik bostera emen nauzute. Zerorrek atera kontuak zenbat aldiz etorria izango naizen. Lenengo sarreran, egundoko lanak eman zizkidan zure aita zanak. Gizon prestua, baiña zuzena. Ura ere oparoa zan nerekin, zu bezelaxe. Urte batzuetan, gudak galerazita, iñor izan gabea noski. Azkenekoa, nere aita zana. Orduan neukan nik sasoa. Zuek gudariak zikindutako etxea garbitzen, eta ni saskigiñean. Pozik egin izan diot nik beti Bordaxarri bisita.

–Au orduan azkenekoa dezu?

–Bai. Etxez-etxeko saskigilleen bizibidea bukatu da. Ainbeste urtez ibilita, azken agur onek tristuraz betetzen dit biotza.

–Eta ez al dabil besterik?

–Denak utzi dute. Ezin baidegu lanik billatu. Zu oartuko ziñan noski, etxean egindako otar pillak, neurri guzietakoak, nola jartzen dituzten Ernaniko azokan salgai.

–Bai. Azkeneko bi urte auetan aukera dago, nai duenak erosi. Ortarako langilleak jarri dituzte. Nonaitik badaukarte zumitx gaia; eta, nagusi baten mende, eguneko onenbestean ari dira saskigiñean, gero azokara eramán ta an saltzen jartzeko. Xox pixar batzuen jabe danak, aurrean alako aukera ikusita, nola eramango du amar bat egunerako saskigillea etxera? Bai, Joxe, bai. Ni naiz Gipuzkoako etxez-etxeke azkeneko saskigillea. Aurki, izan giñanik ere aztuko da jendea.

–Eta saskigilletza, ondare bezela, noiztik dator zuen famelira?

–Ez diot iñori galdetu. Baiña nere aitona ala zan. Onen aitona ere bai, nere aitari entzun nionez. Alarre, onek gazterik utzi zuen. Bere ordeko ni izendatu niñun. Eskariak gutxitzen ari zitzaizkion. Berritxuegia omen zala esan zidan berak, batean ikusi ta entzuna bestean kontatuz. Ori txarra da gero. Baiña nere semeak, ikasi badute ere, berentzat etxerako egingo dituzte. Nerekin bukatzen da saskigintzako bizibide au.

–Onuzkero amaika saski egin dezu, ta atsedena artu zenezake.

–Bai. Baiña ni ez naiz muxarra, lotan bizitzeko. Bizi bearrak lanak emango dizkit. Neregatik ez bainuke sendia naasterik nai.

## BAZKARIA

Maia jarria zegoen. Anaion arte antolatu genduen dena. Etzan serbilletarik. Ez bearrik ere. Kanabita bakarra aitaren ondoan, ogia zatitzeko. Erdian jarro aundi bat denentzako. Aulki bakoitzaren aurrean, kutxare ta xardea. Erdian aukera jartzen baziguten, ez genduen besteren bearrik. Ederki konponduko giñan. Azpillak ere alperrikakoak genituen, denok ontzi batetik jango genduen ta.

Amaika gizonezko, maiaren inguruan bilduak. Bi zaarrak; besteak gazteak. Aitagure batekin bedeinkatu zuen aitak maia. Gero, purgatorioko animen alde salbea. Ori zan gure etxeko oitura. Prest geunden, bada, erasotzeko. Gogorik ere etzan palta.

Bazkaria ugaria; ori bai. Ainbesterentzat zerbaiten bearra ere bai. Ez, ordea, urrearen truke jaki guriz moldatua.

Eguberrietan eta erriko jaietan izan ezik, ez du baserritarrak ortan dirurik botako. Baiña etzan geratu ezurra besterik.

Nekazarien esaera da, etxeko potajea ta pitarra bezelakorik ez dala. Bazkari aurretik jartzen dituzten

jaki xixtriñik etzan gurean oitutzen. Aurrean, oillo salda pertzakada ikaragarria, ogi zopaz asea. Amaika gizonezko baigiñan, zerbaiten bearra bazegoen.

Asi giñan ekarri ta ekarri. Idazteko makina zirudien gure maiak. Beti kutxareren batzuk baziran pertzaren barruan. Denak ixilik. Etzan kinkiorik, dena bukatu arte. Jarri ez ta kendu, pilla bukatu egiten da. Guri ere berdin gertatu zitzaigun.

Saskigilleak, eskumuturrarekin ezpaiñak garbitu zituenean, autsi zuen ixillune ura:

–Mutillak, ederra zitxion –Azpeiti alde ortan ikasiko zuen izketarako modu ori–. Egunero olako bat ez litzake gaizki etorriko. Urteak dira ez detala nik olako saldarik artu.

–Noizikan bein grazi egiten du. Baiña egunero asi ezkeru, nazkatu egingo giñuzke. Beti piñetik ez da komeni.

–Bai. Ori ere ala da, Joxe.

Saldaren gaiñetik ona omen dala ardoa, eta zaararak baxoxka bete artu zuten. Baiña guri, bada ez bada, gutxiago eman ziguten.

–Bestela, aurki oiuka asiko zerate.

Gurean etzan pitarra edateko beste oiturarik. Saskigillearengatik ekarriko zuen ardoa aitak. Geitxo gustatzen ote zitzaion iruditu zitzaigun.

Gure baserriko beste oitura, babarrun gorria izaten zan, geienetan beiñepein, bazkaltzeko. Aren saldarekin zopak egin. Orduan ez. Saldari grazi geiago ematen dio barbantzuak. Ori ez dakit egi osoa dan. Guk ala genduen beiñepein. Etzuten nolanaiko pertzakada atera. Baiña ura ere laxter bukatu genduen. Amaika gizonek badakizu zer bear duten. Edaria, berriz, pitarra; nai zuenak, aukeran.

Ondoren, oilloa beste pertzakada ikaragarria. Le-

nengo, salda egiteko egosi; gero, prejitu lege bat emana zegoen, patata mordoxka bat lauко txikitан eta piper gorri batzuekin naastua. Bikaiña ta gustagarria zegoen. Baiña nik ezer gutxi jan nuen. Atzetik zer etorriko zan bai-bainekien. Batzuek, ordea, sartu zituzten berenak eta besterenak ere. Alare, zerbait geratu zan.

–Orixe aparitarako balitxiok –geiago ezinta esan zuen saskigilleak.

–Bai, gizona. Gaur dagoen eguraldi onekin ezin joango zera –aitak esan zion.

–Eskerrik asko, Joxe. Langille bat bear bazendu, bertan geratuko nintzake.

–Orduan, barauak egiten ere ikasi bearko zenduke. Ez gera beti eztaietan bizi. Oilloa baiño sardin zaarra obeto izaten degu.

–Orregatik da, bada, gaurko zure ateraldi au eskertzekoa: neregatik oilloa jarri gaur, eta biar zuentzat sardin zaarra.

Oraindik etzan, ordea, bazkaria bukatu. Anai zaarrenak ekarri zuen goitik ontzi aundi bat, arrosez betea. Guretzat, ori gabe etzan jai osorik. Andik egin nuen betekada. Nere anaiak ere bai. Zaarrak ezer gutxi.

Bazkaria bukatu zan. Orduan etzan kaferik ezagutzen ere, eta baserri oietan ta gutxiago. Zaarrak etzeukaten jeikitzeко gogorik. Saskigilleak pipa piztu zuen, eta apari arteko bazkalondoa egin zuten.

Saskigillea etorri zan arratsa gaiztoa bazan, aren antzekoa egin zuen lanaren bukaerakoa ere. Arratsalde ura beiñepein ikaragarria zan. Aize ta kazkabarra naastuan. Iñora joateko baiño, etxe txuloan kontu kontari aritzeko giro ohea zegoen. Aiek, berri, etzeukaten maitik jeikitzeко gogorik.



Aitak eskura eman zion saria. Etzan asko izango. Baiña gure saskigille mazalari etzizaion aztu: gure etxean gertatu zan ezbear batean ama il berria genduen. Aren utsuna ta utzi zuen tristura nabari zan gure famelian; eta, artu zuen pizarretik, arentzako meza dirua eskeiñi zion aitari.

## MARKESAREN SEMEA

Bazijoan Joan Mañuel, geiago ez etortzeko asmoan; eta bi adiskideren azken agurra tristea izaten da oso; samiña.

Aiena ez noski ainbesteraíño. Oraindik, Jainkoak ala nai bazuen, elkar ikusiko zuten. Ernanira joango baizan bizitzera. Baiña gure baserriari etzion beste bisitarik egingo.

Apal ordura arte berritu zituzten urteetako gertakari guziak. Bai guk pozik entzun ere. Ortarako aita zirikatzaile ona zan. Bestea, berriz, bapo zegoen, katu erdian jarria. Mingaiñean etzeukan erreuma aundirik, arratsalde santu guzian itz jario aritzeko moduan.

Lasai patxaran itzegiten zuen Joan Mañuelek. Euskera ederra ta garbia. Etzan aopean itzak jaten zituen oietakoa.

Irurogei ta zazpi bat urte uste det zituela ordurako, eta arritzekoa: ortza bat bakarrik etzitzaion palta. Sagardoa ta ardoarekin besterekin etzituen, bada, garbituko. Ulert erreza zan, bada, aren mintzaera.

Nere aita zanak batez ere ipuiak eskatzen zizkion,

guregatik noski. Orduan Gipuzkoan zear zebiltzanak jakingo zituen. Arek, berriz, aitari bertsoak.

–Zu azkeneko saskigillea zeran ezkeru, baziñanik ere aztuko zaituzte. Zergatik ez dizkiguzu kontatzen zure bizitzako gora-beeren batzuk? Bizia erretzen dijoa, baiña jakin dezatela ondorengoak nola bizitzen ziran gure aurrekoak.

–Saskigillearen bizitza kaxkarra da, baserritarrena bezelaxe.

–Gurea badakigu; zurea ikasi nai genduke. Besteren etxean bizi bearra. Batzuek ondo artuko zaituzte. Besteak ez berriz, batez ere emakumeak, eta ori etxe berean. Aientzat geratzen baita ia lan guzia. Sukaldean sartzen ere ez dizute utziko. Askok, zeletari ibiliko zaizkizu. Askotan, zumitz gai legorrak, abegi askokoak, zaarrak, ekarriko dizkizute. Egin itzazu aiekin saski onak!

–Badu orrek bere egi muturra. Guk dena pazientzian eraman bear. Bai; besteren mende lan egin bear duenak baditu bere istilluak. Bizitzeko aiña ezin sortu alare. Ni, gaiñera, gazterik asi nintzan. Emeretzi urterekin etxez-etxe nenbillen. Zuk jakingo dezu noski non dagoen gure baserria.

–Bai. Bi edo iru aldiz izana naiz ni an. Bein ikusi duenarentzat ez da aztutzen erreza. Saski borobil batek eskutik iges egiten badizu, bide puskan joan bearko dezu aren billa. Aldapa artan etxea jasotzea pentsatu zuenak, non zeukan burua?

–Bai. Aldapa gaiztoan dago gure baserria. Lantzeko lur erosorik ez du. Baiña bai ardi larre aundi ta ederrak ere. Irureundik gora ibiliko dira barruti aietan.

–Lan egin ezkeru, an ere atera egiten bizimodua.

–Artzai, saski ta txondorrak dira ango lanak. Ori da, bada, nere jaiotetxea. Bizimodu gogorra, baiña oparo xamarra. Alare, urte gutxi nituela galdu nintzan ni andik.

–Nola? Morroi biali al ziñuzten? –aitak.

–Oraindik ez det uste iñori kontatu diodanik. Baiña zuri bai, Joxe. Zu nerekin portatu zeran bezela, ez dizut ezer ukatuko. Bere txeetasun guziekin kontatuko dizut. Gaiñera, gaur orrek ez dio iñori miñik emango. Nere aitaren lagunik maiteenetako baten lana izan zan. Mundu onetatik joana da. Jainkoak barka dezaiola, nik barkatzen diodan bezela. Bi aita ta amen semea naiz ni.

–Itxuraz besteak bezelakoa zera, bada, zu ere.

–Orrek badu bere esplikazioa.

–Ez dakit, bada, nik zer pentsatu. Orain arte sortu diranetan, ez det uste olako seme estrañorik mundu ontara azaldu zaigunik.

–Oraindik sei urte bete gabeak nituela, baitu egin niñuten.

–Baitu? Oraintxe lenengo entzuten dizut. Orrekin, lapurtu egin ziñutela esan naiko dezu noski?

–Ori da. Len esan dizudanez, nere aitaren lagunik maiteenetako batek gaiñera; eta lapur ori nor zan jakin gabe joan zan aita. Ain lagun maiteak ziranez, ez nituen asarretu nai izan. Jakiña, etxekoei sekulako naigabea emango ziela. Neri, berriz, on egin zidaten. Urte batzuk onak igaro nituen. Lotu xamarra; ori bai. Etxean idazten ere ikasiko ez nuena, an eskola on bat eman zidaten. Aurrik etzuten markes batzuek beren semetzat artu bainiñuten.

–Orain bai; ondo ulertzen dizut.

–Gudaren iges Prantzira joan nintzanean, an ikasi nuen, markesen etxean, lapur ori nor zan, markesen

góra-beeren berri zeramatenak esanta. Gero, lapur-  
rrak berak dena kontatu zidan, bere adiskide maitea  
egin nintzanean. Baiña ordurako banekien nor ziran  
nere baitzailleak. Berak esan bezela, dena kontatuko  
dizutet. Onela esan zidan andregaiaren aitak:

–Aizak, Joan Mañuel: aitortza on bat egin nai  
nikek, billau ta lapur baten aitortza jakitea komeni  
zaik eta.

–Baiña, Pello, ni ez naiz apaiza. Ez dizut asolu-  
ziorik emango –esan nion.

–Lan oiek egiñak zeuzkat. Baiña nere alabarekin  
abillen ezkerro, arekin ezkondu baiño len, bai-baida-  
kit ura ere oso maitemindua dagoela irekin, ta beran-  
du damutu etzaitzten, jakin zak noren alabarekin  
abillen.

Denaren berri banekien nik, Prantzian ikasita.  
Alare, asi zuen ariari jarraitzen utzi egin nion, txe-  
etasun geiago jakitearren.

–Pello –esan nion–, gaur ondo misterioz ari zera  
izketan. Bota, bota, jakiteak ez digu kalterik egingo  
ta.

–Bai. Baiña zin egiten al didak ez diokela iñori  
esango?

–Ez naiz bein ere kontu zabaltzaillea izan, eta  
seguru bazeundeke ori nere biotzean ustelduko dala.

–Bestela, nere lagunik maiteenarekin asarretuko  
niñukek, eta espetxera eramango niotekek, urte ba-  
tzuetarako beiñepein.

–Ez nazazula orrela urduri eduki. Lenbailen garbi  
esaidazu.

–Pozik ixilik gordeko nitek, baiña iri komeni zaik  
jakitea.

–Ortaraiño aurreratu ta orain atzera egingo al zenduke? Bota zazu, len esan dizudan bezela nere biotzean itoko da ta.

–Onezkero jakingo dek noski baitu iñutela.

–Jakingo ez det, bada, amazazpi urterekin azaldu nintzan onera ta? Amaika urte luze markes batzuek beren seme bezela azi niñuten ta.

–Orra nik aitortu nai nuena: lapurren artean nengoken ni.

–Alajainkia! Ortaraiño ere erori al ziñan? Zuk ez kontatzean, baraurik bizi ta ilko nintzan. Ez nuen bein ere zure susmo txarrik egingo; eta eskerrik asko, apal-apal, konfiantza osoan, seme bati bezela aitortzen didazulako.

–Ez aut, bada, semetzat artuko? Nere alabarekin ezkondu ta gero ori jakiteak etzizuten onik egingo. Orain badakik norekin ezkontzen aizen.

–Aitaren pekatuak egiten dituenarekin biziko dira. Ez diote alabari kalte izugarririk egingo, Pello.

–Bere edertasun ta biotz gozoa edukitzen ez. Baiña bai zerbait zikindu bere izen garbia. Ez niñun bakarrik.

–Dana dala, ni zure alaba uzteko asmoan ez nabil, eta arrazoi asko dauzkat dena ixilik edukitzeko. Nola gertatu zan, ori jakin nai nuke.

## AZALPENA

—Ire aitaren lagunik maiteenetako bat niñun, eta gaur oraindik alaxe nauk. Txikitatik asita, gaztaroko gora-beera guziak elkarrekin igaro genizkien. Gu biok, eta gure andregaiak ere, erromeri guzietan batera. Ezkondu ere batetsuan. Ire aitak ia bere buruarekin aiñako konfiantza zeukaken nerekin. Ortan pentsatu zenbateraiñokoa izan zan nere billaukeria. Arek, ordurako, lau seme ta bi alaba zeukaken. Nik ere, iru alaba ta gazteena semea. Ire andregai ori, berriz, bigarrena.

Deabruzko zirikaldi bat etorri zitzaidaken, bost milla pezeta eskeiñiz, dirutza ikaragarria orduan, bost urtez beeragoko aurtxo bat ebasten banuen, aurrik gabeko markes batzuentzat semetzako. Zor batzuk baneuzkaken, eta ordaintzeko presa aundi-koak. Nerea eramateak min ematen zidaken. Oraindik beste bi geratzen zitzaizkidaken. Baiña, amak jakiten bazuen, sekulako asarretuko zitzaidaken. Agian salatu ere bai, arrazoi osoarekin gaiñera, beraren berri gabe semea baitu niolako. Nereak min ematen zidala; besterenak ez, ordea. Azkenik, nere lagunik maiteenari ostu nioken, eta i intzan ori.

–Lan txarra egin zenduen orratik ori, Pello.

–Gaiztoenetakoa. Alare, lagun maitetzat zeukat nik ura. Arek ere bai ni.

–Nola gertatu zan ori?

–Tratua egin genduen ezkerro, i aukeratu iñudan, eta egokiera billa nenbilleken. Beia ume miñetan zegoela-ta, goraxeago lanean ari zan aitarengana bialli iñun amak. Bidean nerekin topo egin uan. «Au dek nere ordua» esan ta artu iñudan. Baiña ik karraxi egin uan. Aitak entzun omen zuela, gaiñera. Baiña, ni ezagutu orduko, ixildu intzan. Batere beartu gabe eraman iñudan txarako bide txigorrean gora, iñork ikusi gabe. Bestela, galdua nengoken. Geldi-geldi igo giñun alde z aurretik aukeratua neukan txabolara.

–Nik aitarengana joan bear det! –ik negar egiten uan.

–Lasai, Joan Mañuel, laxter joango gaituk eta.

–Baiña aitari abisatzera bialli nau amak.

–Onezkero zaarrenak abisatuko zioken.

–Laguntzera joan bearrean, ura bakarrik utzi ta neri galerazi? Azio kaxkarra zan orratik ori –nik erantzun nion.

–Ago ixilik, Joan Mañuel. Deabruaren zirikaldi ori ez nin nolanaikoa. Gu txabolan izketan ari giñan bitarte, ixtilluak zerabilzkiteken ire etxean, i ezin billaturik. Ni ere urduri. Bai-bainekien lenengo abisua gure etxera egingo zutela. Ni, berriz, palta andik. Nere zorionerako, ordekoa laxter azaldu uan; eta, i negarrez aren eskuetan utzirik, etorri niñun etxera. Ori egiña zearo damutua, baiña atzera egitera ezin ausartu. Bestela, nere bizia arrixkuan geratuko uan.



Ezer gertatu ez balitz bezela azaldu niñun, eta oraindik gure etxean etzekiteken ezer ere. Illunabar aldean agertu uan ire aita, urduri, neri abisatzera.

–Kaixo, Pello –agurtu nioken–. I lasai ago.

Barrun guziak naastu zitzaizkidaken, gizarajoa malkoak legortzen ikusi nuanean. Edozeiñi egiteko ere azio kaxkarra uan. Baiña ari? Nork eta nik?

–Bai. Etzeukat zerekin estaturik. Garai ontan i emen? –galdetu nioken.

–Bai, motell. Oso kezkatuik, ire laguntzaren eske natorrek.

–Zer gertatzen zaizute, bada?

–Joan Manuel, gure semetxoa, goizean amak neregana biali zelaira, ta ez dek oraindik etxean azaldu.

–Arritzekoa dek ori. Lagundu? Bai, gizona. Ago pixka bat. Parol argia etzaiguk gaizki etorriko. Urrutira ikusiko baidu onen argia.

–Aizak: etzegok gaizki pentsatua.

–Nola gertatu zaizute ori?

–Beia ume miñetan eta amak neri abisatzera biali dik. Baiña ni ez naizela etortzen, eta semea ere ez, zaarrenari abisatu omen zio: «Oa ta esaiok aitari lenbailen etortzeko. Joan Manuel etzekit non sartu dan. Jolasean ibiliko dek nonbait». Ni etorri naizenean, amak galdetu zidak: «Ez al dezu beste semea ikusi? Oraintxe ordubete bada biali dedala». Ni arrituta geratu nauk. «Oraindik umea dek, baiña arek ez dik olakorik egiten. Beeko estratan entzun dit karraxi zorrotz bat. Ea andik erori dan!». Zuzenean joan

nauk, baiña an etzegoken aren aztarrenik. «Non-bait or ibiliko dek», eta artan geratu gaituk. Bazkal ordurako etorriko zala uste genin, baiña ez dek azaldu. Kezketan jarri gaituk. Arratsaldean, beste lan guziak utzi ta etxeko txakur ta guzi aren billa ibili arren, ez diagu aztarren txikienik arkitu. Nai-gabetuak, beldurrak eta kezketan geratu gaituk. «Non galdu bear zuan gure semeak?» zioken negarrez amak. «Nork daki? Emendik ara bitarte ez da galdu ura, beti or dabil jolasean eta». «Ea norbaitek edo zerbaitek arrapatu duenean karraxi egin duen» zioken amak. «Mendi auetan ez da ura eramango duen piztirik. Azeria dek emengo aundiene-takoa». Bost kilometroz etxe inguruan ez dek. De-na aztertu diagu txakur ta guzi. «Bizi bada, otzak galduko du, arin jantzia zebillen ta» zioken berriro amak. «Etxean ez dek beste iñor lagunduko dida-nik, eta ire billa netorrek. Joango aiz noski?» eska-tu zidaken.

–Zalantzan jartzeak ere min ematen zidak. Baita Aizgorriko muturrera ere joango niñuke.

Emazteari esan nioken zer gertatzen zan.

–Zoaz eta lagundu iozu –esan zidaken emazteak, naigabetua.

Biak batera atera giñun, ea karraxirik entzuten genduen edo argia ikusi ta oiur egiten zigun. Baiña arratsik geiena galdu ta alperrik.

–Zer irizitakoa aiz? –galdetu zidaken ire aitak.

–Ume ori ez degula arkituko ez bizia ta ez illa. Baserri auen artean ezin litekeek bost urteko aurrik galdu.

–Orixe esan ziot nik ere amari: norbaitek arrapa

tu ta eramana izango dala, eta itxaropen geiegirik ezin gentzakela artu.

–Nere iritzi tristea ere orixe dek, bada.

–Besteren negarrari begiratu gabe, olako lan gaiztoak egiten erreza dek; eta, zoritxarrez, asko zeudek olakoak mundu ontan– zioken ire aitak.

Gau guzian ibilita, ler egiñak etorri giñun goizean etxera.

–Pello, billaukeriak izango dira. Baiña ori baiño gaiztoagorik...

–Ez, motell.

Nik jakinki zer gertatzen zan, eta gau guzian alperrik ibili. Baituta eduki iñudan txabolaraiño ere iritxi giñun. Txakurra zalantzan geratu uan.

–Etzekit ire semea ez ote dan emen egona izango. Zerbaiten aztarrenak artzen dituela zirudik –esan nioken.

–Ura edo besteren batzuk egon dituk gaur emen –erantzun zidaken.

–Alegiñak egin dizkiagu. Galdu bada, ez dek gure errua.

Amaren alperrikako negarrak ikusteak min ematen zidaken, eta biok sekula baiño lagunago. Deabruak ere ez likek olakorik egingo. Egunetan ibili uan jendea. Ertzaiñak ere bai. Azkenean, norbaitek baitua izango intzala ta ortan igaro uan. Geienen iritzia ori uan. Baita ire gurasoena ere. Aur ura etzuela piztiren batek jan. Besterentzat bederenik bizi zedilla zioteken ire gurasoak. Mesedez, ez aioke-la ori aitari esan.

–Ez nere beldurrik eduki, etzait komeni ere ta.

Baiña, Pello, ipuia izango da ori, olako gizonik ez da lurraren gainean sortzen ta.

–Ez, motell. Alare, zoritxarrez, egi biribilla dek kontatu ditana.

Aitak, bizi zan arte, lagun maiteenetako bat bezela eduki zuen.

## BILLAUEN ARTEAN

Galdetu nion ea eskeiñitakoa eman zioten.

–Ez –erantzun zidan.

–Eta ortarako ixtillu oiek danak?

–Alaxe gertatu uan, bada. I txabolan artu iñuna, Erramonen anai mutil zaarra uan.

–Gudatean nik garbitu nuen ura?

–Uraxe; kontrabandista. Baita nere zirikatzailea ere. Ni joan nintzanean, ez niñun etxean artu nai izan, baiña bere anaia jabetu zan. Emendik aurrera-koa ere jakin nai badek, dena mutil zaarrak kontatu zidaken. Ura bertaraiño joan baizan. Nai badek, da-kidana esango dik.

–Eta ez al zan zuek biak besterik?

–Beste bi ere bai omen itun, mutil zaarrak zionez. Zirudienez, markesaren adiskideak. Bat, beiñepein, bere arduraduna, nere ustez. Baiña ez omen uan ura mutil zaarraren ezaguna. Arek billatu omen zuela au, euskaldun bat nai zutelako. Nai badek, dena kontatuko dit arek esan bezela.

–Orixe. Bota, bota.

—Ez omen ziotela xentimorik eman, eta barkatze-ko. Bera ere batere gabe geratu zala esan zidaken, egia edo gezurra. «Eta geroztik ikusi al dituk» galde-tu nioken. «Bat bai, nere ezaguna. Baiña bestea ez. Ari galdetu nioken kobratu al zuen. «Ordaindu izan balida, ez niñun etorriko» erantzun zidaken lagunak. «Ni ere i bezela geratu nauk. Batek jasoko zin dena. Iru, arraixkurik gaiztoenetan ibilitakoak, bi beiñe-pein; eta laugarrena ikusi al dek?». «Arrapatzen badet, eman bearko zidak. Bestela, il!» erantzun zida-ken amorruz. «Ez ioke alperrik eskatuko. Onezkero geiagori ere egingo zioken billaukeri ori bera. Txar-rerra jo ezkerro, berriz, gu ere galduko giñukek. Arrapatzen banaute ere, neregatik lasai bizi; ez dit iñor salatuko. Aldez aurretik kobratu bear genieken. Ortan txoroak izan gaituk». «Amaika aldiz nere bu-rutik igaro dek ori. Guk lan egin ta besteak zurrupa-tu». Orain arteko au gu bion arteko elkar izketa uan, eta ondoren nik galdetu nioken mutil zaarrari: «Eta nola eramán zenduten?». «Urez. Getari ondoko ar-kaitz batean beera jetxita, an bakarrik egon giñun luzaroan aurrarekin. Ura, gaixoa, «Ama! Ama!» ne-garrez, eta nik ezin ixildu erazi. Bertan zin egin nin, ura izango zala neretzat azkenekoa. Noizbait azaldu itun beste bi oiek beren txaluparekin, eta urez arrau-nean eramán genin. Nik, biona kobratu ta etorri nai nin. Baiña buru egiten zuenak ala esan zidaken: «Au-rra eskura ta dirua ere bai. Ez dituk aiek ere txo-roak». Itxas bazter batean geratu giñun. Txalupa urean utzi ta igo giñun aurrarekin esandako lekura. Ordua ere jarria baizeukaten. Emendik iru giñan; andik bi, gazteak gaiñera. Agian bat markesa izango uan, baiña biak arpegi estaliarekin. Nere lagun batek etzekiken nor ziran, baiña besteak jakingo zin noski. Aurrarekin bakarra joateko itzegiñak zeudeken; bat

baiño geiago joaten baziran, etzerala azalduko. «Eta nola ausartu uan bakarrik joatea? Ez al zeukaken sarean arrapatuko zuten beldurrik? Gizonak ajolagabea bear dik ortarako. Lenago ere olakoren batzuk egiña izango uan ura» esan nioken. «Gu ere, ordea –esan zidaken–, lagunaren eskariz igo giñun urrutixeagora. Baiña laguna bakarrik azaldu uan aietara. Tratua ere aiek egindakoa uan, eta andik ikusi genin dena. An elkar billatu ziteken, bada ez bada bi polizi zakur aundirekin. Neurriak artuta etorri itun, eta arrazoi ere baziteken, lapur batekin tratua egin ta lasai azaltzeko. Orrenbeste egin bearko, ortan geratu giñun eta. «Eta ez al da nolanaiko landarea? Zenbat urte ditu?» galdetu zidaken. «Bost, bete berriak». «Bi urtez gazteagoa izan balitz... Oni etzaizkio bere guraso ta etxeko gora-beerak berealakoan aztuko». «Orain atzera egin bear al dezute?» esan zioken lagunak. «Ez olakorik. Zer dakigu aur eder oni zer egingo zenioteken bestela?». Orain arteko au dena mutil zaarrak esanta zekit. Ik ere entzungo uan, bada.

–Bai. Zerbait oroitzen naiz. Emen iñauterietan bezela, zomorroz jantziak ikusten nituen. Baiña ez zergatik zan ura ulertu.

–Amorruz jarraitu zin mutil zaarrak: «Aurra eman, dirua artu zin ta gu txalupara jetxi giñun. Denak ezkutatu itun illunpean. Luzaroan lagunari itxogin ere. Azkenean etsi ta txalupan Getariara etorri giñun. Billaukeria egin ziguken.

–Zuek aoa bete ortzekin utzi ta iges egin zizuten orduan arek?

–Bai. Baiña, irugarrenak zionez, etziola barkatuko, ez bazion zor ziona ematen. Bazterren batean garbituko zuela.

Kejutzen bagiñan galduak baigeunden.

–Eta zenbana zenduten kobratzekoa?

–Nik iri esan bezela, bostna milla pezeta, denok berdin. «Ijitoen artean edozer gauza» esan nioken, ni ere tartean sartzen nintzala. Irugarrenak, arrapatzen bazuen ilko zuela nere aurrean zin egin zin. Sumindua zegoken, nere antzera; eta etzeukaken arrazoi paltarik. Baiña alibio ederra: kobratu ez ta geron buruak galdu. Ertenbiderik etzeukan arazoa uan ori, geron buruak salbatzekeroz. Mutil zaarrak esan zidanez, Prantzi aldeko erri txiki batean arrapatu omen zin. Bai berea eskatu ere. «Beste olakoren bat ekartzen badezute, arekin artzen deguna zuentzat» erantzun omen zioken lotsa gutxirekin. «Ik ekatzak zor digukena. Bestela, ez aiz emendik bizirik aterako». «Nerekin xentimorik etzekarret, eta nola emanngo dit?». Eztabaidaka lotu omen itun, gero ta setatiago; eta, azkenean, zor zuenak il omen zin zor ziona. Baiña bera ere Jutziziaren eskuetan erori omen uan, eta urkamendian bukatu bere mundua.

–Eta zu ez al ziñuzten salatu?

–Arek etzekiken nere berri.

–Orduan Jainkoak emen egin zuen justizia. Zu bakarra palta.

–Bazeukat orren beldurra, mundu ontan ez noski baiña. Mutil zaarra, berriz, ire eskuetan erori uan noski.

–Bai. Naigabe artu nuen, baiña neretzat nere bizia zan lenengo.

–Au dena, egia edo gezurra, orrek kontatua dek. Badizkit, alare, nere susmurrak, kobratu ta azkeneko auek ez ote zuten bi puska egin, neri eman bear zidatena beren artean zabalduz.

–Jainkoak zuri emango dizun zigorra badakit zer izango dan.



–Ori ezkutuan zegok.

–Ez. Zure alaba maitagarri ori neri eman bearko didazu; eta, orrekin, neri egin zenidaten guzia bar-katua dago.

–Ez didak eskatu bearrik. Ori emana zegok. Era-gozenak jarri bearrean, lagundu egingo dizutet. Berdin bazekit arek ere benetan maite auala. Nere bizia ere zor dit. Uste dek bestela nik aitortza au egingo nuela? Ondo lotsaz ta naigabetan ari nauk au dena iri kontatzen.

–Len ere esan dizut: ez baneuka zure alabaren maitasuna galtzeko beldurrik, bertan ebakita utziko zinduzket.

–Amaika izango dituk gutxiagotik illak –erantzun zidan.

–Ordurarte ni Leandroren semea nintzan; nere lenengo aita. Bigarrena, berriz, markesa izango zan.

–Su ondoan kontatzen diran ipui oietakoren bat izango da ori, Tolosako zubiarena bezela –erantzun zion gure aitak.

–Baiña egia. Saldu niñuten beiñepein. Ta lapurtu niñutenak ere etzuten negozio aundirik egin, nere aitagarrebak egia bazion.

## BAITEGIAN

Saltzailleak aldegin zuteneko, erostunak kendu zituzten beren arpegiko estalkiak. Ni negarrez noski eta goseak, bi edo iru egun erdi baraurik igarota. Gero, musu bana emango zidaten. An musua merkea da. Oitura ori dute nonbait. Amaika artu bearrak neuzkan, iges egin nuen arte. Nere jantzien gaiñetik beste bat jarri zidaten, estalgarri bezela. Ez bainengoan ango oiturara jantzia; eta norbaitek, ikusita ere, gaizki pentsatu etzezan, ordurako gau erditik gora zan ta.

Markesa zan bat nere billa aterea, eta bere emaztea urduri zai zegoen, gizona noiz etorriko erne. Laxter zabaldu zigun atea. Denak musuka artu zituen. Baita ni ere. Emazteak artu niñun, eta lenengo lana ur berotan garbitzea izan zan.

Arropa berri txukunak jantzi zizkidaten, baiña barrukoak bakarrak, logale nengoen nonbait eta zerbait artuz lotara bialtzeko. Eta Joan Mañuel, Euskalerriko azken saskigillea izango zana, zearo antzalduta geratu zan, eta markesen seme bezela artua, aien

ondarearen eskubide guziekin. Urte batzuk baziran berak ezkondu zirala, eta etzuten seme-alabarik.

Geroztik, askotan esan izan didate nere erri alde ortan:

–Markes baten semea orrela ibiltzea ere...

Emakume ura arrituta geratu zan. Esan ere bai senarrari, aurtxoaren gorputzaren edertasuna ikusita. Nere sasoiari gizon bikaiña bainintzan ni.

–Ez diozu gezurrik. Nere begiekin ikusia det ori  
–erantzun zion gure aitak.

Alaxe zion, bada, bere senarrari:

–Auxe da landare bikaiña!

–Bai. Bere jantzi xixtrin oiekin etzirudien. Baiña orain, txukundu ta jantzi berri auekin, beste bat azaldu zaigu.

–Onen jantzi pixarrak ere arrigarriak dira. Txapel xaar bat buruan. Au ango oitura izango da. Zaarren zaarrez kolorea joana, xaretua. Galtza zikin batzuk zango erdirañokoak. Barrengorik ez. Alkandora, aundiegia. Galtzen eusgarri, tirante batzuk atzean galtzei josiak. Aurrean, berriz, botoi batzuetan lotuak. Espartziñak, berriz, beatzen erdiak ateratzen zaizkiola. Jantzi gutxiagorekin ez det oraindik aurrik ikusi. Nere semeren bat orrela ikusiko banu, otzak ondatuko luken beldurrak geratuko nintzake. Ango aurak otz-beroeekin gogorak izango dira. Badakite aurak azitzen.

–Zer egin bear dezu jantzi oiekin? –galdetu zion senarrak.

–Erre bestetarako ez dute balio.

–Museorako ez lirake gaizki etorriko. Beartsu bi-

zi dira ango nekazariak, baiña badakite fameli bikaiñak aurrera ateratzen.

–Jakiña, mendi aietako askatasunean. Emen, berri, legea ta etiketa ugari, eta aur gaixoak amaren magaletik ateratzerik ez.

Bein nere garbiketa egin ondoren, sukaldera eraman ta apari lege bat eman zidaten, goxo xamarra. Nik, berriz, goxo zale amorratua, laxter irentsi nuen.

–Onek dauka entrama, onek! Emaiozu geiago –zion senarrak.

–Ez. Gaurko aski du. Etzaio komeni. Jarriko da poliki-poliki. Egun guzian baraurik edukiko zuten.

Neretzat, berriz, dena arrigarria zan. An etzegoen armiarma sarerik. Argiak bai zintzilik. Argazkiak orma guzietatik dilindan. Sukaldeko arraskara kanillatik ura. Dena zan ikusgarria. Beste mundu batean sartu nintzala iruditzen zitzaidan.

Lo betean igaro nuen arratsa, oatze guri askoan; ez, etxean bezela, lastaira gaiñean. Goizean, musu batekin emakume arek esnatu niñunean, arrituta arpegira begiratzen nion, «Non nago ni?» nere buruari galdetuko banio bezela. Baiña ura etzan nere ama. Ez nuen bei marrurik entzuten. Oillarraren kukurrikurik ere ez. Ain gutxi beeka artaldea, estalpetik ateratzen. Orduan oroitu nintzan lapurtu ta nola ekarri niñuten.

–Ama! Ama! –oiu egiten nuen nik.

Emakume arek, etorri ta musu emanez, ala zion:

–Gaixoa! Laxter jarriko zera!

Zerbait ulertzen ikasi nuen arte, nere suprikizunik aundiena ori zan: etzidatela nere izkuntzan itzegiten, eta biak euskaldun garbiak ziran.

Urrengo egunean, emakume arek etxe barru guzia erakutsi zidan, bere baratza eta guzi. Frontoi txiki bat ere bai. Gizona pelotari ona izana omen zala. Beraz, onek, markes batekin ezkondu zalako zera-man izen ori. Beste ur putzu aundi bat ere igaritarako bazuten. Dena erakutsi ondoren, barrura sartu niñun. Ango izkuntza lardaskatzen ikasi arte, etzidaten askatasunik eman.

Arratsaldean, bere lanetik etorriko zan markesa. Berekin baratzara eramango niñun, eta arekin pelotan edo jolasean ibiliko nintzan. Bera izerditzen zanean, artuko niñun eta larru gorririk botako niñun urera. Bera ere, gaiñeko jantzia kendu ta igarirako moduan geratuko zan, ta bere atzetik poliki-poliki an erabiliko niñun arratsaldero. Igari ondo erakutsi zidan. Bereala andrea etorriko zan, ta gizona barrura, legortu ta jaztera. Ni, berriz, amak txukatu ta jantzi-ko niñun. Baiña ondoren berarekin etxera eraman.

Amaika aldiz egoten nintzan goiko leiotik begira, nere kidekoak nola jolasten ziran. Ni, berriz, etxe txuloan, ixillean eta bakarrik. Jostailluak ematen zizkidaten, eta nere aiekin jolasten nintzan. Baiña ez aiek nerekin, eta alakoak nai nituen nik.

Bein prantzesa ikasi nuenean, ama asko zekiena omen zala ta irakurtzen, idazten ta kontuetan ere erakutsi zidan. Buru argikoa nintzala esaten zion gizonari. Ez nuen bi aiekin besterekin itzegiten. Iñor etortzen bazan, gelan ezkutatuko niñuten. Nere kideko batekin ere jolas egin gabe eduki niñuten, zortzi urte arte baitua. Ikastetxera bitarte, nere iru urte tristenak aiek izan ziran. Musua ugari, baiña ni lagunik gabe.

—Zuk nola dakizkizu umetako kontuak orren ederki? —galdetu zion gure aitak.

–Ez da noski dena gari garbia izango. Nik bost urterekin, aien izkuntzarik jakin gabe, ez nuen aien elkar izketarik ulertuko. Baiña gero ere tratu berdintsua emango zidaten. Gure ipuiak ere ez ditugu beti entzun bezela esaten, eta uste det orrenbeste askatasun bear duela kontatzen ari danak, nere iritzian beñepein, ori geiena egia da ta.

–Ondo dago. Ortan arrazoi dezu ta jarrai zazu.

## ERNIOKO SEMEA

Bederatzi urte nituela, atera niñuten ikastetxera, iru pasatxoak etxe txuloan baiturik eduki ondoren. Erriko kolejio txiki bat zan ori. Jesuitak ziran noski irakasleak.

Inguru artako aundi jendeak bazekien aiek seme-alabarik etzutela; eta, ni eraman niñutenean beren abizenarekin –nererik etzuten jakingo ere–, arritu ziran, semea izaki ta ain ezkutuan eduki niñutelako. Baiña beren illoba zutela semetzat artua zioten. Orrekin estali zuten egindako pekatua.

Beren ustez, ni aztua egongo nintzala onezkero. Dena ixilik eta illunpean baizeukaten. Baiña etzan oraindik nere burutik galdu aldapako etxe txiki ura, ta ango bei, oillo ta ardien ixkanbilla.

Etxean beintzat semetzat neukaten. Lengo izena ez baiña abizenak aldatu zizkidaten. Poliki-poliki ari nintzan nere sortetxeko oroitzak galtzen. Bein askatasunera atera niñutenean, poztu nintzan. Baiña nere nortasuna galdu nuen.

Alare, larri nenbillen nere lagunekin. Ezin asma-tu nola itzegin. Jolasten ain gutxi. Beti aundiagoekin

oitua, begirunez aien menpeko bezela, zaarragoen oituretara jarria.

Izketan, berriz, etzidaten berorika besterik erakutsi. Oso beldurtia gaiñera. Etxean dena egiña ematen zidaten, ia pentsatzen ere utzi gabe. Ez nuen egundo gazte batekin traturik eduki. Asarretu ta mutur jokarik eta eztabaidarik ere ez. Beti gonapean, aien esanera. Ordura arte dena goxoa, paketsua, losintxa. Nere lagunak zakartu ta purrustadaka ikus-tean, izutu ta atzeratu egiten nintzan. Ez niñuten ondo ezi. Bere kidekoen artean bizi ta azi bear du batek.

Gizarte berrira sartu nintzanean, beste mundu batera atera niñutela uste nuen. Sailleko beste ikasleak bat egin zuten eta beren jostailutzat artu niñuten. Ni ain ume goxoa ta guria ta berorika itzegiten nuela oarturik, *La Niña* jarri zidaten izengoitia. Gaiztoa izaten da umea gero, bein mendean artzen duenarekin. Ez eskaxagoa nintzalako; gaizki ezi nindutelako. Gurean ni nintzan audiena gorputzez.

Beste taldeko zaarragoko bati naigabe ematen omen zion, ni narabilkiten bezela ikusita; eta ala esan zidan bein:

–Isekaz arabilkiten oietan ez dek iñor ere i baiño geiagoa danik. Ez nai dutena egiten utzi. Bestela, betiko ondatuko aute. Oiek baiño geiagoa aiz. Bati muturrak maspiltzen badizkiok, andik aurrera pakean utziko ditek.

Askotan, ara-onera belarrietatik artuta erabiltzen niñuten, isekaz *La Niña* esanez. Alako batean, orratik, Ernioko semea esnatu zan; eta *La Niña* esan zidan bati, ortzak erakutsi nizkion. Sailleko oillarra bera izaki gaiñera.

–Ez didakela berriz esaten!



Bai arek arro-arro esan ere. Irugarren aldiz esateko gogoak kendu nizkion. Oillarrari ttonttorra moztu ere bai. Beste itzik trukatu gabe, bala bera baiño biziagoko begiondokoa eman nion, sudurretatik odola zeriola utzita. Etzan uste gabeko orrekin atzeratu. Eldu zidan. Baiña arek etzeukan an zer egiñik, burruka lanean ikasia izan arren. Indarra gaillendu zan. Bereala ankapean sartu nuen, eta negarrez zaintzaille geneukanarengana joan zan.

—Zer egin ditek, motell? —galdetu zion.

—*La Niña*'k jo egin nau.

—Eta ez dek lotsik ori esateko? Ederki egin dik. Ez dezute geiago jostaillutzat artuko.

Arek bazekien nola zerabilkiten, baiña bai egunen batean esnatuko zala ere. Andik aurrera, negarrez joan zanari esaten zioten lagunak *La Niña*. Beti-ko jarri nuen errespetoa.

Geldi-geldi urteak joan ziran. Markesak askata-sunean nerabilkiten. Udara aldeko oporretan egundoko txangoak egiten genituen. Etxeko oroitzak ere bazijoazen nere burutik. Ernioko semea markes biurtu zan. Berak semea deitzen zidaten, eta zergatik ez nik aita eta ama? Oso kontentu zeuden nerekin, nota onak ateratzen nituelako.

Uste gabekoren bat izan ezik, zearo galdua nengoen. Ez nituen egundo nere egitazko gurasoak billatuko. Noizbait azalduko nintzan itxaropenetan ba-zeuden ere, alperrik egongo ziran. Nere Ernio ondoko baserri ura ez nuen egundo ezagutuko. Len aitonarekin bezela, Ernio gaiñera ere ez nintzan igoko. Euskalerrria illa geratuko zan neretzat. Zenbat olako ote dabil mundu ontan? Saskigille baten semea markes egiña ta bere nortasuna galdua. Baiña uste gabeko ori etorri zan.

Kolejotik kolejiora dabiltzan gazte alper batzuk izaten dira, «aitatxoren semeak» deritzaioten oieta-koak. Badakite beren etorkizuna esku onetan dauka-tela. Orregatik, alperkeriari ematen diotenak dira.

Alako bat azaldu zan ara, lau edo bost lekutatik bialitako aberaskumea. Beti bazuen norbaitekin oka-sioa. Etzan alderatzekorik ere aundiena. Baiña bi edo iru urtez zaarragoa bai; ta, jakiña, burruka lane-tan ondo ikasia. Etzan oraindik aundienekin asi, eta oietako bat ni nintzan, paketsua, iñorekin sartzen ez nintzana. Zaarragoak, berriz, asko. Baiña, gaur bat eta biar bestea, banaka-banaka denak menderatu zi-tuen. Kolejioko oillarra geratu nai zuen.

Nerekin ere neurtu nai zituen, bada, alper arek bere indarrak. Txikiagoa izan arren, iru urte ta geia-goaz zaarragoa noski; eta adin ortan orrek zer esan nai duen denok dakigu. Begiz joa nengoen, aixxa mende-ratuko niñula. Itzetik ortzera ala eraso zidan:

–Kaixo, markes umea!

–Orixe dek benetan zalantzan daukadana.

–I omen aiz emengo oillarra.

–Iri entzuten dit lenengo. Emen nere aurka itze-gingo duenik ez dek. Erorrek artu nai al uke, bada, leku ori?

–Nik itzegingo dit, bada, iri. Lenago *La Niña* esaten omen ziteken.

–Bai. Egia diok. Baiña garai aiek joan itun. Ni ere atera niñun gurasoen gonapetik. Orain askatuago bizi nauk.

–Ik gurasorik bai al dek, ordea?

Lagunak igerri zioten an aari jokoa zetorrela, eta axaxaka bildu ziran.

–Aizak: zer esan nai uke orrekin? Ori iseka gaiztoa dek gero!

–Oiek ez dituk ire gurasoak.

Ikusten danez, arek bazekien zerbait.

–Onttoa bezela jaio ote nauk, bada, ni?

–Nik etzekit ori. Baiña i bezelako bati burutik beera kaka egiten ziot nik.

–Geiago azi bearko dek, nere belarrietaraiño ere ez aiz irixten ta.

–Bajatu egingo aut, ordea.

Nere nerbioak asi ziran daldaraka. Gero nere lagunak esan zidatenez, arpegiko koloreak ere asi omen zitzaizkidala aldatzen.

–Zer: aari jokorako asmoan al ator? Bada ez bada, obe dek ez asi.

–Oillotegian oillar bat bear diagu, eta emen ni izango nauk.

–Kontuz gero!... Emen geiago ere badituk amaren semeak.

–Orain utziek oiei pakean. Bere garaian arrapatuko dizkit. Orain irekin dizkit kontuak.

–Ondo zegok. Au izango dek ire azkeneko burruka. Ttonttor gorri ori nik moztuko dit.

Lurrean elastikoa uzten asi nintzanean, egundoko ostikoa tira zidan. Baiña ez niñun arrapatu.

–Erorrek ere igertzen al diok eskaxagoa aizela? Bestela, billaukeriz ez intzan asiko.

–Ori laxter ikusiko diagu.

Eta urrengo erasoan buruarekin indarrean sartu zitzaidan, urdaillean jotzeko asmoan. Baiña beraren-

tzat kalte. Ukabillarekin erdiz-erdi arpegian arrapatu nuen, eta atzeraka erori zan.

Gu burrukan somatu giñuztenean, inguratu giñuzten. Batzuk aren alde; gutxi. Geienak nere alde nituen.

–Bi oillar aundietakoak dituk auek.

Odola zeriola zutitu zan. Igerri zion, mutur joka, ni gazteagoa nintzala, baiña ondotoxoz luzeagoa eta galtzekoak eramango zituela; eta, uste gabea, *rau!*, eldu zidan, eta ni atzeraka erori nintzan. Baiña burrukan genbiltzan lekua aldapa antza zan; ta batean azpira, bestean gaiñera, bueltaká-bueltaka joan giñan, berdiña arrapatu arte. Ura ortan ikasia zegoen. Bat-batean zutitu ta, ni asi nintzanean, ukabilkada batekin arrapatu niñun arpegian, eta sudurretik odolletan jarri. Bion jantziak gorrituak zeuden bata bestearen odolarekin. Bestea motxagoa, ordea, ta geiegi urbildu zan. Nik eman nion orduan egundokoa muiñetako ortan, eta seko erori zan. Ondora joan ta ala esan nion:

–Burutik beera nork nori egingo zioke emen kaka? Baiña ni ez nauk olakoa. Uste dit gaurtik aurrera beste lagunei pakean utziko diekela.

Lagunak, besoa jaso ta «Joan Manuel txapel-dun!» oiu egin zuten.

Zutitu ta laxterka etxera joan zan, eta gizon bat lagun zuela etorri. Nere lagunak orduan zaintzaille geneukanari esan zioten zer gertatzen zan.

–Zer egin diozute mutil oni? Bi edo iruren artean jo omen dezute –oiu egin zuen mutillarekin zetorrenak.

–Ez da egia ori. Nik bakarrik jo det, eta berak ditu erru guziak. Begira ni ere nola geratu naizen.

Emen gurasotzat dauzkadan oiek ez omen dira ne-reak iseka eginta, sailleko oillar geratu nai duela esan ta eraso dit.

Mutillari, lotsatua, ziotenez aita omen zuela-ta, begiratu zorrotz bat egin ta esan zion:

–Gezurti naastaillea! Goazemak emendik etxera!

Etzan geiago kolejio artara etorri. Biali egingo zuten noski, eta pakea eman zuen, beti burrukan zebillen ta.

## SEME GALDUAREN ETORRERA

–Oiek ez dituk ire gurasoak –esan zidan ero arek.

–Auek ez badira nere gurasoak, non bizi dituk nere benetakoak? Illak ote dira ta ni umezurtz geratu, ta auek beren semetzat artu? Edo, beartsuak ziralako, diru truke saldu ote niñuten, orain berentzat naukaten auei? Besteak bezela etorriko niñun, bada, ni ere. Ez onttoak mendian bezela jaio ta basoan arkituta.

Buruaste gogorra nerabilkien. Asi nintzan iritzi auek ausnartzen, eta illunpeak argitzen asi ote zitzaizkidan iruditu zitzaidan. Naiz neretzat okerrago izan, dena ondo garbitu arte ez nintzan geratuko.

Markes batzuen seme bakarra nintzan, aien ondare guzien jabe egiteko itxaropenetan. Nik nere gurasotzat neuzkan. Maite ere berdin.

Zorionsuena bizi nintzan garaian, bada, Azpeitik joandako jesuita bati entzun nion Ernio izen ori. Gero, Azpeiti, Loiola, San Inazio, gure maisu batekin izketan ari zala. Beste izen oien berri ez nekien. Etzidaten ezer esaten.

Erniok bai, ordea. Baitu niñutenean bost urte

nituen, eta adin ortako oroitza asko gogoratzen zaizkigu. Neri ere bai, ori entzun nuenean: aitonak nola eramán niñun San Juan txikitan mendi ortara, eta arek nola egin zuen gurutz-bidea lenengo, ta gero uztai batzuetan bere burua sartu ta atera nola ibili zan. Nik ere, gutxiago ez izateagatik, orixe bera egin nuen.

Arek bere zeremoniak bukatu ondoren, arkaitz batean exeri ta egin genduen amaiketako. Gerritako miña kentzeagatik egin omen zuela ori dena, eta sinismen ori sartua zegoen errian. Nere aita zanak, berriz, miña azitzeko ere etzala oitura txarra zion.

—Orduan ni, orain bizi naizen lekuan baiño len, nonbait izana naiz. Non ote dago mendi ori? Eta nere benetako gurasoak ere ez al dira an biziko?

Zenbat eta geiago pentsatu, orduan ta gaztetako oroitza geiago zetozkidan: baserri xaarra, non baitu niñuten, dena buruan nerabilkien.

Naigabe ematen zidan pentsatzeak ere. Ain ondo nengoen, ain maitagarriak iruditzen zitzaizkidan, nik aita-ama deitzen nien, ondo nengoen markes batzuen seme... Etziran, ordea, nere gurasoak, lapur batzuen laguntzailleak baizik. Beren ona irixteagatik, etzuten aintzat artzen guraso batzuen negarra. Nola maite bear nituen aiek? Begitan artu baiño len, lenbailen aldegin nai nuen andik. Iruzurtuta nereengandik berezi ta berentzat artua neukaten. Eskertzen niela neregatik egin zutena, baiña besterik ez. Nere jaiote-txean ez bezelako eskola erakutsi zidaten. Ez nuen ametsik egiten. Joaten banintzan, agian nekepean eta beartsu bizi bearko nuela. Baiña nere maitasuna aiek merezi zuten.

Dena utzi ta iges egitea pentsatu nuen, erabaki

onekin mundu ontarako asko galduko nuela jakiña-gatik. Irakasle bati dena kontatu nion:

–Orain ondo oroitzen naiz. Auek ez dira nere gurasoak. Nereak nonbait emendik urruti bizi dira. Baituta ekarri niñuten, eta auei saldu; eta orain aietara joateko gogoia daukat.

–Ori seguru badakizu –erantzun zidan– edo ez ote da zure ametsen bat?

–Ez, jauna. Ni garbi-garbi oroitzen naiz, beste etxe batetik indarrean artuta ekarri niñutela, nere gurasoen gordean.

–Ori pekatu ikaragarria da. Benetan zigortuko lituzteke. Salatu egin bear al dituzu? Ori ere ez litzake ondo egongo.

–Ez olakorik. Nerekin ondo portatu dira. Ixilik utzi ta aldegingo det.

–Bidean arrapatu ta ekarriko zaituzte.

–Orren beldurrik ez daukat. Etzaie komeni ere. Beren buruak salatuko lituzteke. Nik dena irabaziko nuke, berriz; eta oiek, lapurren lagunak bezela, dena galduko luteke.

–Eta nongoa zera, bada, zu?

–Oraindik ez dakit ezertxo ere. Baiña bai ez dirala nere gurasoak. Urte batzuk etxean eduki niñuten, nereaztu ta beren izkuntza ikasi arte. Andik etorritako jesuita bati entzun nizkion Azpeitia, Loiola, San Inazio. Oiek, emen ikasita, badakit non dauden. Oien oroitzarik etzait etortzen. Baiña arek Ernio ere esan zuen. Izen ortaz bai oroitzen naizela. Mendi aundi bat da, eta badakit aitonarekin bein baiño geiagotan an izana naizela; ta nere sortetxea ere ez da andik urruti izango.

–Bai. Ni Loiolan ibilia naiz, eta andik alde Ernio



izeneko mendi arritsu bat bada. Emendik lekutan dago.

–Gaurko aurrerapenak bidea erreztuko didate.

–Eta karrera bukatuta joango baziña? Edo emen ezkondu ta gero ikertxo bat egin aieka aietara? Bestela, asko galduko dezu.

–Ori badakit. Baiña agian nere gurasoak ez dute beste semerik.

–Erabaki ori artu baiño len, obe dezu ondo pentsatu. Emen nai dezun bezela bizi zera, eta badakit an beartsu ta nekepean ibili bearko dezula. Ango baserriak arloteak dira, eta oso atzeratuak oraindik.

–Baiña nere gurasoak aiek dira, eta auek lapurrak.

–Bai. Seme batentzat lenengo bereak dira. Biotzak ori eskatzen badizu, egizu. Baiña ixilik. Ez auek galduta. Bestela ere, naiko naigabea emango diezu.

–Len ere esan dizut, iñor galtzeko asmorik ez daramadala nik.

Maisu arek etzuen nik ori egiterik nai. Bai-baizekien egundoko naigabea emango niela guraso ordekoiei, eta neretzat askoz okerragoa izango zala.

Maleta bat erosi nuen, eta nere bearrenezko trasteak an sartu; ta, etxeoak oartu baiño len, aldegin nuen andik.

Nik igesi egin nuela konturatu ziranean, gero ikasi nuenez, oso naigabetuak geratu omen ziran. Egitazko maitasuna artu baizidaten. Arrituta omen zeuden nola ikasi nuen ni aien semea ez nintzala. Baiña ixil-ixilik geratu ziran, galdezka asi ezkerro egia azalduko zan beldurrak.

Gero, Prantzian ikusi ta aiekin itzegin nuen arte,

bizi nintzanik ere etzekiten aiek. Ni an bizi nintzan lekua Euskalerrria zan, eta nere aita ordekoa euskaldun garbia. Baiña etzidan euskeraz itzegiten. Ez nekien, bada, bidean nai ta nai ez beartuko nintzan izkuntzarik, euskera alegia.

Ni oiñez etorri nintzan. Nerekin banekarren mapa txiki bat.

Ari begiratu ta erririk erri, batari ta besteari galdetuz, iritxi nintzan Endaiara, nere benetako arraixkua zegoen lekura. Ordura arte ez niñun iñork aintzakotz artu.

Baiña laterri batetik bestera igarotzerakoan eragozpenak izango nituela banekien. Muga zaindua edukiko baizuten.

Nondik eta nola igaro, ertzaiñak oartu gabe? Ez nuen oien eskuetan erori nai. Etzidaten noski neri ezer askorik egingo, baiña markesak galtzeko beldurrak nenbillen.

Bide luzean Endaiatik aurrera joan nintzan, ibai xixtrin bat billatu arte. An izoki arrantzan zebillen bati galdetu nion. Arek ezer gutxi zekien prantzesez. Baiña nola edo ala ulertu zidan zer nai nuen.

–Ibai txar au igarotzen badek, beste aberrian ago. Españan alegia. Emengo ertzaiñei iges egingo diek. Baiña an arrapatuko aute besteak, eta auek baiño goxogoak ez dituk izango –erantzun zidan.

Ia oiñik busti gabe igaro nintzan; eta, nere zorionerako, beste aldean ez nuen iñor ikusi. Andik aurrera, oien beldurrik gabe joan ninteken.

Baiña aspertua, asko ibilia, nekatua eta goseak. Oraindik, berriz, mapak erakusten zidanez, urruti nere elburua; eta bideak gaiztoak gaiñera. Etxetik baneraman zerbait jateko.

Atsedean pixar bat artu ta irentsi nuen ura, eta aurrera berriro. Baiña arratsa etorri zitzaidan, eta bideko taberna txiki batean sartu nintzan. Ez niñuten artu nai, ordea, ango diruak etzuela emen balio ta.

Nora jo ez nekiela geratu nintzan orduan. Izketan alkar ezin ulertu. Keiñuka, an geratu nai nuela adierazten nien. Artan ari giñala, sartu zan gazte bat, nere iritzirako kontrabandista. Ostalaria euskeraz eta ni prantzesez ari giñala nabaitu giñun. Zeren billa nenbillen galdetu zidan.

–Emen geratu nai nuke ostatuz. Baiña nere diruak ez omen dik balio.

–Ez apuratu. Nik trukaturako diat emangoarekin.

Irabazian geraturako zan. Nik zertarako nuen? Berdin emen gelditzeko asmoan nentorren.

–Ernio emendik urruti al dago? –galdetu nion.

–Ez. Goizean atera ta illuntzerako an aiz. Ni ere alde artara niek: Aiako errira. Goizean erakutsiko dit non dagoen mendi ori. Ta, nai badek, elkarrekin joango gaituk ia bertaraiño.

–Orduan araiño lagunduko didak?

–Bai, gizona, bai; ta etxeraiño ere. Oraintxe amar bat urte aur bat galdu uan andik, ezeren aztarrenik utzi gabe. Nik bazekit etxe ori non dagoen.

–Orain amar urte baitutako ume ori ni nauk. Aინbeste denbora besteren seme bezela igarota, nere sortetxera natorrek.

–Eta nongoa aizela uste dek?

–Maisuak esan zidanez, Azpeitikoa.

–Eta nola oroitu aiz emengoa aizela?

–Gure maisu bati Ernio esaten entzun nionean,

orduan gogoratu zitzaidaken aitonarekin gain aietan ibilia nintzala.

Goizean goiz aterata, iritxi giñan, bide zakar batzuetan barrena, Ernio bistan zegoen leku batera, eta andik erakutsi zidan mendi ori non zegoen.

–Mendi arritsu ori dek Ernio. Baiña gaiñeraiño etzeukak bide kaskar batzuk besterik. Arkaitza ta arkaitza.

–Ez dit bearrik ere. Ez bainaiz mendi gaiñeraiño igoko, eta milla esker.

–Oso interesgarria dek ik dakarken asmoa, eta etxeraiño lagunduko dit. Azpeitiarra aizen ezker, ia etzeukat bide galtzerik.

Bidean bein ta berriz begiratzen nuen inguru guzira, eta leku zoragarria iruditzen zitzaidan, edozein lekutan baserri txuriak ageri zirala. Larretan ere, ez ardiak bakarrik, baita beiak ere, mutil koxkorren batek zaintzen zituela.

–Olaxe ibiliko niñun ni ere garai batean, eta baserri oietakoren bat izango dek nere sortetxea –esaten nuen nere baitan.

Lagunak erakutsiz, txuxenean joan giñan etxera:

–Ikusten al dek aldapa ura, eta goian nola ageri dan baserri txuri bat?

–Artaldea dabillen ura?

–Uraxe. Ortik ebatsi ziteken ia sei urteko gazetxoa, Geroztik etzekitek illa dan edo bizi dan. Joan Mañuel zin ainbeste aldiz aipatutako aurrak izena. Izan intzanik onezkero aztua edukiko ditek, bai.

–Ni nauk, bada, mutil ori. Joan Mañuel deitzen zidatek gaiñera.

–Ikusten al dek arian gizon bat?

–Iturrekorik gabe ari dan ura?

–Bai. Orretxen semea uan.

–Orduan ori dek nere aita. Baiña etzaiogun lanik galerazi. Etxera joatean itzegingo dit orrekin. I ere presaka ibiliko aiz?

–Etzeukat estuasun aundirik, baiña obe diagu txuxenean etxera joan.

Atean jo orduko, amabi bat urteko neska atera zitzaigun. Arreba izango nuela pentsatu nuen nik. Gizarajo onek, nekien izkuntza bakarrean egun onak opa izan nizkion. Baiña arrebak etzidan ulertu, eta amarengana joan zan, gu biok atean utzita. Aiarrak par egiten zuen.

–Ama, atarian daude bi mutil. Baiña nik ez diet ulertzen ezer ere.

–Kastillanoren batzuk izango ditun.

Orduan aiarrak ala eskatu zidan:

–Utzidak lasai itzegiten neri.

Amak, al zituen bezela, egin zituen itz batzuk erderaz, baiña aiarrak euskeraz erantzun zion: pazientzi pixar bat artzeko, eta azalduko ziola berarekin zetorren mutil arek zer nai zuen.

–Prantzitik dator. Beraz, gure izkuntzarik ez daki. Joan Manuel omen du izena. Orain amar bat urte emen baitu zutela; beste batzuen seme bezela bizi izan dala; baiña bera emengoa dala.

–Ai, orixe egia balitz!

–Ez al diozu arrebaren antzik artzen?

–Bai, ta ez txikia. Baiña orrek ezer gutxi esan nai du.

–Ernio izen ori entzun zuenean, oroitu omen zan

nola aitonarekin joan zan bein ara San Juan txikietan.

–Arrigarria da orratik ori.

–Ni aiarra naiz, ta presaka xamar aurra galdu zan baserrira lagunduko diodala esan diot, eta orain zuek konponduko zerate noski.

–Bai, ta eskerrik asko. Izkuntza asko dakizkien aiton bat bizi da goiko etxe ortan, eta ura deituko degu. Ai, gure semea balitz!

–Emendik egun batzuetara azalduko naiz, ea zertan bukatzen dan arazo au –esan eta bere bidean joan zan.

–Joan adin goiko maixu xaar orrengana, ta esaion zer gertatzen zaigun: prantzes bat etorri dala, ta ezin diogula ulertu –agindu zion amak alabari.

Bitarte ortan, amak eskuarekin keiñu egiñez ea zerbait jan nai nuen; eta barrura, sukaldera, sar erazi niñun.

Ama jana jartzen ari zala, ni sukaldeko txoko guzietara begira. Bai; ezagutzen nuen ura. Sukaldeko traste guziak itzegiten zidaten. Su ondoan taloak zeuzkan erre ta goxatzen jarriak. Bai beartsu bizi zirala an, eta atzeratuak. Alare, zoragarria nerizkion baserri aietako bizimodua.

Arrautz bat atera zidan, urdai azpiko bi xerrekin; taloa ta edateko sagardoa. Ori dena oroitzen zitzaidan. Orduko martxa zegoen oraindik etxean.

Ordurako amak zerbaiten antza artu ote zidan iruditzen zitzaidan. Par irudiz begiratzen baizidan.

–Etxeraiño lagundu dion aiarrak ez ote dauka gero arrazoi? Ala bada, erotu eraziko gaitu.

Maisuak, etorri ta ain dotore jantzia ikusi niñu-

nean, igesi zebillen gazteren bat ote nintzan iruditu zitzaion, baiña sendi aberatsen bateko semea. Lenengo, kastellanoz, gazteleraz alegia, galdetu zidan. Baiña neretzat griego zan ura. Urrengo, prantzesez. Nik garbi-garbi erantzun nion.

Egiteko bereziren bat ote nekarren baserri artara zan lenengo galdera.

–Ez. Orain amar urte lapurtu niñuten, amak aitarengana bialita. Ni, beraz, nere sortetxera nator. Ori da nere ama, ta au nere arreba.

Nere erantzuna euskeratu zion amari, eta onek:

–Illa danik ez dakigu. Bestela, nola daki emengo aurra zala lapurtu zutena? Onek orain esan bezela gertatu baizan. Ez genduen billatu aztarrenik ere. Amar urte joan dira ori zala. Nere alaba onen antza artzen diot. Ezin liteke onek diona gezurra izan. Joan Mañuel zuen semeak izena, eta deitura orrekin azaldu zaigu. Baiña ez ote litzake ori poz geiegia?

–Amaika olako gertatzen da munduak zear.

–Ura bada, nik seguru ezagutuko det, bada. Arek besarpean orin aundi bat zeukan, ille moltso batekin.

–Amar seguru ezagutu omen ziñuzke bere semea zeran edo ez. Orin aundi bat besapean bai omen dezu.

–Bai; badet –eta erakutsi nien.

–Ez dago zalantzarik! Nere seme Joan Mañuel da au!

Zoraturik besarkatu niñun amak. Nere arreba-txoak ere bai.

–Ongi etorria sortu ziñan etxera! Nola billatu dezu?

Nik, asi ta buka, dena kontatu nien:

–Ernio izen ori entzun nuenean, oroitu zitzaidan aitonak bein nola eraman niñun ara. Orduan nereki-ko ala nion: nengoen lekura etorri baiño len, nonbait bizi izan nintzala ni. Poliki dena garbitu arte ez nintzan geratuko. Oso ondo nengoen ni an. Aurrik gabeko markes batzuek beren semetzat artua neukaten. Baiña aiek etziran nere gurasoak, lapurrei lagundu zieten batzuk baizik.

–Ez dituzu aiek galdu naiko noski? –galdetu zidan maisuak.

–Ez olakorik. Nerekin ondo portatu dira. Naigabe artu nuen, aien semea ez nintzala ikasi nuenean. Ondo bizi nintzan. Etorkizun bikaiña gaiñera.

–Eta zertarako iges egin dezu orduan?

–Nere egitazko gurasoekin bizitzeagatik.

Maisua, bere egitekoa bukatu zuenean, joan zan aitaren egiñez. Ainbeste ixillu erabiltzen zituen berak ere eskol umeekin.

–Abisaion aitari semea etorri dala.

Laixterka joan ta zorientsu:

–Aita, nere anaia etorri da!

–Zure anaia? Orduan nere semea.

–Bai, aita. Aspaldian palta zana. Joan Mañuel omen du izena.

–Ortara azaldu al da maisua?

–Bai. Anaiak euskeraz ez daki ta.

–Ez ote litzake ori guretzat poz geiegia?

Txuxenean jetxi ta amari galdetu zion:

–Galdutako semea azaldu omen zaigu.

–Bai, Antonio. Egia da, ta poztu gaitezen. Ori da lapurtu ziguten semea.



–Seguru badakizu?

–Bai, gizona, bai. Besarpean bazuen orin aundi bat oso nabarmena. Onek ere arek zeukan lekuan bertan dauka. Nor izan liteke besterik? Eta ez al diozu alabaren antz pixar bat artzen ere?

–Bai. Badu zerbait. Bejondeikela, motell! Ongi etorria, Joan Mañuel! –esan zidan eskua eman ez, atsegiñez, aitak.

Ondoren berriz amari:

–Eta non bizi da?

–Ori ez dakit. Baiña andik iges egin du, eta emen geratzeko asmoan dator.

–Emen asten bada, esku txuri oiek laxter babatuko zaizkio.

–Gazte bikaiña dago. Zaarrena ez da onen belarriño irixten.

–Ez daki euskerarik?

–Prantzes utsa. Baiña laxter ikasiko du. Ez baidu besterik entzungo. Zaarrena ere mutil bikaiña zetorren, baiña gaitz gaizto arek ondatu zuen.

Beste anai ta iru arreba banituen. Aiek ere entzuna zeukaten anai bat bazutela galdua. Nere etorrerarekin denak poztu ziran. Anai zaarrena ez, ordea.

–Zuei au ipuia dala irudituko zaizute –esan zigun saskigilleak–. Baiña egi biribilla da au. Ni amar urtean markes batzuek beren semetzat eduki niñuten. Gero, beartsuenetako bat bezela, etxez-etxe saskigille ibilia, eta Gipuzkoako azkenekoa, bizimodu au uzteko asmoan.

–Eta ori dena zuri gertatu al zitzaizun?

–Bai; dena. Nere bizitzaren lenengo zatia.

–Izango da, Tolosako zubia bezela, zuk asmatutako ipuiren bat.

–Esan dizutedan guzia, egia da. Neri gertatua.

## MAIORAZKOA

Nere anai-arrebekin, batzuk oraindik ia umeak baiziran, bereala jarri nintzan euskeraz ulertzen nuela. Geixego kosta zitzaidan itzegiten. Bigarren urterako ederki banekien izketan. Markesaren semeak baserritar sinple baten antzak eta oiturak bereala artu zituen. Lan guzietan aitari laguntzen nion. Oso kontentu nengoen ni nere bizimodu berrian, eta gurasoak zer esanik ez. Bein euskera menderatu nuenan, laxter ikasi nuen inguru aietako berri: non baitu niñuten, ta ezkutuan edukitako txabola ere bai. Mendizalea nintzan. Erniora ere egin nituen txango bat baiño geiago. Saskigiñean ere ikasi nuen. Oso bat egiña nengoen guraso ta arrebekin.

Baiña anai zaarrak, etorri nintzala jakin zuen orduko, begitan artu niñun. Arek etzidan bein ere ondo itzezin, eta etxe artan lenengo asarrealdi edo eztabaida arekin eduki nuen. Ni baiño ia iru urtez zaarragoa zan. Arreba genduen tartekoa. Osasun ona zeukan, baiña gorputz aulekoa.

Gurasoak, berriz, egundokoak. Arrebak ere berdin, baserri aietako geienak bezela. Alde aundia ge-

neukan, bada, bi anaiak. Belarriraiño etzitzaidan irixten. Orregatik ere, ezin ikusi edo inbiri pixar bat ere bai ote zidan...

Alperra zan eta maltzurra. Aitari ez laguntzeagatik, beste edozer aitzaki asmatuko zuen. Orrekin eduki nuen, bada, lenengo eztabaida. Bein, artaldearekin etxera nentorrela, bidera erten zitzaidan kargu artzera. Igerri nion asarre xamar zetorrela. Len ere beti itz gutxi baiña ziri txorrotzekoak egiten baizizkidan. Ezeren agurrik egin gabe:

–Etxe ontan bapo abil i!

–Bai, motell. Ez dek gezurrik esaten. Oso gogozko lana dek neretzat baserrikoa. «Gustoko aldapan nekerik ez» ziotek. Neretzat ala dek beiñepein.

–Eta i zer asmotan abil emen?

–Oraingoz, beiñepein, gurasoei lagundu. Ez nebi-llek beste ezeren atzetik. Galdera xelebrea benetan. Ez al nauk emen jaioa? Zer esan nai uke orrekin?

–Etxe au betea dagoela alegia.

–Ez dik itxurarik, aita gizarajoa lan guzietarako bakarrik geratzen dek eta. Baiña nik botako auten beldurrik ez eduki.

–Etzekit, bada, laiñeza ez ote dekan artu. Aitak ere neri baiño obeto ez diken begiratzen iri. Beti badik iretzat zerbait esan bearra.

–Ire errua dek ori oso-osorik. Ez nerea. Arek garbi ikusten dik lanerako gogoa nork daukan eta nork laguntzen dion. Eta, jakiña, agindua betetzen duenari laguntza eskatzen ziok. I, berriz, aitzaki-maitzaki lanetik iges abil beti. Ni etxe ontara, ik dioken bezela, ez nauk iñor botatzera etorri. Nere gurasoei laguntzera bai, beartua negok eta.

–Ik ez dek emen lanik egin.

–Ezta jan ere.

–I orduan etxe onen atzetik abil?

–Len ere esan dit ezetz. Alperrikako kezketan buru austen ez adi ibili. Neretzat gurasoak dituk lenengo. Etxean ez baneuka lanik, beste nonbait asiko niñuke. Amaika baserri bazeudek inguru auetan, eta geienak au baiño obeak. Ez adilla, bada, kezketan bizi.

–Etzekit, bada, aitaren eder egiten ez ote aizen ari.

–Ik ateratzen dizkidak eltzetik babak. Aitaren eder egiten saiatzea pekatu ote da? Zergatik ik ere beste ainbeste ez dek egiten? Zer uste dek: ik bezela lan guzietan bakarrik utziko detala? Orixe baiño obeto ezi niotek. Orrek kezketan jartzen baau, or konpon. Nik nerean jardungo dit; edo, bestela, aldegin. Ik zer esango didakenari begira ez nauk egongo.

Txarrean asteko asmoan etorri ote zan, edo ni izutu ta atzera erazteagatik ote zebillen antzeman nion; edo beldurtu egin zala, zaarragoa izanagatik eskaxagoa ote zan. Ia burua eramaten bainion. Ixilik bere bidean joan zan, amorruz esanez:

–I etorri aizen ezkerro, aitag erabat utzi natxiok.

–Eta ik ez al dek lenengo bera utzi?

Gu biok bakarrak ari giñan eztabaidan. Gure us-tez, ez genduen beste iñork entzungo zigunik pentsatzen. Baiña aitag gure elkar izketa guzia aditu zuen. Bazkal orduan, bioi begiraturuz, ala esan zigun:

–Zer zenuten olako lekutan? Ia mutur-joka aste-raiño berotu zerate.

Ni ixilik geratu nintzan. Ez nuen anaia salatu nai. Ura beti aitaren aldamenen bizi izan zana, eta seme-

rik zaarrena zan aldetik, bera zegoen etxeko maiorazkotzat. Alare, ez bazuen nai, edo ez balio, aitak eskubide osoa zeukan beste bat aukeratzeko.

–Zuen elkar izketa guzia entzun dit, eta Joan Mañuelek zeukak arrazoi.

–Orren alde aterako ziñala banekien, aita.

–Itz oiekin zer adierazi nai uke?

–Esan detana besterik ez. Ori etorri ezkerro, etxe ontan ni ez naiz iñor.

–Oiek ire susmo txar batzuk besterik ez dituk. Ezin ikusiak sortuak noski. I ez au iñork atzera utzi. Orren alde ateratzen naizela? Arrazoi osoarekin. Ik anaiari zergatik galerazi bear diok neri laguntzen? Alperkeriari eman ta guk begitan artzeagatik? Seme-alaba guziak maite dizkit. Baiña onenari egiten zaizkiok losintxak. Au etorri ezkerro, nere nekeak asko arindu dituk. Ortaz erorri ere oartuko aiz noski. Ik ez bezelako sentimentuak zeuzkak.

–Ori, ni emendik bialtzeko aitzeki bat besterik ez da.

–Ori bai arrazoi kaxkarra dala, Permin. Etxe baldar ontan bizitzea nai badek, iretzako zegok. I aiz maiorazkoa, anaiak an ederki esan diken bezela. Baiña bizimodua ateratzezkerroz, eltzen al diok lanari gogotsuago.

–Orrek ez badu nai, nik eutsiko diot. Baiña ori da lenengo. Ez noa kontra egitera. Baiña ni ez naiz besteren seme-alabak azitzen geratuko etxean.

–Iñork argi ta garbi itzegin badu, ik egin dek orain. Zer erantzuten diok orri? –galdetu zion aitak zaarrenari.

–Nik ez daukat auntzak bezela aldapa auetan bizitzeko gogorik –erantzun zion.

—Orduan, zer abil au bial erazi nairik, gero erorek aldegitoko? Gurasoak bakarrik utzi ta lertu erazi nai al gaituk?

—Biali egiten al nauzute?

—Nork esan dik ori? Oso gaizki ari aiz izketan, eta okerrago epaitzen dituk ire gurasoak. Emen ez gaituk ez baten ta ez bestearen aurka. Nai badek, i aiz lenengo. Aspertu gaituk beti gauza bera esaten. Baiña, ik dioken bezela, ez badek nai, norbait bear diagu. Au geratuko dek, baiña bera bakarrik, nagusi ta jabe. Zer uste dek: ik emendik aldegiñagatik iretzat geratuko dala etxe au, eta anaia ire maizter biziko dala? Ez uste oiekin ibili, Permin.

—Laxter ogei urte ditut, eta dena utzi ta Ameriketara noa.

—Ederki zegok. Ez genikek emendik inork urruntzetik nai. Len galdutakoak ere naiko lanak eman zizkiguk. Baiña erorren gogoala dan ezkerok, ere buruaren jabe aiz. Ez diagu eragozpenik jarriko. Baiña laxter guda datorren otsa zebilek, eta ixilik joan bearko dek. Bestela, ez ditek utziko. Orko txangoa ordaintzeko aiña beiñepein emango diagu. Beste zerbait geiago ere bai.

Ala, kontrabandoan joan zan, ainbeste euskaldun galdu dan Amerika engaiñagarri ortara, eta ni geratu nintzan maiorazko. Gezurra badirudi ere, emengo aldapa zakar auker betetzen zidaten biotza.

Bei, ardi, txondor ta saski artean pozik bizi izan naiz. Ofizina batean orduak ezin igarorik baiño naia-go nuen lanpean bizi, denetara ezin iritxirik. Saskiginiñera joaten nintzanean lasaitzen nintzan. An ez neukan presaka aritzerik. «Jainkoak ez niñun nonbait markesetarako egin» amaika aldiz esana.

Gurasoak naigabetu ziran, zaarrenak Ameriketara

ra aldegin zuelako. Bai-baizekiten, emengo antzera,  
an ere. etzuela ezer egingo. Bestera, berriz, poztu  
ziran, ura etxean geratzen bazan, baserria gainbeera  
joango zan beldurrak.



## SASKIGILLE

Arritzekoa ez bada ere, askok lan zaillari iges egin ta errezaren billa dijoaz. Orregatik, gaurko egunean, baserri asko ustiak ikusten ditugu. Gure gurasoak astoak omen ziran —ori askori entzun diet—, mendi malkar oietan etxeak jaso ta an bizitzeko. Arrazoi pixar bat baliteke edukitzea. Baiña orduan gure karrketan etzegoen lanik. Nai ta nai ezkoa zeukaten, bada, beste lurretara aldegin edo baserri kaxkar oietara joan bizitzera. Baiña nork ukatuko die, gaur ez bezelako fameliak azi zituztela? Nai duenak ikusi, or daude eredu bezela. Malkar oietan, nekearen nekez, beti beartsu, kutizi askori uko eginta, aiek ziran langilleak eta kristau zintzoak. Gaur, olakoak utzi ta iges gabiltza. Guri bizi nai degu, ume bat edo birekin. «Nik zergatik kendu bear diot nere buruari ezer? Ni naiz lenengo». Ori da gaurko dotriña. Baiña Joan Mañuelek etzuen orrela pentsatzen. Utzi zaio-gun berari izketan.

—Markes batzuek beren semetzat artu niñuten. Etorkizun bikaiña neretzat mundu ontarako. Alare, gurasoen bizibidea artu nuen. Baserri ta malkar oiek

neretzat geratu ziranean, kontentu zan markesaren semea.

Nik, baserriari eusteko asmoan artu nuen, bada, oiñordekotza. Osasuna izan eta lana egin ezkeru, ez neukan ezin bizirik. Kale gorria etzan neretzat egiña. Baituta eduki niñuten urte aiek neduzkan gogoan. Gogotsu eldu nion, bada, aitaren bizimoduari. Nere gaztetako urte guri aiek aztu zitzaizkidan. Arpegia eguzki ta mendiko aizeak beztu zidaten. Asi berrian eskuak babez beteak eduki banituen ere, sendatu ta gogortu zitzaizkidan. Baserriko lan zailletan oitu nintzan. Nere zalantzak erabili banituen ere, baserri aietako edozeiñek bezela ikasi nuen euskeraz. Aldaketa ikaragarria egin nuela, ta denbora gutxian, ezin ukatu. Len kolejioan ibilitako iñork ez niñun ezagutuko orain. Gorputza ere zaildu ta sendotu zitzaidan.

—Ona emen markesaren semea —esaten nion askotan aitari.

—Obe uan an geratu baintzan —erantzungo zidan arek—. Ez intzan, emen bezela, irristaka ibiliko aldapa auetan. Ez olako izerdi usairik eduki ere. Ori dena, juxtu-juxtu bizitzeko. Milloi batetik batek ez likek egingo ik egin dekana. Astakeria ezin esango diagu. Baiña ere buruari bakarrik begiratu ezkeru, batere nekerik gabe bizi bear uana intzan. Aurrerago begiratzen uan ik, ordea. Ez diek ire gurasoei nolanaiko atsegiña eman.

Jainkoak bakoitzari, norako daukan, alako egokierak ematen omen dizkio. Neri nekazaritzarako eman zizkidan; ez markes izateko. «Ero galanta» esango du norbaitek. Baiña bakoitzak gogozkoena zaion lantegia aukeratu bear luke. Nik ori egin nuen, eta etzait bein ere damutu. Gurasoak, berriz, konten ikusten nituen: aldaketarekin dena irabazi zutela. Ez

baizan bestea egundo aitari laguntzera joaten. Era-  
man erazten bazuen ere, errenkuraka. Izerditzen asi  
orduko, itzalera; eta aitak, aula zalako-edo, ezin  
geiegi beartu. Etzan ori nere joera. Txondorrak jaso-  
tzerakoan izerditzea zer zan bagenekien aita-semeak.

Ez nintzan etxean bakarrik ezaguna. Gizartea ere  
oso gogozkoa nuen. Inguru artako baserritarrik geie-  
nak, nere adiñekoak beiñepein, lagunak nituen. «Se-  
me galdua» esaten zidaten batzuek. Besteak, «mar-  
keskumea». Ajola gutxi neri. Auzoko jendearekin  
banituen, bada, artu-emanak. Amaikari lagundu  
nion. Zenbat eztanda gaizto egiñak Ernio eta bere  
inguruko mendietan!

Len esan dizutedanez, bi eziera izan nituen: bat  
markesetarako, lasaitasunerako alegia; bestea, neka-  
zaritzarako. Eta zailenarekin geratu nintzan.

Bi urtetarako, bada, beti nekazaritzan aritutako  
bat bezela jarria nengoan, eta aitak bezelaxe ikasi  
nuen saskigintzan.

—Gaur etzegok ezertarako girorik. Saskigintzan  
erakutsiko dit. Nork zekik aurki nere ordez ez ote  
dekan joan bearko? —esango zidan aitak.

—Nik pozik —erantzungo nion—. Jakiteak ez omen  
du lekurik betetzen. Agian beartu ninteke ortaz ere.

Beste itzik trukatu gabe, txintxo an izango nin-  
tzan. Aita maisu ta semea ikasle. Zumitzak nola  
egin, saskiari neurria nola artu... Etzeukan beste  
munduko ezkuturik. Ari egin bear, artara jartzeko.  
Askotan onela esaten zidan:

—Ikasle ona atera aiz. Dagoeneko, saskiak nik  
baiño obeto egiten dituk. Ondorengo ona utziko dit  
noski.

–Ikasleak ere bere meritu pixarra izango du. Baiña ez al da geiena maisuarena izango? –erantzuten nion.

Nere bei, ardi ta txondor, jarri nintzan, bada, arrunt bizimodu berrira.

Urte batzuk joan ziran. Goibel somatzen nuen beti aita. Triste ta urduri etortzen zala saskigintzatik. Zer ote zuen? Gaixo ote zegoen? Amari galdetu nion. Arek ere antzeman ziola. Baiña etzan galdetzerara ausartzen. Agian kezka txarren batzuk izango zituela.

Alare, bion arte txondor galantak jasotzen genituen. Alako bat egin ta izerdi patsetan merienda lege bat artzen ari giñala, apal-apal aitak aitortu zion semeari zergatik zebillen goibel:

–Saskigintzarako bai al daukak gogorik? Irabazten dekana ire patrikarako.

–Zuk agintzen badidazu, berdin-berdin joango naiz ortara ere.

–Eta ez intzake lotsatuko?

–Alperkerian bai. Baiña lanera joan ta lotsatu? Joan Mañuel ez da olakoa. Urteak ere badijoaz. Andregaia billatzeko ere lantegi egokia.

–Orixe dek, bada, aspaldi ontan nere buruastea. Atsegiña zaidak lan ori, baiña garbi aitortuko dit: ez dit balio.

–Arian-arian lanean aztu ote zaizu?

–Ez dek ori. Jenio kaxkarra zeukat. Zaartzera ta okerragoa gaiñera. Ez asarrebera naizelako. Irekin konfiantza osoa zeukat, jakin dezaken ire aitaren berri.

–Eskerrik asko. Esan nai dezuna. Nere kolkoan itoko da.

Orduan aitak apal-apal ala esan zidan:

–Aspaldi ontan lantegia galtzen ari nauk. Berri-txuegia izaki. Txurrut pixka bat egin ezkerro, etzeu-kak galgarik nere mingaiñak. Askotan, zer atera era-ziko, beraizik edan erazten aritzen dituk. Baserri batzuetan ikusi ta entzuna besteetan kontatzen dit; eta ori nere lantegirako pekatu-rik gaiztoenetakoa dek. Bereala zabaltzen baida auzoetan. Len deitzen zidaten etxe askotatik bota niotek, eta aurki etxean geratu bearko. Ondo nagoenean ixiltzen nauk; ez dit olako oiturarik. Baiña bein neurritik atera ezkerro, nere ezkutu guziak atera eraziko lizkidatekek. Nere borondatea baiño gogorragoa dek espirtua; edana alegia.

–Olakorik ez nekien, aita. Baiña eskerrik asko esan didazulako. Orain badakit zergatik zauden triste.

–Triste nabillela antzemateko moduan?

–Bai, orixe. Amari ere galdetu nion. Oartu zala esan zidan; baiña etzekiela zergatik, eta galdetzera etzala ausartzen.

–Beste oitura kaxkar bat ere badit: ni beltzetako amorratua nauk; txurien iritzikoak diran fameli askotan eztabaida gogorrak izaten dizkit, eta etxe oieta-koak etzidatek deitzen.

–Nor dira txuriak eta beltzak?

–Karlistak eta liberalak.

–Bai. Badaukat zerbait entzuna; emengo jendea ortan oso berezia dagoela ere.

–Ni, esan ditanez, liberaletakoa nauk. Auek dituk beltzak. Beste aldekoak, berriz, txuriak.

–Aizu: geronekoan izketaldi luze bat egin nuen maisuarekin, prantzesa ez bainuke aztutzen utzi nai, eta arek ala esan zidan: «Egundo aztuko ez dan txu-

rien eta beltzen alperrikako seta ori asi dek berriro azitzen. Gudazaleak ari dituk zabalkundea egiten». Nik ez bainuen an olakorik entzuten, «Nor dira oiek?» galdetu nion. Zuk kontatu didazun ori bera esan zidan arek ere.

–Gaur, seme, erria dagoen bezela, arraixku txarreko arazoa dek au neretzat. Naiago dit dena utzi ta etxera bildu. Erruzko irabazirik etzeturrek ortik. Baiña kastuaren izpirik ez duena; eta negu aldean, beste lanik ez dagoenean, ez dek gaizki etortzen. Ik artu nai badek, diru pixar bat garbia, ondo irabazia, aterako uke ire patrikarako.

–Zure eskaria neretzat agindu bat da. Utzi nere esku. Joango naiz. Egunen batean norbaitek esango du markesaren semea etxez-etxe saskigiñean ibili zaila.

## SASKIGINTZARA

Aitak esan bezela, joan nintzan deitu zuten leku batera. Egun gogoangarria izan zan ura neretzat. Ia berrogei ta amar urte auetan amaika aldiz sartu naiz Gipuzkoako ta Bizkaiko baserrietan. Aita deitu zuen nagusiak, ikusi niñuneko, ala esan zidan:

–Aita ez datorrela ta abisatzera al ator?

–Ez; ez da orren lotsatia. Ori erabaki balu, bera etorriko zan, lagun xaarrekin itzegitea atsegin izaten zaio ta.

–Orduan laxter etortzekotan geratuko uan, dena preparatua zeukat eta.

–Aitak ez dauka zertan etorririk, bere ordez ni biali nau ta.

–Alajainkia! Ik bai al dakik saskigintzan?

–Ez nintzan bestela ausartuko. Euskalerrian dan onenaren inbiririk ez daukat, nere buruagatik ortara itzegitea arrokeri bat besterik ez bada ere. Lanak bukatzean, zerorrek epaituko dezu ondoena.

–Utzi egin zioken orduan saskigintzari?

–Orixe da egia. Berak dionez, etxeko gora-bee-

rak obeto zainduko dituela, eta emen bueltaka ibiltzea etzaiola komeni. Neretzat lan geiegia dala iruditzen bazaio, tarteka ateraldiren batzuk egingo dituela noski. Neri ori esan dit.

–Oiek denak aitzekiak dituk, gazte. Jakiña etzaiola komeni. Baserritarren eskariak bakandu egin zaizkiok, ingurukoak beiñepein, eta urrutikoak ere bai noski. Laxter geratuko uan batere gabe. Azkeneko aleak urritzen ari zaizkiok.

–Dana dala, ni emen nauzu.

–Eta esan al dik zergatik?

–Nai badet beiñepein, onera etortzeko. Saskiak egiteko deia emendik artu duela. Eta ori da nik dakidana. Zuk zerbait badakizu, esan.

–Bai. Txurrut pixka bat egiten duenean, berri-txuegia jartzen dek. Bere lantokietan entzun ta ikusten duena, auzoetan kontatzen dik. Orduan aren mingaiñak etzeukak galgarik. Politika zikin ortan ere beroegia dek ura.

–Bere auleria nolakoa dan ezagututa, beraizik ariko zerate dakizkienak eta ez dakizkienak atera arazi arte; ta ortan ura baiño zuek okerragoak zerate. Arek askotan ez du jakingo gaizki egiten duenik ere. Agian orregatik deituko zenduten. Etxean patxar-soa da beiñepein.

–Ez, Joan Mañuel. Ire aita ez dek orren iñoxentea.

–Nagusi jauna, ez naiz aitaren pekatuak ikastera etorri, saskiak egitera baizik. Nai dezu ala ez?

–Bai, motell. Naiko ez dit, bada? Ortarako deitu zaituztet. Lengoak txeeu zaizkidak. Eta ain ona aizela ta nola galerazi?

–Ori da arrazoa. Ni saskigiñera bainator. Ez aitarren tatxak jakitera. Utziogun ari pakean. Bere griña



on ta txarrekin, nere aita da ura; ta nik, dan bezelakoa onartu ta maitatzen det.

–Gazte prestua augu. Uste dit ez dekala deiaren paltarik izango –erantzun zidan–. Ez nauzu ondo eza gutzen. Ez naiz zuk uste bezin txorrotxa.

–Nere berri dakitenak ez dute ori esango. Baiña bai bizia eman zidaten gurasoak maite ditudala. Ez diozu iñori entzungo besterengatik gaizki esaka jardun naizenik, eta batez ere ni konfiantzaz artzen nauten etxekoengatik.

Nere erantzun au entzundakoan, sukaldetik laxterka atera zan emezortziren bat urteko neskatxa lirain bat.

–Bejondeizula, Joan Mañuel. Ori da gizona izatea. Seme jator batek ez du egundo bere gurasoengatik gaizki esaka jardun bear. Ez besteei utzi ere –esan ta sukaldera bere lanetara joan zan.

Biok zer esan ez genekiela geratu giñan. Batez ere, aita.

–Ori dek alaba txatxu orren ateraldia!

–Ateraldi mazala da orrena –erantzun nion–. Olako alabak daukazula ere zuretzat arrotzekoa da. Ez du orrek zuregatik gaizkirik itzegingo, ez.

–Or zegok; nai badek, iretzat.

–Beartsu bizi dan markesaren semearekin nork bizi naiko du?

Itz auek etzioten aitari onik egin. Serio ta kezketan jarri zuten. Andik txuxenean, berak lagunduta, lantokira joan nintzan. Sukaldera sartu zanean, aitak ama-alabei ala esan zien:

–Ez gero au gurekin batera bazkaltzera ekarri.

–Zer du, bada, gazte orrek? Orain arte bere aitak

beti gurekin bazkaldu izan du. Zergatik gazte mazal onekin olako bereizketa?

–Onek ez dezala, bada, gurekin batera bazkaldu.

–Ondo dago. Zuk jakingo dezu zergatik. Utzi nere esku –erantzun zion alaba Maritxuk–. Ez da galduan aterako. Nik zainduko det. Umilgarria da au benetan guretzat, eta baita mutillarentzat ere.

–Ala bedi. Semea etorriko zala jakin banu, besteren bat deituko niñan.

–Baillara ontan guzian ez dezu beste olako gazterik arkituko –erantzun zion.

–Oraindik gaztea den. Iretzat modukoa or daukan.

–Baillara ontan beste ederrenarekin baiño naiago nuke.

Lotsatua etorri zan alaba neregana, ta ala esan zidan:

–Ez dakit zer duen nere aitak zurekin. Ez du zuk gurekin batera bazkaltzea nai, eta orain arteko guziaz ala egin dute.

–Ez orregatik lotsatu. Neronek ere igerri diot, bai, iges egiten didala. Ez badu nai, ni etxera berdin joango nintzake. Bi kilometro besterik ez daukat.

–Ez orixe, Joan Mañuel. Nik zainduko zaitut. Eta, ezer ere bear dezunean, deitu: «Maritxu!», nere izenez naiago det eta.

–Zu bazaitut serbitzari, ez det batere galtzen.

Irripar gozo bat egin ta bere lanetara joan zan neska. Ni, berriz, arritu nintzan, ez bainekien ezer txo ere oraindik. Ez nuen bertako fameliarekin batera bazkaldu, len nere aitak beti ala egiten bazuen ere.

Baiña ez nuen batere galdu. Ezer bear banuen-edo, alaba jarri zuen amak bitarteko. Aren eskutik zetorkidan dena. Au, berriz, beta zuenetan ondoan neukan. Baituta eduki niñuteneko gora-beerak eskatzen zizkidan, eta nik txeetasun guziekin kontatzen nizkion, aren galderei garbi erantzunez.

Poliki-poliki aren maitasuna sartzen ari zitzaidan, eta neskari nerea zer esanik ez. Aitari eman nion erantzunarekin irabazi egin nuen, eta lanak bukatzerako naiko maiteminduak geratu giñan.

–Zer den ik orrekin? Beti orren ondoan ikusten aukat –asarre eman zion aitak.

–Utziuzu alabari pakean, badaiki orrek zer egiten duen ta –erantzun zion amak.

Amar bat eguneko lana esan zidan nagusiak, eta zortzian bukatu nuen. Ordaintzerakoan, kontentu, ala esan zidan:

–Saskiak eder ta dotoreak egin dituk, eta nik uste baiño len bukatu.

–Ordainduko didazu orduan tratuan egiña!

–Bai, ta txintxo-txinxo. Irabazian ateratzen nauk gaiñera. Bi eguneko mantenua, ori etxerako geratzen dek. Alare, ez nitek xentimorik eman bear.

–Eta ori zergatik?

–Etxe ontako aberastasun guziak baiño geiago balio duena ik eramango baididak, nere ustetan beinpein.

–Nik etxe ontatik ez daramat ematen didazuna besterik.

–Bai, Joan Manuel, bai. Nere alaba txukun ta maitagarri ori atzetik joango zaik zalantzarik gabe. Ez dit uste, alare, galduan aterako danik.

–Berak nai badu, nik ez diot ezetzik esango. Biok gazte gera, eta ezkongai gaiñera. Baserriko neskatxa bat markes batekin ez dago gaizki.

Aitak nola edo ala par egin zuen, eta onela esan zidan:

–Etziot besterik opa. Aitari iges egin dioten baserriarrak laxter dituk iri deika. Ez baaiz marmarrean aritzen, eta politikako eztabaidak utzi, ez dek lan paltarik izango.

Egun gogoangarria izan zan ura saskigille asi berri onentzat. Neskatxa arekin ezkonduko nintzan gero, baiña azkeneko karlista gerra txoro ura pasa ondoren. Sei seme-alaba izan genituen. Zaartu ta etxeko pakea ez galtzeagatik, Ernanira etorri giñan, alaba baten etxera. Aretxek gozaten ditu gu senar-emazte zaarron azkeneko urteak.

Bereala egin zan nere zabalkundea:

–Markesaren semea saskigillerik onenetakoa omen dek.

Andik aurrera, denetatik banuen eskea. Aitak galdutakoak neregana zetozen. Eskerrak neskatxa lirain ari. Arek egiten zuen nere goratarrea.

Lenengo ateraldia izan nuen txarrena. Baiña bai gozoena ere. Alde guzietatik banuen deia, eta denetan ondo artzen niñuten. Egiten nuen lanarekin oso kontentu geratzen ziran. Baiña batean izan nituen ixtilluak. Nik ez noski; nagusiak. Esandako ordurako txuxen joan nintzan. Ez nuen neregatik beste iñor itxogiterik nai izaten. Nik atean deitu baiño len, nabaitu nituen etxe barruan alako ixkanbil ta zalaparta batzuk:

–Ez dit ori emen sartzerik nai.

–Zergatik ez didak ori lenagotik esan? Abisatua zegok, bai, ta kito!

–Ik galdetu bear idan nai nuen edo ez.

–Etxe ontan nor aiz i neri kargu artzeko? Ez uan irea artu? Ez aiz i emen iñor. Emazte ta seme-alabe-kin konpontzen nauk ni.

–Aldegingo dit orduan emendik.

–Ik egiten dekan lanagatik baoake, motell. Anaia augu ta orregatik **ago** etxean. Nai badek, joan. Baiña ez nik bialtzen **autenik** esan.

Aiek etzekiten ni zai nengoenik; eta, aien zala-partak ez entzutearren, urrutiratu egin nintzan. Etze-zatela zeleta egiten nienik pentsatu.

Andik bereala, purrustadaka atera zan, etxera artua zeukaten mutil zaarra. Saskigille gaztea ikusi niñunean, neri begira-begira jarri zitzaidan. Orduan nik ere nere begiak zorrotz arpegira zuzendu nizkion. Baiña ez nuen ezagutu nor zan. Gero jakingo nuen, andregaiaren aitak esanta. Igesi zijoanak bai-baizekien an nor zegoen zai. Bixi-bixi urrutiratu zan, nere beldurrak agian. Nik, berriz, aurreratu ta berriro atean jo nuen. Nagusiak berak artu niñuen. Baiña serio xamar, mutil zaarraren erruz.

–A! I al intzan? Zai al engoen?

–Denbora gutxian, baiña ala nengoen. Emen ez-tabaida gogorak entzun ditudanean, atzeratu egin naiz.

–Orduan, mutil zaar ori ikusi dek ateratzen.

–Bai, ta ez oso goxo gaiñera.

–Nere anaia dek ori, eta etzin i etxe ontara sartzerik nai.

–Nik ez dakit zergatik. Gaur ikusiko nuen noski lenengo aldiz.

–Ire beldurak zebillek ori.

–Berak jakingo du zer egiten duen. Baiña len esan dizut: ez det ezaguna.

–Bada, nik ere ezin dit ulertu zertatik zetorren orren errabia.

–Zuk badakizu ni urte batzuetan baitua egon naitzela. Ortan parte artutakoren bat ez bada, neretzat arrotza da.

–Aizak: kontrabandista amorratua izan dek.

Ango lanak bukatu ta txuxenean etxera joan nintzan. Baiña mutil zaar arek zer pentsatua eman zidan.

Etxeko maiorazkoa nintzan ezkerre, etxeko marxari lotu nintzaion, aitarekin batera. Deia nuenean, saskigiñari.

Igande ta jaietan erromeriz-erromeri. Jakiña, inguruko erri txiki aietan. Urrutira joateko etzegoen gaurko erreztasunik.

Neskatxa lirain ura nerekin, goxoak ibiltzen gitan. Guk diru asko ez generabilkien; baiña naikoa, sasgikiñekoa neretzat uzten baizidan aitak.

Gu ala genbiltzala, aspaldian beldur genduen etorri zan: gudatea.

## SAGAR GORRIA

Zoritxarreko gudate ura asi zanean, ni ango base-  
rri-taberna batean ari nintzan lanean saskigiñean.  
Lan luzea eman zidaten. Sendi ona zan ura. Baiña,  
batzuek ziotenez, zurietako amorratua. Etzan ori egi  
osoa, ordea. Etziran beintzat ezertan nabarmentzen.  
Etzitzaien komeni ere. Taberna zeukaten ezkerro, de-  
nekin ondo konpondu bearra zuten. Azpeiti erri kar-  
lista zan orduan; eta guda asi zaneko, ordurarteko  
alkateak eta mikeleteak anka egin zuten andik, Do-  
nosti aldera noski, beltzetakoak baiziran. Eta ni la-  
nean ari nintzan tabernako nagusia egin zuten alkate  
berria. Benetako atsegiña eman zidan orrek.

Guda esaten diogu, baiña etzuen itxurarik. Uri  
buru guzietan beltzak gaillendu ziran. Mendi ta erri  
koxkorretan, berriz, txuriak. Gudate ori, Gipuzkoan  
beiñepein, etzan atzera-aurrera bat besterik, batez  
ere Beterrian. Uste gabeko erasoak tarteka-tarteka,  
gero berriro mendira biurtzeko. Ango baserrietan,  
gaur batek eta biar besteak aginduko zuen. Gaiñera-  
koan, itxura gabeko lapurreta eta elkar iltzea.

Urteak aurrera zijoazen. Ogei ta lau urte bete

berriak nituen oraindik. Baiña ori etzan aski. Bi aldeetakoak gora ta beera zebiltzan; eta, nere adiñeko bat arrapatu ezkerre, gaizki erabiliko zuten, naiz bat-tak eta naiz besteak, aiekin joaten etzalako. Udala ta erria batera zeuden. Asko boluntario joan ziran, geienak txurietara. Nik, berriz, ez neukan ortarako gogorik. Lanean ari bainintzan.

Goierrri guzia txurien mende zegoen. Donosti ingururaino berak ziran nagusi. Inoizka egiten zituzten beren sarrerak, inguruko baserritar gizarajoak larru gorrian utzirik; eta iges berriro mendira. Ondoren, beltzak gora, goikoak utzi zituzten pixarrak biltzera.

Olakoetan ajola gabeko biurriak gailentzen dira, Azpeitian bezela. Mutil zaar biurri bat zan oien jabe, nai zuena egiten utziko ziotelakoan.

Egoarte batean, lanean ari nintzan. Tabernako alaba txiki batek sagar gorri eder bat eman zidan eskura, esanez:

–Torizu au zuretzako. Neri ere beste olako bat eman dit.

–Esan al dizu noren partetik?

–Ez; neska gazte bat da, eta errotara dijoala esan dit.

–Eskerrik asko. Ederra da.

Agurtu nuen neska koxkorra, baiña banituen nere zalantzak. Nere kolkorako ala nion: «Sagar gorri au neretzat? Eta nork bialia? Nere andregaiarena izango dek. Baiña zergatik biali ote dit? Zerbaiten ezkutua bazegok emen. Ura, neri sagar gorri au ematera, etzetorrek bere etxetik oneraino, errota aitzaki artuta».

Bazterrean utzi nuen, gero jatekotan. Baiña amaika buelta eman nizekion sagar gorriari. Arek zer



esan nai ote zuen? Etzala nitzaz aztutzen? Orrek etzuen itxurarik, igandero elkarrekin ibiltzen giñan ta. Eta beste baten lana bazan ori? Iritzi asko zebiltzan nere buruan, baiña ezin asmatu. Amabietan uzten nion lanari; eta, sagarra eskuan artuz eta ondo begiratu ondoren, txulo bat egin ta andik kendutako puskarekin itxia zegoela iruditu zitzaidan. Ezkuturen bat bazegoela bere barruan. Bi erdi egin nuenean, bil-bil egindako paper bat azaldu zan.

—Au biali didatenean, norbaiti gertatu zaiok ezbearren bat.

Norena zan ez bainekien oraindik. Zabaldu ta au irakurri nuen: «Zure aita ta Goikoetxeko Erramon preso artu dituzte, eta olako etxean daude, maatsa dagoen aldeko goiko bizitzan. Erne ibili. Aurki bazterren batean ilko ote dituzten otsa dago. Zuk ondo ezagutzen dezu leku ori».

Etzekarren iñoren izenik. Arek, bere ustez, buruz jokatu zuen. Baiña arraixku txarreko lana. Arrapatu izan balute ura zekarren neska, ni ta idatzi zue-na, biok galduko giñan, ispitizat artuko giñuzten ta. «Dударik gabe, Maritxu nere andregaiia zebillek or tartean. Urrea balio dik neskatxa orrek. Denean zergok. Nola ikasi ote du ori?» nion nere-kiko.

Baiña bereala beste zalantza ta kezka gaizto batzuk sortu zitzaizkidan biotzean: «Eta beste norbait-ek, ni bidean arrapatzeko asmoan biali badu ori?».

Sagarra ez nuen jan. Bada ez bada, zimauregira sartu nuen, iñork billatu etzezan. Papera, berriz, erre.

Gudan zebiltzan eta Erramonen anai mutil zaarra ez al zan tartean ibiliko? Paperak jartzen zuenez, bere anaia zan baitua. Mutil zaar onek eta nere andregaiaren aitak zergatik ote zidaten alako ezin iku-

sia? Jainkoa lagun, alegiñak egingo nituen ori ikasten.

Asko pentsatu nuen, erabakia artu baiño len. Sagarra biali zuenak bazekien ni itxu-itxuan joango nintzala nere aita salbatzera. Bere ustez, sarea etzegoen gaizki jarria. Gora igotzean, an bertan; edo jextera-koan aixa arrapatuko bainiñuten.

Zenbat eta geiago pentsatu, alare, gero ta segu-rago nengoen ura Maritxuren lana zala. Nere neurriak artu bear nituen. Ez neukan txoro-txoro joate-rik. Banekien zergatik baitu zuten nere aita. Lenengo aitzekia, beiñepein, beltzetakoa zalako; eta bigarrena ez ote zan izango nere aita zalako? Mutil zaar-rak benetan gorrotoan bainiñun, zergaitik ez banekien ere.

«Baiña etzeukat gerorako utzi edo denbora gal-terik. Azkar ibili bearreko arazoa dek au. Biar goi-zerako aien gora-beerak egingo dizkitek bestela» nion, nere burua suspertzeko.

Orregatik, bazkalondoan esan nien etxe artako senar-emazteei, seme-alaba txikien ezkutuan, nere asmoak zabaldu etzitezten:

–Olako lekutan aita baitua daukat. Arekin bate-  
ra, Goikoetxeko Erramon. Zer egin bear det nik  
orain? Alkate zeran aldetik, zer aolku ematen dida-  
zu?

–Aita beti aita da –erantzun zidaten.

–Bai; egia. Il edo bizi, askatzera joango naiz. Baiña dena ondo ateratzen bazait, non ezkutatuko ditut? Ez baida erreza izango beste aldera igarotzea. Nere aita beltzetako amorratua da, baiña paketsua.

–Zuk lasai ekarri biak onera. Ondo ezagutzen ditut, fameliko guraso on batzuk besterik ez dira ta.

Iritzia bakarragatik, ez badu txarrik egin, ez dago iñor zigortzeko eskubiderik. Ni naiz erri ontako alkatea. Besteak iges egin ta ni aukeratu naute; ta erri ontan iñor il edo galdu ez dedin, alegiñak egingo ditut. Onera ekarri; ta, atzetik baletoz, anbat atxillotzeko aginduko det. Oiek beren buruz dabilta justizia egin nairik.

–Eskerrik asko. Berri zoragarria da ori neretzat. Arrats ontan il edo aiek askatu artua daukat erabakia.

–Bakarrik egin bear al dezu ori?

–Lagun bat pozik artuko nuke. Baiña konfiantzakorik ez det ezagutzen, eta naiago det bakarrik.

–Erramonen anai mutil zaarra aristian emen zan. Ura artu zazu lagun.

–Ez al du ni emen ari naizenik galdetu?

–Ez. Baxo erdi bat artu ta joan da.

–Zer ote dabil ori?

–Agian zure billa, oiek salbatzeko.

–Nik bezela ezagutuko bazendu, etzenduke ori esango.

–Zerbait egin al dizu? Mutil zaar jatorra dirudi orrek.

–Bi senditan erabili naute, saskigintzara deitu ta gero, nor nintzan jakin zutenean, etxean artu nai ezik. Batean, emazteak eta seme-alabak aitari gogor egin ziotelako, artu niñuten. Baiña besteekin batera ez nuen sukaldean bazkaldu. Eta mutil zaar orren etxean, ni deitu niñutelako, arrunt asarretu ziran bi anaiak, eta azkenean zemaika ta biraoka aldegin zuen etxetik mutil zaar orrek. Baiña zergatik? Ori ez dakit. Ez bainuen ezagutzen ere. Baiña andik edo emendik ikasiko det.

–Ori ez genekien. Baiña sendi askotan gertatzen dira olakoak.

–Eztabaida guzia neregatik izan zan, ordea. Eta len esan dizudana: ez nuen ezagutzen. Tarte ortan badago zerbait. Nere lan ontarako, iñork ez jakitea obe. Ondo ateratzen banaiz, onera ekarriko ditut. Eta zuk, alkatea zerañ aldetik, babes itzazu.

–Bai orixe. Oiek biak etxera joango dira. Ez ba-genitu ezagutuko... Zure aita askotan jarduna da emen saskigiñean. Beltzetakoa dala? Bai; ezin ukatu. Baiña oiek guziak iltzen asten bagera, geiagok ere erori bearko luteke.

## ERASOA

Illundu zueneko, alkatearengana urbilduz, ala esan nion:

–Banoa. Agur. Laxter arte, suerterik izaten badet. Bestela, berriz, betiko.

–Bai al zoaz? –esan zidaten arrituta senar-emazteak–. Lagun bat ere gabe?

–Bai. Il edo bizi. Baiña ez det aita orrela bakarrik utziko. Al dan ixillena egin bear dan lana da ori.

–Bai. Aitak baleki, ontzat artuko ote luke? Biak bertan galtzeko arraixkua baida ori.

–Ez dakit aren iritzien berri. Baiña nik nere buruz pentsatzen det.

–Ez dago gaizki. Egizu orduan biotzak eskatzen dizuna. Baiña lan zailla artu dezu. Bat baiño geiago izango baidira.

–Zailla dala badakit. Zuek diozuten bezela, bat baiño geiago izango baidira. Alare, baditut alde errezgarriak. Ezkutueneko txokoraño etxe ori ezaguna zait. Non daukaten badakit. Gaiñera, berak uste gabeko eraso. Ez baidute jakingo iñork dakie-

nik. Bestela, eziñezkoa litzaidake aiek salbatzea. Nere burua galtzera joango nintzake.

–Agur, bada, Joan Mañuel, geiago alkar ikusten ez badegu ere. Jainkoak lagunduko al dizu.

Aiek barrura, ta ni kanpora erten nintzan. Ekaitz ikaragarria zerabilen. Euri ta kazkabarra, tximista eta trumoi-otsa aterrunik gabe. Etxean geratzeko giro ohea zegoen, kanporako baiño. Nik nai nuen lane-rako oberik ezin aukeratu, berriz. Ni lanean ari nintzan lekutik lau kilometrora zegoen etxe aundi ura. Lasai-lasai joan nintzan. Baiña biotza ez neukan ala.

«Ez ote da au itxu-itxuan txoro baten jokaera ausartegia izango? Dana dala, goazen» nion nere buruari.

Ez neukan ezertarako presarik. Zenbat eta beranduago joan, orduan ta seguruago neretzat. Eta banekien, eguraldi arekin eta ordu artan, bidean ez nuela iñor topatuko.

Nere neurriak artu nituen. Bertara iritxi nintzanean, poliki-poliki etxe guziari azterketa bat egin nion, zelatariren bat ikusten ote nuen. Ezta zakurrik ere. Eguraldi arekin denak legorrean egongo ziran.

Sukaldean, ordea, argia zegoen. Ixil-ixilik joan ta begiratu nuen leiotik. Urdea aleena! Beste iru mozkorrekin an zegoen gure mutil zaarra, kontu kontari. Nere susmurrak egi biurtu ziran.

Barrura begira nengoela, atera zan petral ura kanpora. Baiña ez niñun ikusi. Nai izan banu, neraman makilla moztaka arekin bertan txikituko nuen. Etzitzaidan komeni, ordea, barruan zeudenak oartuko ziran ta. Etxea inguruz-inguru aztertu ondoren, pixa egin ta sukaldera sartu zan.

«Zertara joan ote da ori alkate berriaren etxera?

Ni an ote nengoen jakitera noski. Auxe dek nere ordua -nion-. Oiek bapo zeudek. Etzeukatek ateratzeko asmorik. Agian, goiko gelan ez dek iñor egongo. Jauna, lagun zaiozu seme bati bere aita salbatzen».

Ori esan ta ixil-ixilik urbildu nintzan, paper txiki arek erakutsi zidan lekura. Lurretik bost bat metrora zegoen leioa, teillatu sapaia jotzen zuela. Baiña igo ta jexteko erreza, sasoiko batentzat beiñepein. Lotuta zeudenak, biak ere, ala ziran oraindik.

Matsa zegoen lodia, ormaren alde guzietara adaskak zabaltzen zituela; eta, erori etzedin, burnizko ziri batzuk bertan sartu ta aiei lotua. Lenbailen egin nai nuen. Agian iñoizka ta txandaka aterako ziran sukaldeko zelatariak.

Sakelean laban txorrotx bat neraman, aien loturak mozteko; eta makil moztaka sendo bat gerrian.

Leioak etzeukan ez krisketa ta maratillik. Bultza ta ixten zana zan. Ori banekien. Utzitako gela zaar bat zan ura, juxtu xamar egindakoa. Etziran bi illebeste, gela artan bertan saskigiñean aritu nintzala.

Makilla gerrian artu, aitaren egin, aingeru gardakoari aitagure bat errezatu ta asi nintzan igotzen, matsetik ez, ormatik, arriz egindako zarpiatu gabeko orma latz bat zan ta.

Euria ta aizea txistuka, ta ormatik aidatzeko moduan. Askotan, tximistak egunez bezela argitzen zitu en inguruak.

Ondoren etxea dardarazteko aiñako ortotsak. Alare, zailla zan ni orman gora ikustea. Mats aundi orritsu arek estaltzen niñuen.

Banijoan geldi-geldi gora, eskuak eta oiñak non jarri aztakatuz. Leioa arrapatutakoan, itxogin alditxo

bat egin nuen, belarria leio ondoan jarriz, an iñor bai ote zegoen jakiteko. Garbi-garbi entzun nituen bi baituak elkar izketan. Zaintzaillearen zurrunga ere bai, mozkor-mozkor egiña, zekor bat bezela lotan. Ortan antzeman nion besteak lotuak egongo zirala. Aren beldurragatik bestela etzirala ala egongo.

Ez nuen leioa zabaltzen ari bearrik izango. Aize purrustada batek zabaldu zuen, eta nere zorionerako egundoko tximista argia egin zuen orduantxe. Barrukoak ikusi niñuten. Nik ere bai aiek. Zaintzailleak, berriz, zurrungan jarraitzen zuen.

Bere arma, aizkora txiki bat, aldamenean zeukan; baiña ez lotuta. Sartu orduko, kendu ta leioan beera bota nion. Bereala, nere laban txorrotx arekin ebaki nizkien loturak. Neroni atera nintzan aurretik. Ango berri ondo bainekien. Gero, aita. Ura zan zaarrena. Atzetik, Erramon; onek, al zuen bezela kanpotik leioa itxita, zaintzaillea esnatu gabe lo zurrungan utzita. Jetxi giñan poliki orman beera. Lanak bukatu genituenean, biak, esku emanaz:

–Bejondeikala, motell! Nola ausartu aiz?

–Ez ausartu bakarra. Bai egin ere. Goazen emendik. Goikoa esnatzen bada, ta oiuka asi, larri ibiliko gera. Beeko sukaldean daude beste lauren bat. Zure anai mutil zaarra ere bai. Orren lana da noski au.

–Mutil zaar ori or dago orduan? Barren gaiztoko umea dek ori. Iltzeraiñoko gorrotoa artu, alajainkia! Gu baitzera ez ote da ura joan?

–Orain non ezkutatu bear diagu? –zion aitak.

–Goazen Etxeberriko tabernara.

–Motell, oiek gure etsaiak dituk.

–Ez beldurtu. Andik etorri naiz; eta, salbatzen bazaituztet, ara joateko esan didate. Oiek ez dira



iñoren etsaiak. Alderdi gabekoak, ez dute erri ontan iñor galtzerik nai.

–Etzegok gaizki eskeiña.

Leiotik botatako aizkora txikia artu ta jarri giñan tabernarako bidean. Erasoa igaro ta illargi ederra zegoen zeruan. Baiña aizea ari zan beste baten mol-daketan.

–Nola jakin dek gu or gaudela? –galdetu zidaten.

–Nik badet lagun goxo bat, saskigiñera joan ta an egiña, ta denean dagoena. Ezagutuko dezute noski: Maritxu, Bordatxurikoa.

–Bai, motell –erantzun zidan Erramonek–. Neskatxa piña, langillea, biotza besterik ez duena. Aren aurrean gaizki esaka gutxi.

–Ori da nere andregaia.

–Nere aolkuaren bearrean baaiz, etzak neskatxa ori galdu.

–Ez daukat ortarako. Orrek, tabernako alaba txiki batekin, bere ta nere bizia arraixkuan jarriz, arrapatu ezkerro ispitzat artuko baigiñuzten, biali zidan, sagar gorri eder batean sartua, paper txiki bat, zuek non zeundeten bertan idatzita. Nik salbatu zaituztet, baiña arek ez du parterik txikiena.

–Bejondeiola! Ispitzarako balio dik –erantzun zidaten–. Orain guk zer joera artu bear diagu?

–Guda bukatu artean iges. Ori aske dabillen arte, ez gaude iñon seguru.

–Gure etxeakoak kezka urtuko dituk.

–Utzi ori nere esku. Zerbaitetarako daukat erregin ori nere biotzean. Berdin azkenean nik ere ori egin bearko det. Ogei ta lau urterekin boluntario

joaten ez naizelako ez baididate pakean utziko. Baiña ori gero patxaran erabakiko degu. Erri ontan al daketak egin baidira. Beste agintariak ditugu orain, lengoak iges eginda.

Jo genduen tabernako ateetan. Oraindik, aurrak lotara bialita, berak sukaldean zeuden. Zabaldu baiño len, guda zebillen ta, bada ez bada kontuz, barrutik galdetu zuten:

–Nor da?

–Joan Mañuel eta bere lagunak.

–Bejondaikela, motell! Atozte, atozte aurrera!

Sukaldean artu giñuzten. Apari lege bat artu ta lotara joan giñan.

## ETSAIAK

Guk lotan utzi genduen mozkorra esnatu zanean, eguna zabaldua omen zan. An iñor etzegoela ikusi zueneko, begiak igurtziz ala omen zion:

–Ni ametsetan ari ote naiz? Non da nere arma? Non dira atzo or lotuta utzi genituen bi aiek? Espirituak ote ziran, lokarriak askatu ta aldegiteko?

Gela barruan an zeuden lokatzez egindako oin arrastoak. Leiora begiratu zuen eta an ere bai.

–Ortik sartu ta loturak askatuz, norbaitek libratu dizkik, eta nik nabaitu ez. Ez dituk iñor iltzera etorri. Salbatzera bai. Bestela, ni garbituko nioteken. Nork jakin bear zin oiek emen zeudela?

Orrela berekiko izketan ari zala, sartu zan sukaldean geratutako aietako bat. Ordurako beren *consejo de guerra* egin zieten, galdera batzuk egin ta bazterren batean iltzeko asmoan. Erramon etzan politika gauzetan nabarmendu, baiña bere anaia etzegoen barkatzekotan.

–Non dituk oiek? –galdetu zion.

–Etzekit espirituak ez ote diran noski. Nik nabaitu gabe iges egin ditek.

–Emengo aztarren auek ez dizkik espirituak utzi. I lo agola, norbaitek salbatu dizkik. Oraindik olakorik!...

–Arratsa ez al dek, bada, lotarako egiña? Olamoduzko gizonak iltzeko guk zer eskubide zeukagu?

–Utziok kontu orri pakean. Ik gizon oiek zaindu egin bear itun.

–Zergatik ez dituk erorrek zaindu? Emen ibili dana ez dek gu bezin gaiztoa. Bestela, aixa ilko nio-ken.

–Aizkora ere galdu dek. Zigortu gabe ez aiz geratuko.

–Zuek ni zigortu? Nork jarri zaituzte nere nagusi? Asi, asi ortan! Norbaiti laxter damutuko zaiok!

–Lasai-lasai! Obeto pentsatuko diagu.

–Zer lasai ta lasai ondo? Emen denok igualak gaituk, eta ni baniaik emendik etxera. Or konpon zuen kontzientziarekin! Bakarra dek gaiztoa gure saillean: mutil zaar ori.

Ori esan eta bereala aldegin zuen andik. Eta arrazoi zuen. Aiek etziran erdi mozkor triste batzuk bes-terik. Baiña mutil zaarrak bildu ta gidatuak.

Au, baituak iges egin zutela jakin zuenean, sumindu zan.

–Iñondik ere, saskigille gazte orren lana dek –zion batek.

–Ez dit sinisten. Arek nola zekiken oiek emen zeudela? –mutil zaarrak.

–Ondo pentsatu ezkerro, ori ere ala dek. Emendik

bost kilometrora ari dek lanean, taberna ostatu artan alegia; eta bart egin duen giroarekin ez uan etorriko. Zaintzailleak berak askatu ta bialiko zizkin.

–Ez. Orrek edo beste norbaitek egin dik. Or zeudek oin urratsak.

–Goazen taberna aundira, ea ezer badakiten.

–Bein iges egin dutenean, asko arrapatuko dituk.

Mutil zaarra gidari, jan-edanak utzi ta esandako lekura joan ziran, ni an lanean ari nintzan jakitera noski. Atea jo zutenean, emaztea azaldu zan. Gizona beste birekin izketan ari zan sukaldean.

–Egun on, etxekoandre –agurtu zuen mutil zaararak.

–Baita zuei ere. Zer nai zenduteke?

–Bi gizon geneuzkan atzo baituak, beltzetako amorratuak, lotuta; eta iges egin digute. Bat, emen saskigintzan ari dan orren aita.

–Bai; ta bestea, berriz, ire anai Erramon. Ez al da ala? Deabruak aleenak! Zuek nor zerate, fameliko gizon ondradu batzuk iñoren baimenik gabe lotuta edukitzeko?

–Zuk erantzuiozu gure galderari: emen dauden edo ez.

–Etzeudek emen. Etxera biali dizkit.

–Eta zu nor zera ori egiteko?

–Ai zer nolako galdera! Zuetako edozein aiña beñepein bai. Ni tabernaria nauk. Mokadu bana artu ditek, eta joan dituk. Zergatik emen apupillo eduki bear nizkin? Baiña beste arrazoi sakonagoa ere badit, aiek etxera bialtzeko. Jakizute lengo alkateak iges egin duela, eta aren orde z ni aukeratu nautela. Nor zerate zuek, zeuen buruz gizonak iltzen asteko?

–Guda asi da ta auek beltzetako amorratuak dira.

–Bai. Zoritxarrez guda asi dek. Baiña nork eman dizute eskubide ori? Gorrotoan dituzutenak iltzeko al dek guda madarikatu ori? Ondo irudituko al zaizuteke, gerra asi dala ta bazter batera eraman ta zuek iltzeko aginduko banu, karlistak zeratela ta? Ez al daukagu denok eskubide berdiña? Ni, gaiñera, agintarietako nauk, eta zuek pekatuan arrapatu zaituztet.

–Nork salbatu dituen jakin nai genduke.

–Zuek, ori endoreari eskatzeko, epailleak al zerate?

Saskigiñean ari nintzan lekutik entzuten nuen aien elkar izketa. Sumindua eta ia nere onetatik aterea, jauzi batean zurubia jetxiz, alkatearekin izketan ari zala, mutil zaarrari eldu nion lepa-zamarretik, eta ala erantzun nion:

–Nork salbatu zizkin? Nik; bere semeak. Ik zer ikusi daukak nere aita eta nerekin? Guda asi dala ta iltzeko eskubidea badezutela? Alkateak esan dizutena erantzungo dizuet: eta zergatik ez nik? Bertan txikituko aut, motell! Nere aita eta ire anai Erramon nik salbatu dizkit. Ez ote diat aita maitatzeko eskubiderik? Aiek, erru gabeak bezela, endoreak etxera biali dizkik. Bart bi metrora eduki aut i. Nai izan banu, bertan txikituko iñudan. Lo zegoen gizarajo ura ere bai. Baiña ni salbatzera bakarrera joan nauk; ez iñor iltzera. Gu, aita-semeok, galtzeko asmoan bazabiltzate, zuek jakingo dezute zergatik. Baiña nere aita ukuitzen badezute, inpernura joanagatik, an ere arrapatuko zaituztet. Zergatik gure atzetik abillen, iñondik al badet ikasiko dit. Erri ontan badek beste bat ire antzekoa –esan ta lanera joan nintzan.

–Zer dezute gazte orrekin? Azaldu berria dek eta erri guziak maite duen mutilla –esan zien alkateak.

Besteak etzioten erantzun.

–Emen artu dizkiagu zuen izen-abizenak. Erri ontan ezereen ixkanbil gaiztorik sortzen bada, zuek izango zerate lenengo atxillotuak. Ez nitek erri ontan iñor ere, ez bateko eta ez besteko, galtzerik nai.

Eta aurrean biali zituen. Ustez, berak katuak sagutara etorri ziran, eta auek txakur biurtu zitzaizkien. Errenkuraka aldegin zuten andik.

Ez nengoen lasai. Guda bero-beroan zebillen, eta ni arraixkuan. Edozein aldetakoak arrapatzen baniñuten, ixtillu gorriak erakutsiko zizkidaten, berekin gudara eraman arte.

Ango lanak bukatu nituenean, nere maiteei agur bat egin ta beste aldera joatea erabaki nuen. Baiña ez nion alkateari esan. Ez baizuen ontzat artuko. Etsai aietatik nere burua salbatzeko, askoz egokiera ohea neukan beste aldean. Baiña ara joan baiño len, etxera egin nai nuen nere ikertxo.

Aita endoreak aske biali zuela egunak ziran, eta baitzailleei egundoko zemaia egin zizkien. Ez nuen uste nere aita ta Erramonekin geiago iñor sartuko zanik. Etxearen etorkizunerako ez nuen lan txarra egin.

Andik edo emendik neri erasoko zidaten, ordea. Nik beldur nuenarengatik erasotzen bazidaten beiñepein. Mutil zaarra zala alegia baitzailleetakoa, eta nere beldurak zebilela. Ni beti salatzaile bezela izango bainintzaion. Etxera bidean oldozpen auek neramazkien buruan.

Ez nuen atean deika ari bearrik izan. Ama atariko iturrian erropa garbitzen arkitu bainuen, belauniko jarrita, putzuaren ertzean, arri zabal ta legun baten aurrean.

Kuela esaten genion tramankulu batean egosten zuten goara. Erditik gora zurezkoa zuen, suill baten antzekoa. Or sartzen zan erropa, urez ase ta naasgarri guziak emanez, bere zikiñak arrotzeko. Karobi baten antzekoa zan. Au ere geiena arriz betetzen da, azpian suarentzat lekua utzirik. Kuelan ere berdin: goia, zurezkoa, urez ase ta erropa egosteko azpian suarentzat lekua utzirik, burnizkoa alegia.

Andik atera ta iturri ondora eramanez, an ari zan ama jo ta ke, arri zabalaren ondoan belauniko jarrita.

Etxearen atzeko mendian bazan ur begi bat. Andik zetorren erreka xigorra biurrika baserri aurrera. Aren jetxieran zulo aundi bat egin ta, ura urez betetzearan, an garbitzen ziran etxeko erropak. Erreka xigorrak, berriz, putzua urez beteta aurrera jarraitzen zuen, aundiagoko batean murgilduz.

Len egositako goaratik banaka-banaka erropak artu ta urean astinduz, jaboia eman ondoren, arri gainean ondo marruskatu.

Gero, gari jotzen bezela, arri zabal artan zartako batzuk emango zizkion, berriro urean pasa ta marruskatuz, lepo ta eskumuturrak batez ere. Olaxe ariko zan ordubete baiño geiagoan, bera ere erdi bustia, garbiketako lan zaillean. Gero, zapi langetan jarriko zituen legortzen.

Emakumeen lanik zailletakoa bazan ori, astero-asterokoa. Iturri orrek aritz aundi bat zeukan atzean, itzal egiten ziola.

Olaxe arkitu nuen, bada, nere ama. Bere lanari lotua, etzan oartu ni inguruan nintzanik, eta lanean ari zala agurtu nuen:

—Egun on, ama.



–Baita iri ere, Joan Mañuel.

Zutitu ta bi musu eman zizkidan zoramenez, eta:

–Bejondeikela iri. Gurasook arro gaude, arro, irekin. Ik egin dekan lana ordainduko duen urrerik etzegok munduan. Etzekiagu nola eskertu, aitaren-gatik ire bizia eskeintze ori.

–Salbatuko detan itxaropena pixar bat izan ez-kero, noiznai ta edozeiñengatik arraixkatuko nuke nere bizia, eta ez aitaren-gatik bakarrik. Baiña beste batek ere meritu aundiak dauzka ortan. Arek eraku-tsi zidan baituak zeudela. Nongo etxe ta zein geletan gaiñera jakitea ez da gutxi. Gure etxeko sukaldea bezela ezagutzen det etxe orren barrunbea. Batez ere gela xaar ura. Zortzi egun an igaro baintuen saskigi-ñean. Ori neri esan zidanak baditu bere merituak. Ni lanean ari nintzan tabernara, ostatuko neska txiki batek sagar gorri bat ekarri zidan, ari txuloa egin ta papertxo bat barruan, ondo estalia. An garbi-garbi esaten zidan nor ta non zeuden.

–Jakin ote nezake aingeru goardako ori nor dan –galdetu zidan amak.

–Maritxu, nere andregai. Ez nuen, bestela, aien berririk jakingo.

–Eta nola ikasi zuen arek aien berri?

–Ori ez dakit, geroztik ez det berarekin itzegin ta. Galdetu bear diot ea sorgiñen bat daukan bere lagun.

–Bera dek ura sorgin atsegiña. Aitak zerbait esan ziguken, bai. Baiña etxera bizirik azaldu zan pozak aztu erazi zioken ikasitako guzia.

–Dena ondo atera zitzaigun, bai, ta eskerrak nere aingeru goardakoari.

–Orain gudari joan bearko dek; eta, aita or galdu balitz, alaba gizarajoak eta nik pagatu bearko genin larrutik.

–Ez alperrikako pentsamentu oiekin bururik galdu, ez da ala gertatu ta.

–Jaunari eskerrak, motell. Emen geratuko aiz noski bazkaltzen?

–Ez, ama. Ez naiaren paltan. Baiña presaka nabil. Arrapatzen banaute, gudan gazte jende guzia eta adin ontakoa paseatzen, arraixku txarrekoa neretzat. Gaizki erabiliko niñuteke. Nere etsai oiek ere emen baidabiltz. Ni galdu arteko atsedetik ez luteke artuko.

–Eta guri pakean utziko al zigutek?

–Endoreak zemai gogorra egin zien. Ez det uste zuekin sartuko diranik.

–Guda zikin au sutu zigutek, bada!

–Bai batzuek nolako asmoak dituzten erakutsi ere: gorrotoan dituztenak garbitu lenengo. Gero beren buruz justizia egitea galerazten badute ere, aiek aurretik eramanak izango dituzte. Guda au asi baiño len ere galdua geneukan. Auntzak bezela mendi gailurretan ibilita, zer egin bear degu? Uri buru guziak, Donostitik asita, eta España geiena ere berdin, beren mende dauzkate. Azkenean, euskaldunok bakarrik utziko gaituzte denen aurka. Aita-ta non dira?

–Denak garotara joanak dituk mendira, aita ta iru arrebak. Ni bakarrik nagok etxean.

–Pozik lagunduko niekena, aldegin egin bear.

–Gudazale odol zaleak aleenak! Ezer ez irixteko orrenbeste ixtillu?

–Orduan, ama, berriz ikusi arte. Egun lasaiagoak etorriko al zaizkigu. Aiek ere agurtu nai nituzke. Baliteke, bizi banaiz beiñepein, guda bukatu bitarte bisitatxoren batzuk egitea.

Mendian lanean ari ziranak agurtu ta beerakoan, Maritxurekin topo egin nuen. Aren ibilleraren berri bai-bainekien. Bere tratu pixarrak saldu ta etxera zetorren ameslari, asto txikiaren atzetik. Poztu zan Maritxu ni ikusitakoan. Ez baizuen nere berririk. Salbatu nituela bai. Baiña bere abisua iritxi ote zitzaidan?

–Oraindik bizi zera, Joan Mañuel? –agurtu niñun, arnas lasai bat artuz–. Kezketan nengoen, non zentzuz ez nekien ta. Artu al zenduen nere abisoa?

–Bai, Maritxu. Bestela ez nituen salbatuko. Ondo al zerate denak?

–Bai, Jaunari eskerrak. Emen ez dabil zure izena besterik. Oiek zuk bakarrik salbatzea, ikagaragarria egin omen dezula. Badirudi Erramonek amar mingain dituela. Baiña, jakiña, betikoa: batzuek bedein-katuko zaituzte; eta beste askok, berriz, madarikatu.

–Mundu ontako legea ori da.

–Bakarrak bost etsairen artetik ori egitea... Arri-garria ez bada ere, arrotzen nau zure lagun izateak.

–Zu ere adar jotzaille oietakoa al zera, Maritxu?

–Ez gaizki artu biotz-biotzetik jaiotako goratzarrea.

–Mozkorrak zeuden, bai noski. Baiña eskerrak zure abisoari. Bestela, aiek an ilko zituzten. Egin ditzatela, bada, batera gu bion goratzarreak. Nik salbatu nituen, baiña zuk bideak erreztu ta gero. Zu izango zifian noski?

–Len ere esan dizut. Bai; ni nintzan.

–Eta zu ixillean zauzkate?

–Obe. Ez det inguruan txakur bearrik. Neretzat arraixku gutxiago.

–Eta nola ikasi zenduen?

–Banekien galdera ori egingo zenidala.

–Zuk, berriz, ori zabalduko dan beldurra?

–Jakiña. Esan zidanak gurasoak txurietakoak ditu; eta, aien belarrietara iritxi ezker, gaizki ibiliko luteke. Eta nere lagunaren pintasuna nola geratuko litzake? Zuri ez dizut ukatuko; baiña biontzat.

–Ori eskatzea ere min ematen didazu, Maritxu. Zabalduko dan beldurra badaukazu, barkatu. Gorde zazu ixilik.

–Ez, Joan Manuel. Zuk jakin bear dezu. Zure ezaguna ez da izango; baiña Karmen, baituak zeuzkaten etxe bertako alaba.

–Orduan, zu galduko bazinduzket ere, baneuka ke beste andregaia. Oso ezaguna det. Saskigiñean ni etxe artan aritua nintzan. Ondo neskatxa maitagarria da ura ere. Bere merituak baditu; ez txikienak gaiñera. Biak salbatu genituen, bada. Baiña arraixku aundia pasa genduen. Neska txiki ura arrapatu balute, ispizat artuko giñuzten, eta ori guda denboran gaiztoa da.

–Benetako maitasunak ez du olako arraixkurik ikusten.

–Ori joan zan. Dena ondo atera zitzaigun. Bi sendi egin ditugu zorionekoak, eta orrek balio du. Ea irugarrena ere egiten degun.

–Irugarren ori nor degu?

–Zu ta ni, alegia.

–A, bai! Ez nintzan konturatzen. Guda madarikatu onek atzeratuko gaitu. Baiña oraindik gazteak gera.

–Ez dakit urrengo bisita noiz egingo dizudan. Ni

ere beste aldera bainoa. Etsai gaiztoak emen dabil-tzan bitarte, baliteke iñoizka olako bisitaren batzuk egitea. Ez baigera gu beti leku batean egongo.

–Etsai oiek nor dituzu?

–Bat, Erramonen anaia, gaiztoena. Bestea ez de-zu ezagutzen. Egunen batean nor dan esango dizut.

–Ez txorakeririk egin, Joan Manuel. Ez presaka ibili. Len ere esan dizut oraindik gazteak gerala. Erri ontan ez da nik ezagutzen ez dedanik. Ez didazu esan nai nor dan?

–Orain ez. Baiña, andik etortzean, agian dena kontatuko dizut.

Maritxu agurtu nuen, baiña bai nekez. Urte oieta-tik igaro geranok badakigu ori zer dan, Joxe. Gure bizi naiak orduan etzuen mugarik.

–Bai. Maitasuna ta odola irakiten edukitzen ditugun garaia.

–Ez nekien noiz arte beste aldera ninjoan, ta biotzak min zuen. Maritxu ere arin-arin, pentsakizunez betea eta serio, joan zan etxera. Baiña ez bagiñan iltzen beiñepein, oraindik itzegiteko moduak egingo nituen.

–Nik ere banuen anai bat, amasei urtetarako aziburua artua. Karlistak aurrean eraman zuten. Aita zanak etzuen eskola aundirik, baiña buru azkarra ta legeen berri zekiena. Ibilta pranko egin zuen. Bai ekar erazi ere etxera –erantzun zion nere aita zanak.

## GUDARI

Nere maiteari agur eginta, biotza kezkaz betea ta goibel xamar, noiz arte ez jakin, taberna ostatura jetxi nintzan, erriko alkatearen etxera, an bazkari legea egiteko asmoan. Ango lanak bukatu baintuen; eta, guda asi ezkerro, saskigille gazteak jai geneukan, nik beiñepein.

Nere orduko adiñak gudara eskatzen zidan, eta ezin nindeken etxez-etxe ibili, nere buruaren arraixku txarrik gabe. Bi aldeetako edozeiñek egiten zituzten sarreretan arrapatu nazateken, eta ixtillu gaiztoak erakutsi. Ondoren, berekin eramane. Bi aldeak etsaitzat artuko bainiñuten, naiago nuen batekin asmatzea, biekin utsegitea baiño.

Kristau lege guziak austen baiditu gudak, ez neukan, bada, beste igesbiderik: atzerrira joan edo gudari sartu. Guda oraïndik asi berria bazan ere, gaiztoak beren lanean asi ziranaren ota zebillen.

Gudate txoroa, bururik gabea. Euskalerrriarentzat oso kaltegarria gaiñera, ia geiena gure bizkar geratuko baizan, España geienaren aurka. Emengo lekurik erosoenak ere etsaien mende zeuden. Bel-

tzak irabaziko zutela jakinta ere, ni txuriekin joango nintzan. Azpeiti guzia ia erabat ala baizan.

Tabernakoak ere ala ziran. Bertako nagusia, erriko alkatea alegia, berdin. Baiña ni, erriko etsaien iges, gudaritzara ninjoan.

Tabernatxo artan bazkaldu nuen, bada, arin-arin. Beti arrera ona egiten zidaten. Etziran nabarmentzen, ez batera, ez bestera. Etzitzaien komeni ere. Denekin bizi bear baizuten. Erteeran ala esan nion, bada, etxeke andreari:

–Agur, etxeakoak. Gudara noa.

–Eta gudari? –galdetu zidan berak.

–An edo emen nai ta nai ezkoa. Nere adiñeko gazte bati ez baidiote barkatuko. Seguruago nengoke emen. Baiña aita baitu duen gizatxar orrek, nerekin izango ditu kontuak. Ez lidake bizitzen utziko.

–Eta etxeakoak ondo geratzen al zaizkizu?

–Bai, bai. Eskerrak zure senarrari. Mutil zaar ori ni galdu nairik dabil, len esan dizudanez. Ez dira noski aiekin naastuko. Emengo arraixkurik txarrena, ondasunetan emango digutela jipoia. Egundoko artaldea baidaukagu. Mutil zaar orrek, aita babestua dagoela badaki eta bere interesari erasoko dio. Olakoxeak dira gudak dakarzkien aurrerapenak.

–Zuen baserria baiño len, amaika artalde badira or nonbait.

–Bai. Baiña gure mutil zaarrak gu gaitu gorrotoan. Zure senarra ere bai orain, aita babestu duela.

–Onekin kontuz ibiliko da.

–Batean batek, bestean besteak, guda onek ez dauka anka ta bururik: bazterrak ondatu, negarra ekarri, gorrotoa erein, irabaztuna ere galduan.

–Orixe da nere iritzia ere. Zertan sartu bear genduan gudate ortan guk? Madriden errege jartzea ez da gure egitekoa; eta azkenik, zuk diozun bezela, bakarrik utziko gaituzte. Baserritar gizarajoak larrutik pagatuko dute. Mendietako guda baida au –zion andreak.

–Eta orrekin zer aurreratuko degu? Euskalerrriak galera galanta. Irabazlea ere galduan. Gaillenduko bagiña ere, guretzat kalte. Etsaien onerako ari gera. Errege au jarriko balitz ere, andik aginduko luke. Guretzat, beste edozein bezin zapaltzaille. Bitartean, gazteak iltzen. Iltzen ez diranak ere, ezer ez aurreratzeko urterik onenak galdu. Uztagun izketa zikin au, zenbat eta geiago aipatu, orduan ta usai txarragoa artzen diot eta. Tarteka bisitaren batzuk egin nai nituzke etxera. Bestela, ez nuke etsiko. Baliteke, bada, iñoizka eman azaltzea.

Agurtu nuen, eta aita baitegian zaintzen zegoen mozkorrari kendutako aizkora artuta, illunbistan joan nintzan, iñor oartu gabe, nik ere, Maritxuk bezela, guda ta gudazaleak madarikatuz. Konpañi batera agertu nintzan. Ez nuen iñor ezagunik. Baiña kosta aldera. Iges egin nai ta ere, andik erosoago.

Orduko gudaren martxa arritzekoa zan: ez aurrea, ez atzera, beren lekuetan jarri ta kito. Gaur batek, biar besteak, aldizka sarreratxoak egin; arraputzen zutena kendu; baserritar gizarajoak larru gorririk utzi; mutil gazteren batzuk gudaritzarako ekarri... Olaxe ibiliko giñan urteetan txandaka.

Bein, erri txiki batera sartu giñanean, negargurea eman zidan mutil gazte batek. Gorputza bazuen, baiña oraindik urte gutxikoa. Gurekin eraman nai genduen. Gurasoak ezetz; etzeukala ortarako adiñik.

Txerri iltzerakoan bezela mai baten gaiñean jarri-



ta, lau gizonen esku ta oiñetatik eutsiz, espartzin zola batekin oin azpian joka. Aren oiü ta karraxiak!

–Utzi! Ez jo! Bai! Joango naiz!

Oiñaze ikaragarria dala diote. Azkenean, geienok urrikalduta, bertan utzi genduen.

Olaxe ari giñan bazterrak ondatu ta lapurretatik bizitzen. Aste osoak pasatzen genituen tiro bat sutu gabe.

## MUTIL ZAARRA

Egun, aste ta illabete aspergarriak zijoazkigun. Sutan sartzen giñanean, zerbait suspertu ta berotzen giñan. Gure oitura etzan besterik: xentimorik bage-neukan, zurruta edo jokoa. Tarteka, gure bearretarako ere, saskigiñean saioxkaren batzuk egiten nituen.

Baiña bein, gogoan daukat eta etzait aztuko, toka zaarrean ari giñan. Berrogei ta amar tanto zeñek lenago egin binaka.

Zerrera begiratu nuen batean, orra non ikusten detan gutxiena uste nuena: gure mutil zaarra, alajainkia; eta ispitzara etorria noski. Gu bezela jantzia txapel gorriarekin, gure konpañiko kapitanarekin pa-seatzen.

Alako amorru bat artu nuen; baiña ez ikusia egin ta ixilik geratu nintzan. Ezer gertatzen ez balitz bezela, nere lagunekin jarraitu nuen jokoan. Nere lagunak ala zion:

—Berrogei ta amar ia bi tira alditan aterako dizkiagu. Ik amasei atera dituk. Ea nik beste ainbeste egiten ditudan.

Alare, jokorako baiño, erneago neuzkan begiak

mutil zaar arek nolako joera artzen zuen jakiteko. Antzeman bainion ikusi niñula. Baiña etzuela ura an zebilela ni oartzetik nai. Lagunaren beste aldean babesten baizan. Ordurako, ordea, aren zear begiratuak ikusten nituen.

–Zer egiteko ote dakar orrek onera? Ispi ibiliko dek. Norentzat? Gure edo besteentzat? Gure kapitana ez ote du ezagutzen? Edo bera ere billaua ote da? Aurreak erakutsiko ziguk nola dantzatu atzea.

Arek aldegin zuen, eta urrengo goizean gure kapitana ala agindu zidan:

–Mendibe etxean omen zeuzkatek beltzak bi karlistetako buru egiten zutenak, sarrera batean arrapatuta. Seguru asko pusillatu egingo dituztela. Au dek atzo etorritako ispi batek kontatu zidana. Bi zaintzalle besterik ez daudela. Bostek, uste gabea, aixa askatuko lituztekela andik. Ango berri ondo dakiena badala emen, eta arek giatuko lituzkela.

Nik ala erantzun nion:

–Ango berri badakit, bai, nik. Baiña ez det alako karlista sonaturik ezagutzen. Beltzik ere ain gutxi.

–Beste erri batetik ara ekarri omen dizkitek. Joango al intzake?

–Nabarmenegi azaltzen dira or deabruaren bela-riak, orren itxuan sinisteko. Ez al da billaukeriren bat izango?

–Ez, motell. Lau lagun aukeratu itzik, nai ditukena.

–Len bakarrik bosten eskutik askatu nituen bi.

–Orduan zer: atzera egin erazten dik?

Berriro ere nik ala nion:

–Ez al da billaukeria izango?

–Berri ori ekarri didana, emen dabillen ispirik piñenetakoa dek.

–Egitan ari zera sinistuta, edo...

–Zer esan nai didak «edo» orrekin?

–Nik ikusi baiziñudan norekin ari ziñan izketan, eta lurraren gainean dan billauenetako bat da bera.

–Iri entzuten dik lenengo. Arrazoiren batzuk bai al dauzkak orrela salatzeke?

–Ona nere erantzuna bertan: guda asi orduko, lenengo lana, nere aita, beltzetako ezaguna errian, eta billau onen anaia, bera bezelako lau lagunekin baitu zituen, urrengo goizean iltzeko asmoan; eta nik bakarrik bosten aurka salbatu. Ta erriko alkateak, kristaua, gizona alegia, aske beren etxeetara biali, mutil zaar orri zemai gaizto bat egiñez. Ori da, jauna, soil ta garbi nik dakidan pixarra.

–Ez uan ik uste dekana izango.

–Oraindik gaztea naiz ta begi bista ona; ta ainbeste aldiz ikusi al det izan ere, nere auzoa da ta.

–Orduan i ez aiz joango.

–Seguru jakin arte ez. Nerekin ez ditut beste lau eramango. Oien erantzukizuna ez da nere bizkar geratuko.

–Nik aginduko banikek ere ez?

–Len ere esan dizut: seguru jakin gabe ez. Orduan gorago joko nuke. Emen badauzkat lekukoak. Garbi ezagutzen baidet nik ori.

–Badakik ire ezetzak zer merezi duen? Gerrako legeak zorrotzak dituk gero.

–Bai. Baiña mendeko ta agintarientzat; bientzako, ordea. Nik badakit dudarik gabe oien sarean

eroriko giñakela joango giñaken bost lagunak. Oiek gu erdian artzeko moduan etorriko lirake. Orren desio guzia ez da besterik: ni arrapatu ta eriotz gaizto bat ematea. Bere amets guzia orixe da.

–Ez nin uste orren beldurtia intzanik. Zapelatza-  
ren aurrean oilloa dirudik.

–Gogorregi mintzo zera. Ausartegi ta sinisbera ez det izan nai. Zure lekuan banengo, urrena azaltzen danean, ispiari bezela bi tiro emango nizkioke, eta etsai bat gutxiago gureztat.

–Ea bi tiro oiek iretzat izaten diran –erantzun zidan.

Elkar izketa au entzuten zeudenak kapitanari zorrotz begiratzen zioten; ta au, aurreraegi sartu zalako, zerbait larritu egin zan.

–Zergatik? Egia garbi esan detalako? Ez det zu ere orren sarean erortzerik nai. Orregatik ari naiz orrela, zu jakiñaren gaiñean jarri nairik. Ni soldadu soil bat besterik ez naiz –esanta, aldegin nuen andik, egoskor arekin etzan batere arritzekoa ta.

Teniente ta agintari geiago bazeuden an entzuten. Baiña susmur txarra artu zioten beren kapitanari. Orduan, ixillean tenienteak deitu niñun, eta ala esan zidan:

–Bai al dakik zer egin dekan?

–Bai, jauna. Ondo alare. Alde batera seguru nago gezurra dala, ta billaukeria. Bakarrik joateko esan balida, joango nintzan zer ikusi. Baiña beste lau, eta nerekin bost, eriotzara ez ditut eramango. Ori egin baiño lenago jarriko det nere burua pusillen aurrean. Eta, baimena ematen badidazu, arrats ontan bertan joango naiz, egia dan edo ez jakitera.

–Eta noizko etorriko aiz? Ez dezala kapitanak ire utsuna oartu.

–Ez banaute arrapatzen, biar goizerako emen naiz. Nik ez dizut esaten kapitana billaua danik, baiña sinisberegia. Ondo baidakit ispi orren berri.

–Joan adi. Nere iritzian, askoren bizia zegok emen arraixkuan.

Arrats artan bertan joan nintzan, baiña alkatearen etxera. Erantzun au eman zidan:

–Joan Manuel, arraixku txarrean abil, ispitzan ari aiz ta.

–Alkate jauna, ni ez nabil ispitzan. Bizia darabilkit jokoan, eta seguru asko Prantzira pasako naiz.

Gertatzen zana kontatu nionean, ala erantzun zidan:

–Gezur borobilla dek ori. Erri ontara ez ditek iñongo karlista sonaturik ekarri. Baiña billaukeria izango dala esateko nere arrazoiak badizkit. Ik esan dekan etxe inguru ortara soldadu batzuk ekarri dizkitek, eta gutxieneko ogeitik gora, ezkutuan. Badakik: au jakingo balute, pusillatu egingo niotekek. Orregatik, ez adilla berriz etorri, salatzeraz beartua negok eta.

–Orixe jakin nai nuen. Eskerrik asko eta barkatu. Guda au bukatu artean ez naiz berriz azalduko.

Goizerako, iñor oartu gabe, konpañian nengoen. An ikusi niñunean, tenienteak beregana deitu ta ala galdetu zidan:

–Izan al aiz beste alde ortan?

–Bai, jauna. Atzera-aurrera egin det.

–Bejondeikela, motell. Ez dek lan ortarako gutxi balio. Zer berri dakarrek?

–Erri artan ez dala karlista sonaturik sartu. Baiña

soldaduak bai, eta oraindik an daudela. Alkateak esan dit au. Baiña geiago ez azaltzeko. Bestela, baitu egingo nauela. «Ispitzan ari gaituk. Au nere lagunak jakingo balute, pusillatu egingo niotekek». Orain daukagu guk jetxi ta oiek arrapatzeko egokiera.

–Ez. Kapitanak agindu bear dik. Etzagun geiegi zirikatu. Iri, berriz, aolku bat emango nitek: obe dek konpañi ontatik aldegin. Bestela, berak edo besteren baten bitartez garbitu naiko au.

Arek ori esan zidanean, bereala galdu nintzan andik.

## GUDAKO LEGEAK

Tenienteak eman zidan aolkua ontzat artu nuen. Ez nintzan geiago aien artean biziko. Ez neukan billau baten eskuetan nere bizia uzteko gogorik. Berdin guda galdua geneukan, eta bere azkena ere ez oso urruti. Or konpon zitezela. Maritxuri bisitatxo bat egin nai nion lenengo, eta Prantzi aldean ikusiko nuen guda txoro aren azkena.

Iñori itzik egin gabe aldegin nuen. Lagunik mai-teenak ere ez baintuen agurtu. Banekien, arrapatzen baniñuten, ispitzat artu ta pusillatuko niñutela. Zema-ori egin zidan alkateak, eta arrazoi osoa zeukan ortarako, bera ere estuasunean jartzen bainuen, guda-ko legeak zorrotzak eta gaiztoak dira ta.

Ez neraman, noski, arrapatuko niñuten beldu-rrik. Orduko pusillak motelak eta tiro bakarrekoak baiziran. Zizpunak edo laputxak, lenengo tiroa utse- giten bazuen, bigarrenerako ezkutatuko nintzan. Mendi alde aietan armadun gutxi ibiliko zan gaiñera, eta bertakoak geienak karlistak ziran. Alare, ez nen- torren esku utsik. Baionetaren antzeko puñal zorrotz bat banekarren. Eskerrak ari salbatu nuen nere bizia.



Ez dakit nondik, baiña bazekiten nere berri. Mutil zaarra, beste lagun gazte batekin, bidean zai neukan jarria.

Gurdibidea utzi ta mendi aldeko bide txigorra artu nuenean, eta Maritxuren etxea baiño berreunen bat metroz beerago, txaran gora ninjoala, biak batera erten zitzaizkidan, puñal zorrotzez armatuak, bi aldeetatik, ni erdian artuz, iltzea baiño geiago pentsatzen ez nuen orduan, Jainkoa beste lekukorik gabe. Nik orduan ala uste nuen beiñepein.

Bat-bateko erasoak ez dakit nola ez niñun naastu, eta zer egin ez nekiela utzi. Ordu estua zan ura. Alare, bereala arraixkuaren jabe egin nintzan. Artu nuen puñal zorrotza eskuan, ta igesari eman nion.

Larri aldi artan bururatu zitzaidan erromatar batzuei gertatua. Iru-irutara egin zuten guda, anai irukiak beste iruki batzuen aurka. Lenengo erasoan, iruki bateko bi il ta bakarra geratu zan. Baiña onek igesari eman zion. Atzetik zetozkion iru anaiak berezi ziranean, banaka-banaka irurak il zituen. Nere salbamera ere ortan zegoen: biak berezi.

Itxu-itxuan asi zitzaidan atzetik mutil zaarra. Ez, ordea, bestea. Askoz gazteagoa izan arren, atzera geratu zan. Amar metroren aldea artu zionean, eraso nion lenengoari. Sekulako puñalada eman nion biotz-biotzean. Ez neukan txorakeritan ibiltzerik. Karraxi zorrotz bat egin zuen, eta seko illa muturka nere gaiñera erori zan. Besteak, ori ikusi zuenean, igesari eman zion. Bere lagunari egindako billaukeri garbia. Nik ez dakit nola bero artan ez nuen nabaitu mutil zaarrak ere eman zidala beste zastakoa. Azal samarra, baiña minbera, gaiñera erori zitzaidanean egiña. Odola neriola exeri nintzan, eta nekarren sudur zapi batekin estali nuen zauria, odol jariora gertzeko.

—Oraintxe ederki geratu nauk. Beste aldera joaterik ez, egunez beñepein. Nere etxea etzeukat urrun, baiña ara orduko odol ustuko nauk.

Maritxuren etxeakoak, berriz, ez nituen jarriko estuasun artan. Illa aurrean neukan. Iñon ezkutatzetik ez.

Nolako joera artu ezin erabakirik nenbillela, azaldu zan aingeru goardakoa. Jakiña, arek dena ikusi zuen. Gora zetzozela somatu zituen, zugaitz artetik atera ta puñal zorrotz bana eskuan mendi aldera, bat iges ta bestea segika. Alako buelta bat emanta, sekulako zastakoa nola eman zion jarraika zijoanari; eta karraxi zorrotz bat egin ta nola erori zan illa. Beraren ustez, berriz, iltzaillea bere ondotik igaro ta ezkutatu zan urrunean. Bi eskuekin begiak estaliz, berak ere oi u egin zuen:

—Au ere nik ikusi bearra al zan: gizon batek bestea orren ajola gabe iltzea? Txakurrak berak orain arte errespeto geiago daukate!

Ill a amilka-amilka bidera erori zan. An zegoen odol putzuan ortzaz gora, bere puñala oraindik eskuan zeukala. Ikusi zueneko eta ezagutu, beste karraxi bat egin zuen:

—Mutil zaar gizarajoa!

Eta, berriz begiratzeko ausardirik gabe, aurrera zijoan, exeri ta zauritua zegoen irugarrena ikusi gabe.

Oartzeke joango zala, ta beldur orrekin, nere larritasun guzien gainetik, geiegi izutu etzedin, patxaratsu deitu nion:

—Nora zoaz, nere aingeru goardako ori? Emen nagoenik ez al zera oartu?

Abots ura ezaguna zuen eta oi u egin zuen:

—Joan Mañuel!

Aingeru goardako ori, astoarekin kaletik zetorrena, Maritxu izaki.

–Baiña zer egiten dezu zuk emen? –erdi negarrez galdetu zidan.

–Ikusten nauzu: zauri bat egin didate, eta odol jarria ezin aterturik. Mesedez abisa iezu nere gurasoei, zauritu ta odol jario non nagoen.

–Bearrezkoa al da ara joatea? Gurea ez al da etxea?

–Bai. Ala da. Baiña ni ez naiz emengoa, eta ezin jarriko zaituztet estuasun ortan. Badakizu, gaiñera, zure aitak ez nauela begi onez ikusten.

–Asarre guzien gaiñetik zaurituaren bizia da leenengo. Utzi txorakeri oiek eta atoz nerekin gure etxera –eskumuturretik artu ta zutitu eraziz.

Nik zer egin bear nion? Maitatzen utzi. Ez nintzan, bada, eztabaidan asiko. Norbaiten laguntza bear nuen, ta bere naia egiten laga, eta atsegiñez. Astoa aurrera bota eta, besotik artuz, bere etxera eramán niñun.

–Eta zer gertatu zaizu? –galdetu zidan.

Itzez-itz gertakari guzien berri eman nionean, izutua ala zion:

–Obe dezu deabru oiek utzi ta emendik alde egin.

–Zuri bisitatxo bat egin ta asmo ori neukan.

## PRAKAK NORENTZAT?

Beso bat Maritxuk artua, bestea berriz odol jario asteko beldurrak zauria estaliz, aitak ikusi giñun lenngo. Len sukaldean sartzen utzi ez bazidan ere, oraingoan oso maitekor artu niñun; eta arrituta ala galdetu zion alabari:

–Nor dakartzu onera, Maritxu?

–Ez al dezu ikusten? Joan Mañuel saskigillea. Or arkitu det zauritua.

–Zer gertatu zaik, motell?

–Mutil zaarrak eta bere lagun batek bidean eraso didate, eta nik ere nere bizia babestu egin det. Erramonen anai orrek eman dit zastako au. Baiña bera, luze ainbat zabal or geratu da bide bazterrean illa, biotz-biotzetik eman diodan labankada batekin. Orduan laguna igesi joan da.

Bazirudien Pello poztu egin zala. Zer ote zuten aiek elkarrekin?

–Berri au, aita, ez dedilla etxe ontatik atera: Joan Mañuel emen dagoenik. Ustu zazu mesedez asto au. Sendagillea deitu bear det.

–Garai ontan etorriko al da?

–Sendagillea? Bai, bai, zalantzarik gabe. Len ere esan dizut: ez dezala inork jakin au etxe ontan dagoenik. Nik dena ikusi det, eta utzi nere esku. Konponduko naiz epaillearekin ere.

Eta zuzenean sendagillearengana joan zan.

–Eta nola gertatu zaik ori? –galdetu zidan Pellok.

Nik, beraren alabari bezela, dena kontatu nion.

–Arraioak aleenak! Erru guziak berak dizkik, eta arrazoi balu bezela zebillek. Beldurrak bizi bazan, joatea zin emendik, eta kito. Bere guda zikin orrekin ez al da oraindik aspertu mutil zaar ori?

Ordu erdi baiño len etorri zan Maritxu sendagillearekin. Erri ondoan baizegoan baserria. Ordurako, txetasun guziekin kontatu zion bidean gertatu zana eta berak ikusia.

Agurka asi bearrean, mazal-mazal, medikuak, ura ere karlistetakoa baizan, ala galdetu zidan:

–Mendi alde oietan ez al zegok atsegin?

–Ez an eta ez emen. Gureak egin du.

–Bai. Ni ere ortan nagok: azkenetan dagoela.

–Billaukeria ta lapurreta besterik ez dabil gurean. Bestean ere ala ibiliko dira. Euskalerrri guzia agortu dute.

–Jakiña. Gudak ez dik bein ere alderdi onik.

Zauria ondo-ondo aztertu ondoren, ala esan zidan:

–Aurrerako aiz, motell. Zauri au oso azala dek. Bereala sendatuko zaik. Baiña ondo garbitu ta lotua eduki. Onek ez dik besteren bearrik.

–Eta zer egin bear degu ildako orrekin? –galdetu zion Maritxuk sendagileari.

–Epailleak abisatu arte, nik ezer ere ez. Sendagi-

ilea naiz, ta ez salatzailea. Ortan zuek ez daukazute zertan sarturik. Ori bere anaiak egin bear du.

Gazta eder bat eman zioten eta kontentu joan zan, okerragotzen asten bazan abisatzeko esanez.

–Ni bakarra naiz emen lekuko. Zuek ez ezertan sartu, ez dakizute ta. Orain Erramoni abisatu bear diot. Nik ikusitakoa alegia, eta or konponduko da. Au gurekin dagoenik ez du guk beste iñork jakin bear –zion Maritxuk.

Ni saskigiñean aritu nintzan gelara eramanez. Iru edo lau bat egunetan gutxi ibiltzeko agindu zidaten, odol jarioa ez berritzeagatik. Baiña beti, poliki-poliki, zerbait ibiltzeko. Eta Goikoetxekoei abiso ematera joan zan Maritxu.

–Nik emen geratu bear al det? –galdetu nion Pellori.

–Eta billatuko al uke leku oberik? Ez dek gutxi egiten ixilik egotea. I lasai. I ez kezkatu. Alabak jantzi dizkik prakak, bai, ta egin dezala biotzak eskatzen diona. Ama-alabak ez aute gaizki zainduko.

–Eta ni emen arrapatuko baniñute?

–Eta zer: oien eskuetara eramatea nai al uke?

–Ori ez iñondik ere, gaizki ibiliko niñuteke ta.

–Beste biderik etzeukagu. Denok arraixku ontan sartu bearko diagu. Urrats ona emana zegok, sendagilleak bera ez dala naastuko esan ziguk eta.

–Eta nola ordainduko det nik au?

–Eskatu akiek ama-alabei. Lasa adi, bada. Utzi zagun dena Maritxuren esku. Bera jabetu dek, eta oiek agintariak iruzurtzeko gu baiño geiagoak dituk. Badakik, kaletik etorri ezkerro, zenbat atzera-aurrera darabilzkien?

Ni etzekoen borondatera geratu nintzan.

Goikoetxean ere, zer ikusi zuen ta zer gertatu zan kontatu zion Maritxuk Erramoni: bat illa utzi ta besteak iges egin zuela.

–Aspaldi ontan ori jana neukan, Maritxu. Bane-kien goiz edo berandu orrek gertatu bear zuela. Gaizki dabilenak gaizki bukatu bear. Elkarri billaukeriak egiñez dabilen lagunak ez dute azken onik izaten. Anaia det, baiña garbi esango dizut: ez dit naigabe aundirik ematen. Aurrak eta auen gurasoak ere arraixkuan genbiltzan orrekin. Epailleari abiso txiki bat egingo diot, bere illetak ordainduko ditugu, eta kito. Jainkoak zerua diola.

Maritxuk ordu pare batean dena martxan jarri zuen. Epaillearekin Erramon konponduko zan, anaia zuen ezkerero. Bera karlista zan, eta illa ere bai. Bere maitea salatu gabe konpondu zituen arazo guziak. Emakumeak berritxuak dirala diote, baiña ez denak.

Erramonek salatu zuen nola bere anaia laban-kada bat eman ta illa arkitu zuten. Epaillea bereala azaldu zan; eta, aztertu ondoren, gorputza jasotzeko agindu zuen.

–Iltzaille ori nor izan liteken badakizu? –galdetu zion epailleak.

–Bai, jauna: bere laguna. Arpegiz ikusi ezkerero, ezagutuko nuke noski. Baiña beste gaiñerakoan ez dakit izenez nor dan.

–Eta zergatik il bear zuen?

Erramonek dena jaulki zion, zeraman bizitza kontatuz.

–Orduan ez da batere arritzekoa. Gaizki dabilzenak azkenerako elkar iltzeraiño etortzen dira.

–Biak pekatariak, jakiña; baiña bat billaukeria egin zuena ta bestea onen iltzaillea.

–Eta inork ikusi al du?

–Bai, noski. Kaletik datorren neskatxen batek ikusi duela uste det, bere esne ta tratu pixarrak saldu ta etxerako bidean zala.

Ari ere bere galderak egin zizkion. Bai onek zekiena kontatu ere, eta epaille ta sendagillea etxera joan ziran.

Ordukoz beñepein batere gezurrik esan gabe bere biotzeko maitea babestu zuen. Gero gerokoak. Bein ura beste aldera joatean, etzion batere ajolarik.

Andik sei bat egunera etorri zan berriro sendagillea, ta berri onak eman zizkidan:

–Joan Mañuel, sendatua ago. Ondo garbitu ta lotua eduki ezkeru egun batzuetan, etzeukak gaiztotzeko arraixkurik.

–Orduan ni emendik joan ninteke?

–Bai, dudarik gabe. Baiña ez oraindik indar geiegirik egin.

–Joan Mañuel, inoren beldurrik ez daukak emen, eta beste bost egun igaro itzik. Orduan lasai joango aiz –esan zidan Pellok.

–Ondo esana, aita. Presaka ibilita ez dezala bere bururik ondatu –Maritxuk.

–Zuk prakak jantzi bear zenituzke –esan nion.

–Batek denetarako preparatua egon bear du –Maritxuk.

Ama-alabak biak maite niñuten. Jakiña, bakoi-tzak bere erara. Ondo zainduta egon nintzan. Abian, ala esan zidan neskak:

–Berriro ere bisitatxoren bat laxter egingo diguzu noski?



–Ez nuke nai ori, Maritxu.

–Amar egunean gure artean bizita aspertu egin al zera?

–Ez dizut alakorik esan. Nere iritzian, guda au laxter bukatu baida.

–Ai, Joan Mañuel! Orixe bai izango litzakela ona. Zerbait bai al dakizu?

–Ez diot iñori olako galderarik egin. Kontuz ibili bearra dago. Bestela, bereala ispitzat artu ta ormaren kontra eramango ziñuzteke. Ni orain arrapatuko banniñute, beltzak eta txuriak gaizki erabiliko niñuteke. Olako guda batek asiera ta bukaera izaten ditu txarrenak. Gure artean oraindik gudazale asko dago, asierako itxaropen ura uts atera zaienak, eta bizia salbatzekeroz emendik anka egin bearko dutenak. Edozer sarraski egin ta aldegiteko asmoan, asarre xamar somatzen ditut. Batez ere, agintari oietakoak. Oiek bai zerbait badakitela. Laugarren urtea aurrera dijoa. Gu, berriz, auntzak bezela, mendi muturretan, zer eskatzen degun ere ez dakigula, eta etsaiak inguruan. Egiten degun guzia beti atzeraka. Orrela ezin gentzake luzaroan iraun.

–Orduan, gure aldekoak irabazteko itxaropenik ez.

–Asi giñaneko bagenekien ez geneukala ezer egi-terik, España guziaren aurka bost katu besterik ez giñan ta.

–Dana dala, atozte lenbailen etxera. Bestela, beti itxogiten, atso zaar biurtuko gera alperrik, zuek noiz etorriko.

–Maitasunik ez da zaartzen, Maritxu, egitazkoa bada beiñepein. Bitartean, geldi-geldi asi giñezke arrioa preparatzen.

Onek gozoro par egin zuen.

–Maitasunik ez da zaartuko. Gu bai, ordea. Gaurko egunean arrioa preparatzen ez da erreza izango.

–Ernioko arkaitzetan ere gu biok aterako genduke bizimodua.

–Bai orixe. Kabi goxo bat ona da, baiña neretzat txori maitagarri bat oso bearrezkoa.

–Nere biotzak ez luke emendik aldegin nai. Baiña joan bearra daukat. Bestela, emen arrapatzen banautete, Joan Mañuelik gabe geratuko zera.

Noizbait agurtu giñan. Bat, berri on aiekin poztua, udaberrian txoria baiño alaiago etxera. Bestea, berriz, ametsetan. Baiña erne, etsaien eskuetan etzedin erori. Nere artean onela nion: «Geiegi arraixkatu det. Au izango det azkenekoa. Ez nuke txoririk galdu nai, gero ta ederragoa iruditzen zait eta».

Len askotan ibilitako bidean barrena, gordean eta ixilik, arratsean igaro nintzan beste aldera, guda bukatu arte beltz erriari agur egiñez, baiña bai txurriari ere. Biak etsai biurtu zitzaizkidan. Prantzira joango nintzan.

## AITA MARKESA

Maritxuri esan bezela, Prantzi aldera egin nuen txangoa, guda bukatu arte ez etortzekotan. Ezer ez irabazteko, zergatik bizia arraixkatu?

Emendik iges egindako asko arkitu nituen an, naiz txuri edo beltz, denak guda segurutik ikustera joanak. Batzuekin bai itzegin ere, eta denen iritzia au zan: guda bukatua zegoela; goikoak bazekitela, baiña legez ez oraindik. Orixe palta.

Gudaroztean zebillen gazte euskaldun arrunta piña zala, eta oiek eusten ziotela. Baiña gaiñetik zebiltzan gudalburu oiek, geienak paltsoak. Gutxiena uste zanean Judasena egingo zutela: billaukeria. Oien alde bizia arraixkatzeak etzuela merezi. Ori zan geien iritzia.

Xox batzuk irabazteko asmoan igaro nintzan beste aldera.

–Irabazi? Leku onera ator. Ekarritako xox pixararak txautzeko ere bizimodu obean gabiltzak. An edo emen billatzen diagu lana, baiña jan truke. Ortatik ere eskas. Emengo jendea euskalduna dek, baiña bai

zurra emateko kontuan. Gu iges gabiltzan auekin aukera zeukatek: langille merkea.

Iru edo lau egun lan billa igaro nituen, baiña alperrik. Neramazkien xox pixarrak jan besterik ez nuen egin. Saskigintzako lanik ere ez.

Berriro alde ontara sartzeko asmoan nenbillela, jakin nuen Baionan pillota partidu bat onenetakoa jokutzen zutela Ipar Euskadin ziran aukeratuenak. Ni ere, berriz, zoratua nintzan ortarako. Len eduki nuen aita markesa ere txapeldunetakoa izan omen zala. Arek sartu zidan zaletasun ori. Partidu uraxe ikusita etorriko nintzan Bidasoz onuntza berriro.

Ara joan nintzan, bada, egun zital aietako ix-tilluak zerbait aztutzeko. Asi baiño lentxeago sartu nintzan. Jakiña, etzan gaurko egunetan bezelako oiurik. Gaur apustu zaleak iskanbilla besterik ez darabilkite.

Gizon dotore ta bikain bat ikusi nuen nere ondora etortzen. Oraindik sasoikoa eta nere ezaguna. Gero markes baten alabarekin ezkondata, baiña pillotarako eraspén ta zaletasunik etzitzaion joan. Nik laxter ezagutu nuen. Gero, serio-serio, aurrera begira jarri nintzan, pillotarien jokora. Aldamenekoak ere, ordea, burua eragin, dardar oietakoa zirudien. Maiz begirutzen zidan neri. Nik ere berdín egiten niola oartzén zanean, zuzentzen zuén burua. «Onék ere bere zalantzak badizkik» nion nerekiko.

Azkenean, nik eman nion ezaguera, beste bazterren batera joan baiño len:

–Kaixo, Joxe Mari, garai bateko nere aita markesa. Zuk ere gaur emengo aldi.

–Joan Mañuel aiz i? –galdetu zidan atsegiñez.

–Uraxe berbera –erantzun nion.

-Ekatzak, motell, bosteko ori.

Esku emanez:

-Ezin ninduzun ezagutu.

-Ez ondo. Ik aldaketa aundia egin baidek. Antza ematen nin, baiña seguru jakin gabe ezin ausartu. Egundoko animalia egin aiz.

-Bai; gurasoetatik. Ernio aiñakoak badira aiek ere.

-Mendi oietan aritzak aiñako zangarrak azitzen dituk, bai.

-Eta ez al zaude nerekin asarre?

-Asarre? Etzekit zergatik.

-Iges egin nuelako.

-Arrazoirik ez nitek izango. Pekatua guk egin genin; ez ik. Bein ire egitazko gurasoak ezagutu itue-nean, aiei laguntzera joatera beartua engon. Naigabea bai; izugarria eman iguken. Emaztea bein baiño geiagotan somatu nin negarrez. Landare bikaiña entorren, zintzoa, jatorra, buru argikoa, guraso maitalea. Amar urtean ez igun naigaberik txikienik eman. Benetako maitasuna artu genin. Baiña len ere esan dit: arrazoa irea dek. Orain arte beldurrak ibili gaituk, ik salaketaren bat egingo igulakoan. Bizi baintzan beiñepein, zigorren bat polita emango ziguteken. Baita gure izen garbia betiko zikindu ere.

-Ez niñuzuten ondo ezagutu. Joan Manuel ez da olakoa. Nik ez diot iñori kalterik egin nai. Egin badiot ere, nere burua babesteko.

-Beste kezka gaizto bat ere eduki diagu gaur arte: ez ote intzan gure erruz bazterren batean galdu. I emen ikusiarekin lasaituko gaituk. Bazekiagu bizi aizela, ta etzeukagu gaiñera salaketa gaizto baten

beldurrik. Emaztea ere benetan poztuko dek, berri au jakitean. Nola antz eman ion gure semea ez intzala?

—Sei urte sei urte dira. Nik urbil xamar neuzkan, baitu niñuzutenean. Eta ordurako oroitz asko sartzen dira baten buruan eta biotzean. Kolejioko oillar batekin burruka egin nuenean sortu zitzaidan lenengo zalantza. «Oiek ez dituk ire gurasoak» esan zidan. Arek ortaz zerbait bazekien. Ni ez niñun, bada, onttoa bezela jaioko. Oldozpen oiek nerabilzkiela, barru-barrura sartu zitzaidan gure maisuen artean entzun nuen itz bat. Ernio alegia zan ori, gure auzoko mendi zakar bat. Bereala oroitu nintzan aitonak bein nola eraman niñun ni ara. Arek, bere guruzbidea egin ondoren, beste zeremoni batzuk egin zituen gero, eta uztai batzuetan igaro, gerritako miña kentzen omen zutela ta. Nere artean onela nion: «Nola liteke ori? Onera baiño len nonbait izan nauk orduan». Artatik asi zan guzia. Azkenerako, garbi-garbi igerri nion angoa nintzala ni, eta joan egin nintzan. Kontrabandista batek lagundu zidan etxeraíño.

—Ez dakik nolako ixtilluak erabili giñun ire billa. Baiña ixilik, zigor gaizto baten beldurrak. Azkenean etsi genin, nonbait galdua izango intzala, i berriz gure begien aurrean jarriko intzan itxaropenik gabe. Zenbat urte dituk aldegin uala?

—Zazpi urte laxter.

—Alare, ezagutu aut.

—Onezkero besteren bat ekarri dezute.

—Ez diagu bearrik izan. Etsi ta gero, seme-alabak izan dizkiagu. Landare bikaiñak zetozek gaiñera.

—Bejondeizuela. Ez dakizu zer poza ematen didazun. Orduan, garaiz aldegiña asmatu nuen.

–Etzekit ori asmatu uan edo ez. Guri buruauste bat gaiztoa kendu iguken. I gure semea intzalakoan seguru egongo intzan. Guk, ordea, bagenekiken ire berri. Alare, i gazte jatorrenetakoa ta guraso maitalea izanagatik, ezin botako iñugun aurrera, gure odol-lekoak atzera utzita. Nai ta nai ez –zaarrena semea diagu– ura geratuko uan ondorengo. Iri esan egin bearko genin ez intzala gure semea. Bestela, gure lana ez uan ulertuko, zergatik atzera uzten iñugun. Asarretuta aldegingo uan betiko. Ortan etzegok ez-bairik. Orduan naigabea eman baigun, orain, bizi aizela jakitean, benetan pozten gaituk.

–Ori da Jainkoak lerro okerretan badakiela txuxen idazten.

–Gure arazo ontan beiñepein bai. Nola bizi aiz orain?

–Bi aldeetatik igeslari. Gure teniente egiten zue-nak aolku au eman zidan: «Obe dek emendik aldegin. Bestela, gure eguntariak, kapitanak, garbituko au». Eta guda txoro au bukatu arte emen nauzu.

–Eta kapitanak zer zeukaken i il erazteko?

–Billaua da noski. Ango mutil zaar baten lana da, ordea. Etxera ninjoala, bidera erten zitzaidan lagun batekin, ni iltzeko asmoan. Baiña biotz-biotzetik sartu nion neraman puñala, eta nere oiñetara erori zan illa. Nik ere maite det nere bizia. Gudaren lanak! Orregatik, guda bukatu arte nabil emen. Maiorazkoak Ameriketara aldegin zuen, eta ni geratu naiz oiñordeko. Markes baten semea artzai, txondor jasotzaille ta saskigillea, ez al da naiko parragarria? Alare, legoi isatsa baiña katu burua izatea obea omen da. Konforme bearko, baiña ia lau urte auetan etxetik kanpora nabil gudan.

–Eta baitu iñuten oietakorik ezagutzen al dek?

–Nai nuke, baiña seguru esateko ez dakit nor dan edo diran. Il nuen mutil zaar ori baliteke bat ala izatea. Baiña ez det besteren berririk –esan nion zer atera.

–Eta nor diran baenkike, zer egingo ieke?

–Nik ezere txarrik ez. Etzidaten kalterik egin. Bestela, ezjakin bat izango nintzan, nere erri aldean geienen gisa. Eta ori, aiei eta zuri esker.

–Nik etzekit nor diran. Baiña nere ordeko joan zanak, eta etxeko martxa daraman diruzaiak, jakingo dutela uste dit.

–Orixe jakin nai nuke, bada.

–Amar urtean bizi intzan etxera joaten baaiz, an-bat ikasiko dek.

–Eskertuko nizuke ori benetan.

–Ire esku zegok. Baiña lanerako ire gurasoak esku paltarik ez ditek edukiko.

–Ez. Aita oraindik sasoikoa, aitona ere or non-bait, ama ta nere iru arreba, etxeko martxa eramateko aiña langille badaude. Ondo moldatzen dira. Aita liberal bero oietakoa det, eta larri ibilia da. Nik salbatu nuen.

–Eta zergatik jazarmen ori?

–Nik salatuko ditudan beldurrak edo... Baiña nor diran ez dakit.

–Eta guda au irabazteko itxaropenik bai al daukazute?

–Asterako ere banekien ezetz. Auntzak bezela mendi muturretara bota gaituzte. Etsaiak, berriz, erri aundi guzien jabe.

–Ortan arrazoi daukak, Joan Manuel. Lenengo



gudatean, karlisten gudalbururik piñenak Lizarran pusillatuta, bi aldeetako buru ziranak Bergaran besarkatu ta bukatu ziteken itxura gabeko elkar iltze ura. Erru zutenak aske geratu itun, billauak ziralak, ainbeste astokeri egin ta gero. Pin jokatu zutenak, berriz, espetxera edo iges egin bear. Oraingo au ere anbat ortara bukatuko dek. Gutxiene uste dezute-nean, besarkadaren batean bilduko dituk bi etsaiak, eta bi alderdiak etsaien eskuetan geratuko zerate.

–Ortarako al gabiltz, ia bost urte auetan gudan, gero untxiak bezela plazan saltzeko? Amaikak armen aurrean erori bearko du, eta ori merezi lutekenak danen gaiñetik agintzen.

–Zuek bezela pin ibilientzat negargarria. Alare, lenbailen bukatzea obe dezute. Mendi oietan berdin ez daukazute zer egiñik. Denbora galdu ta erria lur jota utzi. Gudate orrek etzeukak anka ta bururik. Ori, pakean ezin bizi diranen lana dek.

–Aspaldi igerri nion nik orri. Orrela ibili baiño obe degu, galduta bada ere, gure famelietara bildu. Ea gure bizimodua martxan jartzen degun, Euskalerrriak ere euskaldun eta bere buruaren jabe bizi nai luke baiña.

–Neri ere min ematen zidak zapalketa orrek. Ezkondu al intzan?

–Ez, eta obe biontzat. Bestela, onenbeste urtean, berezketa negargarri ta luzeegia izango litzake. Zauritu ta sendatu arte, beren etxean ezkutatu niñuten. Beeraxeago egin bainuen nere burruka. Maritxu ango alaba daukat itz emana. Neskatxa zoragarri bat, txintxo ta maitalea. Izan ere, markes baten semeak nola ez du bereganatuko baserriko neskatxa simple ta ezjakin bat? Oraingo guda au bukatu arte itxogingo al diogu elkarri.

Ateraldi oni par egin zion markesak.

–Umore onekoa aiz beiñepein, eta orrek ez dik gutxi balio. Mundu au lasai igaro nai badek, broman artu bearra zegok. Ondo pentsatua ori. Anakak lurrean darabilzkik. Arazo guziak martxan jarrita ere, bere garrastasunak badizkik ezkontzeak. Emazteta-rako emakumerik onenak baserrietan arkituko dituk.

–Nik beiñepein, nitzaz aztu ez dedin, bi edo iru bisita egin dizkiot. Saskigintzara joan nintzan batean ezagutu nuen; eta, esan dizudan bezela, andik nator, nere bizia arraixkuan jarriz, etsaien lurra igarota.

–Beldurgarrizko lana dek ori, motell.

–Bai; baiña beti bakarrik.

–Ez adilla geiago joan. Guda azkenetan zegok. Arrapatuko baiñute, badakik ire andregai goxo ori beste norbaitentzat geldituko litzakela.

–Baldinbetan Jainkoak ez dezala nai olakorik!

–Utziogun elkar izketa oni pakean. Irekin izan naizela jakitean, nere emaztea bai benetan poztuko dala. Asko maite iñun. Nonbait galdu ote intzan kezketan zegok oraindik ere. Eta zergatik ez auten eramane esango zidak.

–Bai, ta nik ere pozik itzegingo nuke arekin. Amatzat baineukan. Len ere esan dizut gudatik iges eginta natorrela. Bukatu arte ez nuke joan nai. Bi aldeetan baidauzkat etsai gaiztoak. Emen lana billatu nai nuke, xox batzuk irabazteko asmoan etorria naiz ta. Orrenbeste urte galdu ta xentimorik gabe ezkontzera joatea ere... Andik ez dago itxaropenik. Lur jota utzi dituzte baserri guziak. Emen lana eman-go dizute, baiña jan truke.

–Aizak: ori besterik ez bada, lana nik ere emango nikek. Baita ordaindu ere beste langilleei ainbeste.

–Baiña urruti egongo da lantegi ori?

–Ez, motell. Euskalerrriaren barruan.

–Bai ta pozik joango naiz guda au bukatu arte. Eskerrik asko eta ez diot iñori esango zure semea naizenik.

Pillota partidua bukatu zan biok izketan ari giñan bitarte, eta markesak berarekin eraman niñun.

Bigarren ama ara etorri zitzaidan, eta musuka artu niñun.

–Ai zer nolako mutil gazte bikaiña zaudena!

–Bai al dakizu gure esaera zaar au: nolako enborra, alako ezpala?

Poza eta lasaitasuna eraman nituen aien etxera. Orain bazekiten bizi nintzala. Ezkontzen giñanerako erraztun eder bat ere eman zidaten emaztearentzat.

Saritzera etortzen zan gizonari galdetu nion ea ni baitu niñutenen izenik bazekien.

–Bai –erantzun zidan.

Denen izenak artu nituen. Il nuen mutil zaarrarena bat, eta bestearenak. Naigabetua utzi niñuna nere andregaiaren aita zan, mendira noala baitu niñuna, nere aitaren lagunik maiteenetako bat. Jendearekin pia zaitte! Maritxuri ori esaten banion, goxoa jarriko zan.

Markesaren mende antxe igaro nituen urte ta erdi. Diru mordoska bat bai aurreratu ere.

## ETXERA BIURTZEA

Igerri bezela, iritxi zan gudaren bukaera. Bi aldeetako goikoak ondo geratu omen ziran. Beren buruak salbatu zituzten. Baiña al zuten guzia pin jokatu zutenak, apalik. Arazoak konpondu bitarte, iges ibili bear. Galtzen duenaren martxa ori da beti.

Baserrietako jendea benetan poztu zan. Ea etxe-ko martxa eramaten uzten zieten, eta palta ziranak etortzen ziran.

Ni ondo ari nintzan lanean. Diru mordoska bat aurreratu ere bai. Ta guda bukatu ta lenengo illebe-teak aztu bitartean, beste sei illebeta igaro nituen markesaren mende. Naiago nuen seguru etorri; ez presaka.

Itzuli ziranak ere apal asko agertu omen ziran, arrokeri geiegirik gabe, galdu baizuten, bazter guziak ondatu ta gero. Etsaiaren begiratu artoa ikusiz buru makur, oiek sartu baiziran lekurik erosoetan.

Palta ziran etxeetan bai arrera ona izan zutela. Ongi etorri beroa. Oiek etzeuden gudarekin itxututa. Bizi bearrak lanak ematen zizkien.

Etxean nere berririk etzuten, ordea. Gurasoak

berak ere naiko kezketan zebiltzan, Prantzirako sarrean arrapatu ta ez ote niñuten illa izango. Bestela, guda bukatu orduko etorria bearko nuela. Andregai gaixoa ere urduri eduki nuen. Etzekiten zer gertatuko zan. Nere berririk ez baizetorren iñondik. Sei illebeteren gora-beeragatik abisorik bialtzea etzitzaidan oroitu. Baiña zai neuzkan maiteentzat epe luzee-gia izaki ori.

Etzekoei galdetzen omen zien Maritxuk. Au ezin zan lasaitu. Eske onak bai omen zituen. Baiña nere berri seguru jakin gabe etzuela beste iñorekin asi nai.

Etzekoen erantzuna etzan besterik, denak zekite-na baizik: guda bukatu baiño urte bat lenago Prantzi-ra iges egin nuela, ezkontzerako xox batzuk irabazteko asmoan. Aiek etzekiten geiago. Berak ere kez-kati xamar bizi ziran.

—Ea berriro len eduki zuen markesaren etjera joan zan —zioten.

Maritxu ere larri omen zebillen, il ote niñuten, edo zapuztu ta aberatsagokoren batekin ezkondu. Neregatik ainbeste arraixku igaro ta gero, polita izango litzake ori. Ala egin banuen, epela sartuko niola, bere arrio pixarra ere preparatua zeukan ta.

Ni, ordea, ez nengoen aztuta. Bai-bainekien neregatik supritzen biziko zirala.

Illunabar batean azaldu nintzan etjera. Ango goi-bela argitu nuen. Beren ongi etorria ta kezkek agertu ondoren, aitik ala esan zidan:

—Diru pixar bat egin nai badek, motell, nonaitik bazetorrek saskigintzarako eskea. Beste batek aurea artu baiño len asi bearko dek.

Amak, berriz, oso serio:

—Maite autenen biotzik ez dek orrela edukitzen

kezketan, Joan Mañuel. Ez badek betiko Maritxu galdu nai, mugitzea al dek. Ikusten nauen guzietan erdi negarrez ire berririk bai al detan galdetzen zidak. Guk oraindik ezer ez dakigula entzutean, onela esaten dik: «Illa izango da, edo beste norbaitekin ezkondua. Zerbait pentsatu beariko. Ezin ninteke zailantza ortan aren zai bizi».

–Aitaren ta zure eskariak laxter beteko ditut.

Etzitzaidan bein ere Maritxurik aztu. Etxekoekin bukatutakoan, txuxenean ara joan nintzan.

–Bazenduen ordu –erritan asi zitzaidan, bere ongi etorri maitagarria egin ondoren–. Beste guziak azaldu ta zu palta. Abiso txiki bat biali ere ez. Naigabetua emen eduki nauzu urte ta erdi auetan.

–Ezkondu baiño len erritan asten bazera, gero nor konponduko da zurekin? –erantzun nion parrez-parrez.

–Ez, Joan Mañuel. Ni ez naiz erritan ari. Au ez da nere kezka bat agertzea besterik. Illa izango ziñalakoan beldurak eduki bainauzu.

Antz eman nion ez niñula nolana maite, eta ari min emanak naigabetu niñun.

–Barkatu, Maritxu. Dena bion onagatik egin det. Ondo irabazten nuen, ta xox batzuk ekarri nai. Berdin gure baserriak martxan jarri badira ere, lur jota dago gurea. Zuena ere bai noski. Ortik zerbait etorriko zaigun itxaropenetan ezin giñezke egon.

–Bai. Orixe da egia. Bizi ta jazten gerala; emen ez dago besterik.

–Nik mordoska bat ekarri det, nere bigarren guraso markesak beren etxean eduki naute ta. An egi ten nuen lana. Mantenua ta sari pixar bat ematen zidaten. Ezkondu al nintzan galdetu zidan ama mar-

kesak. Ezetz erantzun nion. Guda bukatu zai nengoela, auzoko neskatxa zoragarri batekin ezkontzeko asmoan. Andik erteeran, bada, eskupeko on bat artu nuen ango amaren eskutik. Au dena zuregatik egiña det. Zu zenbiltzan nere buru ta biotzean. Baiña abiso txiki bat ez bialia gaizki egin det.

–Illa edo ango aberatsen batekin ezkondua izango ziñala, ori zan nere kezka.

–Benetan ezagutzen zaitunak zu etzaitu utziko.

–Orain da ordua esaten dezuna erakusteko.

–Bai, Maritxu. Guda bukatu da, ta Jainkoak eraman nazala, beste olako bat ikusi baiño len.

–Ez dezu orduan atzera-aurrera orrela ibili nainko? –galdetu zidan Maritxuk, piakaitz ez ote nuen len aiña maite.

–Ez orrelakorik. Ogei ta sei urte ondo beteak dauzkat, eta gazte gerala ezkontzea ohea izaten omen da. Gu oraindik sasoian gaudela famelia azi. Eta, idiak bezela, burua makurtu egin bearko, uztarriari lotzeko.

–Uztarriari diozu? Ez al da ori ariña izango?

–Denetatik, Maritxu. Gabiltzan esna, eta oiñak lurrean ondo ezarririk, ametsen aizeak ez gaitzan eraman. Otz ta beroak, neke ta naigabeak, asarre zaputzak, osasunik ezak, askotan gabeziak eta gose-egarriak, uztarriari lotuta igaro bearko ditugu, gure borondatez ta maitasunez alorra urratu ta lantzen. Askotan, geiena maite zaitunak negar egin araziko dizu. Ez degu gurasoen ixpilluari begiratu besterik. Aiek daramaten uztarria astuna da. Maitasunak zerbait arintzen die. Alare, famelia azi duten ontan, lasaiago bizi dira. Gure izaerak berezkoa du ori. Jainkoak olakoak egin gaitu. Naiz suprituko degula

jakin, ta aske obeto biziko giñakela, alare ezkondu, bata besteenganako erakar indar orri jarraituz, bat egin ta fameli bat azitzeko alegia, zeruko txoriak bezela. Askotan, gure borondateak baiño indar geiago dauka orrek.

—Jesus! Nork ulertuko du zure izkuntz ori? Ezkontzeak dena ezkorra ote du mundu ontan, zuk diozun bezela, edo ez al du atsegin ta pozik edukiko? Badirudizu pauso ori emateko beldurrak zaudela.

—Beldurra? Asko pentsatzen duenik ez omen dala ezkontzen. Itxu-itxuan egin bear dan lana omen dala. Baiña nik ez nuke orrenbesterik esango. Alare, buruausterik pranko ematen dit. Nere kontzientziko dei txiki batek bultzatzen nau ortara: bearra nabaitzen det. Praille edo mutil zaar bakardadean bizitzeko ez niñun egin Jainkoak. Orregatik, lagun goxo bat aukeratu det. Aurrera, Maritxu, osasunak laguntzen badigu. Besteak aiña izango al gera gu ere. Baiña ez gaitezen ametsetan bizi.

—Ortan, Joxe Mañuel, arrazoi dezu. Bere atsegin ta nekeak izango dituela ezkontzak aurretik ondo pentsatzeak ez digu kalterik egingo.

—Nere ama markesak erregali on bat eman dit zuretzako, len ere esan dizut, eta nerekin dakart.

—Bai, zereko zure ama markesa! Nerea bezelakoa!

—Nik beiñepein garai batean ala deitzen nion.

Atera ta eskura luzatuz:

—Torizu erraztun eder au zuretzako. Uste det ondo izango dezula. Arentzat lasaiegia omen da. Oiek beatz meak eta guriak izaten dituzte. Baserrietan lanean ari diranak lodiagoak noski.

Beatzean sartu zuen eta ala zion atsegiñez:

—Badirudi neurrian neretzat egiña dala.



–Olako erraztun gutxi billatuko dezu gaurko egunean Gipuzko alde ontan.

–Ezkontzen geran egunerako ez dago gaizki. Baiña ni ez naiz onekin ibiliko, lotsatu egingo nintzake ta.

–Markes baten emaztea erraztun onekin ibiltzeagatik lotsatu?

–Bai. Markes ederra zaude zu. Ala izan baziña, etziñan nere atzetik ibiliko.

–Par egin dezagun. Nik beiñepein, Maritxu, ori jarriko dizut beatzean. Agur, bada; ta, dena bukatzerako, atzera-aurrera asko dauzkagu egin bearrak. Markesaren diruzaiak azaldu zizkidan baitu niñutenen izenak. Egunen batean esango dizut nor diran. Ia aztu nintzan esatea: biar zuen etxera nator saskigiñera, nere aitak artua omen dauka deia ta. An arazo auetaz itzegiteko naiko beta izango degu. Ez nauzute noski sukaldean artuko. Baiña badakizu zure aitak zergatik ukatu zidan ori?

–Nik? Zergatik, bada? Baiña jakin nai nuke baitzaille oiek nor diran.

–Negar egingo dezu, Maritxu.

–Ez dio ajolarik. Zuk esaizkidazu.

–Orretxegatik zure aitak ez niñun sukaldean artu nai izan.

–Orduan, nere aita da baitzaille oietako bat?

–Bai, zoritxarrez, Maritxu. Diruaren lanak. Pello Zugazti, Bartolome Goikoetxea, Erramonen anai mutil zaarra. Beste biak, berriz, Prantzi aldekoak. Baiña zin egidazu ez diozula aitari itz erdi bat ere esango. Bestela, sekulako atzeratuko litzaidake, eta etzaigu komeni.

Maritxuk negarrari eman zion. Lasaitu zanean:

–Bai. Joan Manuel. Ixilik gordeko det; eta, al badet, geiago maitatu ere bai. Baiña zuk sukaldean bazkalduko dezu.

## FAMELI BERRIA

Noizbait ezkontzeko lekua ta eguna aukeratu genituen errian bertan. Zertarako joan ots aundiko eliz oietara?

Gure etxean olako alaba berri bat artu baiño len, konponketa batzuk egin genituen. Ori beti nai ta nai ezkoa izaten da olako arazoetan.

Maritxuk ere preparatua zeukan eramango zuen arrioa, al zezakena. Guda ondo artan etzan erreza. Ezkondu baiño len, sartuko zan etxean egon bear zuen arrioa. Ori eramateko, bei edo idi parerik onenak, aundiz berdin xamarrek, margoz ere bai, estalki eder bana bizkarrean, garbi-garbiak, biak kopeteko banarekin ikusgarriak, kopetean beera kolore askoko parpaillak zintzilik, gurdia ere apaindua zer esanik ez. Txukun antolatua gaiñean zeraman zama edo arrioa. Zurezko ardatza jaboï pixka batekin igurtzia, txirrin bizi bat atera zezan, inguruko baserritar guziei adierazteko arrioa bazeramatela. Goxoa joango zan itzaia.

Entzuten zutenak ala omen zioten:

—Badarama gure Maritxuk arrioa.

–Etxe ortatik ezer askorik ez noski –esango zuen norbaitek.

–Utziote pakean. Gaizki esakak ez du ondo ematen. Guk ere zer geiago eramango ote genduke guda ondore ontan? –erantzungo zion besteak.

–Bera da ori, bera, arriorik onena. Pixua duen ainbeste urrerekin erosiko ez litzakena. Munduko arrio guziak baiño geiago balio du neskata orrek.

Gurdia, beiñepein, bere irrintzia lau aldeetara zabalduz, baserri batzuen atarietan barrena, iritxi zan bere lekura. Ondoren, laxter etorriko zan uxoa ere. Gure moldaketa guziak egin ondoren, iritxi zitzaigun eguna. Erriko elizan bertan, eta aste egunean. Ala aukeratu baigenduen. Biok, orduan eztaietara joaten ziran moduan azaldu giñan.

Jende gutxi generaman. Bear–bearrezkoak gaiñera. Ogeiren bat guzira, famelirik geienak lur jota geunden ta.

Markesak neri emandako erraztuna beatzean sartu nionean:

–Jesus! Orren ezta arlotea eta olako erraztuna erosi? Ori den dirua alperrik botatzea!

–Ez olakorik. Markes batek Joan Mañueli egin-dako erregalia omen den ori.

–Markesen artean ere ibilia al degu?

–Amar bat urtean beren semetzat eduki zuten beiñepein ta...

–Eta baserriko alaba arlote batekin ezkondu?

–Losintxaz betetako markes baten alaba baiño naiago det. Arek neskame bat bear du lanerako. Au bakarrik aski da.

–Baserri lanetarako ez ote du erraztun ori kenduko?

–Etzaio orregatik dizdiz ori joango, urre garbi-garbia omen da ta.

Ura beren beatzetara ez joan bearra, inbiri pixar bat zebillen.

Bukatu ta elizatik atera orduko, asi zan musuketa. Lenengoa, jakiña, neri eman zidan. Gero, bana-banaka, ara joan ziran guziei. Nik oitura ori, txarra edo ona, somatu det joan naizen eztaiz guzietan.

Bazkaldu ta gure eztaiz ondorengo txangoa egitera joan giñan. Ez noski egun askokoa ta urrutira egiña.

Fameli berrian sartzerakoan, eta ango alabatzat artu –une goxo ta gogoangarria izaten da ori–, berriro musuketa txiki bat.

–Zuri ere kosta zaizu orratik ezkontzea –esan zion gure aita zanak Maritxuri.

–Bai, orixe. Guda zital arek ditu erru guziak. Baiña oraindik ez gera zaarrak. Nik ogei ta bost urte, eta Joan Mañuelek ogei ta zazpi.

Bere sortetxe, guraso ta denak utzita, fameli berri bateko alaba egin zan.

Oso pozik artu zuten, bada, nere gurasoak alaba berria. Bai-baizekiten nolakoa zan. Ez emakume bearrean geundelako. Ama ta iru alaba zeuden etxean. Auek ere laxter asiko ziran beren bizimoduak aukeratzen.

Jolasak bukatu ziran. Laxter ikasiko genituen ezkontzak dakarzkien buruaustak, uztarripean eta bizimodu lotu batean bizi bearrak.

Gurasoen aldetik pakea izango zuen. Ama, oraindik sasoikoa, sartu berria bezin emakume gozo ta atsegiña. Aita ordurik geienetan kanpoan izango zuen, bere bei, ardi, zelai ta txondor lane-tan. Etzion errenkura aundirik egingo errain gazteari. Beste iru gazteak, berriz, ordurako aldame-

nekoekin zebiltzan. Bat ezkondu orduko, jarraituko zioten besteak.

Nik izango nuen ibili bearra, lau urtetako guda zikin artan atzeratutako lanak ezin bukatu. Baiña dirua ere ekarriko nuen. Lau urte aietan etzuen inork saskigiñeko modurik izan.

Orain bete-betean neri ereriko zitzaidan guzia. Berdin aitak ala zion: arek ordekoa jarri zuela, ta uzteko pakean ari. Ez nuen dena txarra. Mantenuz gainera, diru garbia ekarriko nuen etxera. Ez det uste Maritxu orrekin asarretuko zanik. Lana ezin billaturik ibiltzea baiño ohea zan neretzat ere.

## GIZALDI BERRIA

Gutxi gora-beera badakigu baserri bateko familiaren bizimodua nolakoa dan. Egunak, asteak, illebeteak eta urteak, beti bezela, lan berdiña. Gaur igarotakoaren gisakoa biarkoa. Aldaketa gutxi. Urte giroetan zerbait. Aspergarria benetan, batez ere emakumeentzat, orduan beñepein. Gaur egunean oien bizimodu lotua asko arindu da.

Maitasuna ta eramanpena bear zituen etxeko andreak, bere menpeko bizitza ura burutzeko. Mendi aldekoak, mezetara ezik, etziran iñora ateratzen.

Gizonezkoak, aste guzian lanari erantsita bizi arren, iganderik geiena aske zeukaten. Emakumeak ezta ori ere. Aspergarria benetan. Elkar maitasuna bizi zan famelietan, orrek goxatuko zuen. Ori palta bazan, inpernua berbera.

Orregatik esaten nion nik Maritxuri, pauso ori emateko oiñak tinko jarri bear genituela lurrean.

Neretzat ondoren zetorkidan bizimodua etzan nere gaztarokoa bezela izango. Gaztetan, ezkondu birtartekoa, ibilia, eragin aundikoa izan nuen. Aspertzeko betarik etzeukana.

Ezkondu ta berrogei ta amar urtetatik gora, nereztat paketsua etxetik kanpora. Baiña sendian bage nerabilzkien naiko ixtilluak, bein gure seme zaarrena etxera ezkondu zanean. Baserriko lanak aitak eta nik egiten genituen. Deia nuenean, berriz, saskigintzara. Ori izan zan, aitari eziña etorri zitzaion bitarte, nere betiko bizitza.

Etxe artan lenen eroriko zana aitona izan zan. Ez zaarregia zalako. Baiña lan asko egiña eta otz-bero galanki igaroa. Urteak baiño len zaartu zan. Bere buruari tratu txar asko emana, bein gazterik alargundu zan ezkeru. Ura ere, Joxe, zu bezela geratu bai zan. Ez noski orrenbeste semerekin. Alabak ere bazituen. Azkenerako, etxera eziñak bildu zuen. Ori da bizitzaren legea.

An zegoen nere ama, etxeko errain xaarra, nere emazte Maritxu bezelako emakume goxo ta serbitzaria. Bere esku artu zuen aitagarrebaren azken ordua berak zekien bezela arintzea.

Aitona bera ere ona zan, saskigillea, asko supri-tua. Baiña ixilik beti bere lekuan zegoena. Oiñazeak bazeuzkan ere, aiek beretzat zituen. Etzion errenkura aundirik agertuko bere erraiñari. Ez, asko bezela, asarre ta denekin purrustadaka. Poliki-poliki, ai-deak jotako frutu bat bezela erori zan. Etxean aren bearrrik ez bageneukan ere, negar egin genion.

Baiña poz bat eraman zuen, Maritxuren lenengo semea, bere billobatxoa, ikusi zuelako. Ainbeste maite zuen baserria oiñordekorik gabe etzan geratuko. Orain bi gizaldi gelditzen giñan, baiña irugarrena asita.

Gertakari batek naigabetu niñun. Bagenduen osaba apaiz bat, eta zazpi seme-alabetatik bat Jainkoari eskeintzea nai zuen onek. Apaiz egitea alegia.



Min eman zidan orrek neri, eta amari ez gutxiago. Besteren etxean zertan sarturik bai al zeukan arek? Ez, etxean alako bat nai ez genduelako. Ura zan, ordea, zaarrena, maiorazkoa, ona, zuzena ta langillea. Benetan uraxe bai etxerako nai genduela. Baiña osabak eraman zigun.

Bigarrena, berriz, etxera ezkonduko zana, biurria zan, alperra, eskolatik erdietan piper egiten zuen oietakoa. Amaika zigor artua zan, maisuak emanta. Ajola gutxi ari. Astoak makillari bezela, ortzak erakusten zizkion. Ume biurri ura geratu zitzaigun, bada, gure ondorengo; eta etorri zitzaigun gure etxean ezin bizia. Alare, apaizgaiak etzigun etxean ezeren kasturik egingo. Osabaren esku geratu zan ordain bear guzia.

Beste alabatxo bat ere joan zitzaigun konbentura. Onek bai; arrasta polita egin zigun. Baiña, gure iritzian, ondo emana zegoen.

Pakean zijoan, bada, oraindik gure sendiko bizi-tza. Zaarrak eta gazteak bat egiñak. Geldi-geldi, seme-alabak aziburua artzen ari ziran goraka, besteak beeraka aiñean. Ni, berriz, Gipuzko alde guzian saskigiñean. Etxe ontara ere bai bein baiño geiagotan.

Gurasoak bai, zaartu zitzaizkigun. Baiña an zegoen Maritxu, aingeru baten gisa, aien egin bear ta nekeak arintzeko.

Zaarrena apaiz joan ta etxerako geratu zitzaigun bigarrena, ezin egon biurri ura, noiznai ikusten nuen bere aldameneko neskarekin. Norbaitek esan zidanez, artzeko baiño uzteko ohea omen zala. Bere ondo jantzi nai ta pitxi garestiekin, etxeko irabaziak zurrupatzeko aski omen zala bera bakarrik. Neska txirtxil arek noiznai izaten omen zuen amarekin eztabaida ugari.

Bein, bakarrik arrapatuta, esan nion semeari:

–Neskatxa ori ekarri bear al diguk etxera?

–Zer du orrek? Garbi askoa da. Ondo itzegiña ta argia gaiñera.

–Ez dit nik ori entzuten. Bai gauza askotarako argiegia. Neri etzaidak ik dioken bezelakoa iruditzen. Neskatxa aldrebasa danik ez diat esango. Baiña deabru guzien mingaiña, eta etxean beti okasioa.

–Aitak aukeratu bear al dit emaztea? Nik nereztat bear det.

–Ik dioken ori egia dek. Gure etxerako, ordea, pakean geran lekura, ez al diguk guda gaiztoren bat ekarriko?

–Nere begiekin ikusiko bazendu, etzenduke orrela itzegingo.

–Or konpon adi. Baiña emakume orrek gure zaartzaroa etziguk asko arinduko.

Ogei urte zitueneko ezkondu zan arekin. Berak jakingo zuen zergatik. Illebete baiño lenago asi zan gure errain berria, aurretik zeuzkan bi etxeko andreei aurea artzen.

–Lasai, lasai, Joxepa –ala baidu izena, esaten zion Maritxuk–. Bakoitza gauden gure lekuan, eta on egingo digu. Etzaigu gaizki etorriko, aurrekoak joan arte txandaren zai egotea. Nik begirune osoa diot aurrekoari. Ura joan artean ez det aren lekurik ostu nai. Zuk ere ez arenik eta ez nererik.

Emakume ori sartu zaneko, bada, guraso zaarrak kezkatuak geneuzkan. Etxera uxo a ekarri zuela esan bazigun ere, amari laxter erakutsi zion uxotik gutxi zeukala arek, otsotik bai puska bat. Biurria atera zitzaigun, erretxiña, erritalaria eta sube gorriak baiño mingain zorrotzagoa. Bere senarrari etzion pakean uzten.

–Zer egiten dute atso ta agure oiek emen? –esan zion Maritxu bere amagiarrebari–. Denok oien eder egiten ibili bear al degu?

–Ai zer nolako ateraldia! Emen ez dago agure ta atsorik, seme-alaba sail baten gurasoak dira ta. Duten guzia etxe oni eman diote, eta fameli on bat azi ere bai. Bizitzaren legea, eziñera etorri zaizkigu. Baiña Jainkoak deitu arte gurekin bizi bearra. Aurrekoei berak begiak itxi zizkieten, eta guk auei. Baiña zalantza gaiztoa daukat, etxe ontan guri itxiko dizkigutenik ez ote diran izango –erantzun zion Maritxuk.

–Oiek ez baleude, lasai biziko giñake gu emen.

–Etxe ontan ez gera elkarri bultzaka bizi. Beste amarrentzat badago lekua.

–Bai; baiña gauza askoren palta.

–Ezeren paltarik ez daukan famelirik ez dago munduan, danik eta aberatsenak izanta ere. Gu, berri, beartsuak gera. Daukagunarekin moldatu bear.

–Baiña ao gutxiagorekin geiago tokatuko litzaiguke.

–Zer esan nai didazu orrekin?

–Oien lekua Erruki-etxea dala, ta oiek jaten dute-narekin gu obeto biziko giñakela. Besterik ez.

–Jesus! Laxter asi zera zu etxe au naasten. Oien etxean bizi zerala ez al dakizu?

–Badute gazteagoei uzteko ordua.

–Zuri alegia. Ez al gaude gu aurretik? Sar zaitte zure lanetan. Ondo egitezker, badaukazu non joa. Utzi aita-ama xaar auek nere esku. Zaartzak bere ezin ta nekeak baditu. Gure txarkeriz ez ditzaiegun oraindik geiago azi. Gure maitasuna merezi dute.

Zuk esaiozu senarrari; ez aurretik gaudenoi. Auek il arte, emen izango gaituzu. Orduan bai ondo pentsatu bearra daukagula. Baiña argi ta garbi esaten dizut: zuek lenago joango zeratela emendik, auek Erruki-etxera baiño.

Etzion erantzun. Baiña emakumeak nai dutena irixten ez dutenean egiten dakiten ipurdi eragin bat egin ta pauso ariñean ezkutatu zan andik.

Lenengo eraso gaizki erten zitzaion. Maritxuk ortzak erakutsi zizkion. Zaarrak iltzen ziranean, bera geratuko zala etxeko andre, eta ez pentsatzeko etxe artan seguru zegoenik. Etzuen ni zirikatzen asi nai, bestela gogorago mintzatuko nintzaion ta.

Maritxuk eman zidan eduki zuten eztabaidaren berri:

–Ez dakizu nolako aginte itxurarekin urbildu zitzaidan atzo gure erraiña. Zaarrak alperrik daudela emen. Kalte besterik ez digutela egiten. Erruki-etxera eraman bear genituzkela. Nik ere badakit oiek gabe obeto izango giñakela. Baiña zor diegun maitasuna noizko?

–Zaarrak baiño kalte geiago ekarriko digu gazte orrek etxera, Maritxu –esan nion pentsakizunez be-tea–. Uste det azken urte tristeak datozkigula, eta ez generala gu baserri ontan ilko. Ezkontzeak baditu alde atsegiñak, baiña bai nekegarriak ere. Orain azkeneko auek datozkigu. Joxepa errain gazte orrentzat ez da munduan bere burua besterik eta bere aurrak. Dena oientzat eskas dala. Gu, gauza geran arte, orren asto karriatzaile izango gera. Baiña gure buruak babestuko ditugu. Zaartzaroan eziña etortzean izango ditugu ixtilluak. Len ere esan dizut beldur naizela ez ote degun etxetik kanpora mundu au utzi bearko, semea ere oillar xamarra atera zaigu ta. Mi-

xioetara joan zan ura emen balego, beste kukurruku bat entzungo genduke. Erraiña senarraren berri gabe ez da asi kargatu ta tira. Zuk, beiñepein, zaindu itzazu, dakizun bezela. Guregatik ainbeste lan egin ta supritu duten gurasoei asko zor diegu. Gure aldetik dena merezi dute. Ori da Jainkoaren legeko agindua.

–Baldinbetan orixe. Ez dakit gure azkena nolako izango dan. Baiña ez dira auek baztertuak gertuko, ni bizi banaiz beiñepein.

–Gurearen berri ez dakigu. Baiña laxter asi dira azpi janean.

Aiton-amonak, urtez ta nekez zamatuak, zero erori ziran. Beren ezin ta neke guzien artean –zaartzaroaren lanak–, etzeukaten ezereen paltarik. Eskerrak Maritxuri eta bere billobei. Auek bazetozen zaarren aldamenean koskortzen, eta amonari laguntzen zioten bere lanetan.

Lenengo, aita il zan. Baiña maitasunez ondo zaindua. Nekeari asko begiratu gabe, urduri ibili zan nere emaztea. Bere semerik maiteenari bezela kontu egin ere. Bere eskasetik aientzat etzedilla ezer ere palta. Il zanean, berak itxi zizkion begiak, eta bere ondoan negar egin. Emazte haar eta bere alabak denak bizi zituen, eta aien azken musua artzeko zoriona izan zuen. Baita billobak ere, naigabe itxurak agertu ziztuzten.

Askotan entzuna daukat senar-emazte zaarren azkena: bein bat il ezkerro, laxter dijoala bestea atzetik. Gurean ere ala gertatu zan. Bein aitona joan zanean, bi illebeta baiño len amonak ere mundu oni egin zion agur.

Azken paketsua izan zuten biak, eskerrak Maritxuri. Aiek bete zuten beren eginkizuna. Gurea zegoen orain ikustekoa.

Erraiña lasaitu zan noski. Bere seme-alaba gazteentzat etzan lekurik paltako. Joan ziran alperrik zeuden atso-agure aiek, arentzat ala ziran ta.

Irurogei urtetik gora nituen nik ere, aiek itzali ziranean. Andik aurrera urteak abiadura ona eraman zuten. Ni banenbillen, eta banabil, al detan bezela. Baiña Maritxu etxeko inpernuan geratu zan. Lan askotarako eziña etorri.

Ankapean zerabilkiten. Billoben itxaropen aundirik ez beiñepein. Zaarrena, amazazpi urtekoa. Erruki zaizkit bere gurasoak, ez badu aldaketarik egiten. Baiña nexka Kontxexi, amabi urteko billoba, aingeru berbera dator. Arek laguntzen zion amonari.

Ni saskigintzatik nentorren bakoitzean, arrera txarra egiten zidan erraiñak. Nere irabaziak ari ematea naiko zuen. Semea, berriz, erdi berdoztua, katu erdian.

Ikusten niñuneko, pozten zan Maritxu. Aren ongi etorria beti maitagarria. Baiña nik arpegian igertzen nion arek etxean zeraman inpernu, Baiña ixilik. Ez niñun kezka txarretan jarri nai.

–Zu etzaude emen kontentu? –galdetu nion bein.

–Nola egongo naiz? Pardel zaar bat bezela narabilki erraiñak; eta, su ondoan dagoen katua isatsarekin aizkatzen dan bezela, neri ez laguntzeko agintzen die illobei. Edo il erazi nai gaitu, edo nazkatu ta Erruki-etxera biali. Ortarako egokierarik ez du galtzen.

–Auxe da azkena etorri zaiguna. Billoben itxaropenik, berriz, nik ez daukat. Zaarrena aita bezelakoxea dator.

–Kontxexi ez. Ori aingeru berbera da. Orrek laguntzen dit. Geronekoan erritan eman zion amak.

Bai alabak ezezkoa eman ere: «Neri aitak agindu dit amonari laguntzeko».

Irurogei ta amabost urte nik. Emazteak bi gutxia-go. Ni oraindik banenbillen. Baiña etxean geratzen banintzan, neretzat ere iseka ta ezin ikusia besterik etzala izango, ta andik pake billa ateratzea pentsatu genduen. Ni baitegitik etorri ta errain zirtzil ori sartu bitarte, gure etxean pakeak agintzen zuen. Orain, berriz, zaarrantzat beiñepein, an etzegoen bizitzerik. Orra emakume txar batek fameli guzia nola naastu zuen. Sendi bat txukun, paketsu, agertzen dala ikusten dezunean, oroitu zaite etxeko andrearen lana dala ori. Baiña beste bat zikiña, ajola gabe ta lotsa gutxikoa azaltzen bada, pentsa ezazu etxeko andrea dituela errurik geienak. Ama nolakoa, sendia ere alakoa, geienetan beiñepein.

Txikitan su ondoan entzundako ipui batek erakusten digu sendi batean etxeko andrearen garrantzia zenbateraiñokoa dan.

Badakizute noski Jesus Jerusalem aldean amabi ikaslerekin ibiltzen zala, eta aiek mantentzeko zerbait bearko zuten. Gazteak, eta etziran jale makalak izango. Jango bazuten, inguruko baserritarrei laguntzera joaten omen ziran jan truke. Ortaz gaiñera, norbaitek zerbait ematen bazien, etzitzaien gaizki etorriko.

Gari aroa omen zan, eta baserri batean arkitu zuten lana: garia jo ta garbitu. Bukatu zutenean, eman zieten otordua. Baiña eskaxa ta gaizki jarria. Neskata narrats batek serbitu omen zien. Mantenuz gaiñera beste zerbait ematera etorri zanean, Jesusek, eskerrak emanez, ala esan omen zion:

—Senar on bat tokatuko al zaizu!

Jesusen ateraldiak arrituta utzi zituen ikasleak:

–Neska zaar geratzeko ohea dek ori, ezkontzeko baiño.

Urrengo egunean beste baserri batera joan ziran. Lanak bukatutakoan, eman zieten an ere beren otordua: aukerakoa, ondo jarria eta neskatxa txukun ta atsegin batek serbitu oso ondo. Mantenuz gaiñera zerbait eskeintzera etorri zanean, eskerrak emanaz, Jesusek ala esan omen zion:

–Senar txar bat tokatuko al zaizu!

Ikasleak erritan eman zioten:

–Zer da ori? Neskatxa narrats ari senar on bat opa zenion; ta oni txarra?

–Bai. Arek, senar onarekin ere, bizimodua ateratzen lanak izango ditu. Beste onek, berriz, txarrarekin ere aterako du.



## BASERRIARI AGURRA

Ni oraindik banabil, baiña ez det lan askotarako balio. Nere lantegia ere bukatu da. Nai ta nai ez, etxera bildu bearra. An, berriz, nik egin dezakedan lanik ez. Emaztea, bi urte gutxiago, ez dago oraindik gaizki. Baiña erraiñak ez baidio ezertan ere uzten.

Aiton-amonak ezer egin gabe mantendu bearrak, berriz, suminduko du. Gaiztoa zetorkigun, bada, Jainkoak ematen zizkigun gure azkeneko urteen etorkizuna. Erruki-etxean guretzat lekurik izango zala-ta, an sartzeko zer egin bear genduen galdetzera Ernánira jo nuen. Ango sendagillea nere suia da, alaba gazteenarekin ezkondua. Arengana joan nintzan laguntza eske.

–Etxean ezin al zerate konpondu? –galdetu zidan.

–Erraiña degu gaiztoa. Maritxu gaixoa, ura izan danarekin, zatar zaar bat bezela darabilki. Ni geratu-ko banintz, ez litzake atsegin izango, eta pakea nai degu. Or konpon ditezela.

–Zuek Erruki-etxean sartze ori ez det egundo ontzat artuko. Nere aita-ama bezela zerate. Gure etxean badago gelatxo bat aske, eta zuek mantentze-

ko moduaren paltarik ez. Atozte gurera. Bestela, zuen alaba ta nere emaztea benetan naigabetuko litzake.

Ortan geratu giñan. Dena eman genion etxean ez giñuzten eduki nai. Alare, gurekin zer ikusi gutxi zeukatenak maitasunez artzen giñuzten, eta badakit alaba ta illobak benetan poztu zirala. Etxera joan ta dena Maritxuri esan nion.

–Baiña etxe artarako ez al gera gu zama aundiegia izango?

–Sendagilleak esan dit ori bere borondatez. Alabak, berriz, ez du atzera egingo. Agur egin bear aibeste maite degun baserriari. Nere bizitzako naigaberik aundienetako bat da au. Biar bertan etorriko dira gure billa, zureak eta nereak diran puska guziak eramanez. Elizarako ere erreztasun guziak izango ditugu. Nik oraindik lana badaukat. Oiek bukatzean ara bilduko naiz.

Etxea betirako utzi bearrak triste jarri zuen Maritxu. Baiña bere azken urteak ere pakean igaro nai zituen.

Apal ordua etorri zan. Gure erraiñak enbido asko bota zizkigun. Semeak etzuen aintzakotz artzen. Illobak serio zeuden. Bereala ta zorrotz eraso nion gure erraiña lotsagabeari:

–Zure sube gorriaren mingain orrekin amaika enbido bota dizkiguzu. Baiña nik eskutik ordago botako dizut. Oraindik gurean bizi gera, au goitik asi ta beeraiño nerea da ta. Zer ari zera zu besteren gauzeekin enbidoka? Emengo naaspil guziak zuk ekarri dituzu, eta zurekin ez det ezertxo ere jakin nai, etxe ondatzaillea aleena. Emengo gauza guzien jabe semea geldituko da. Ez dakit baserri onek zenbat iraungo duen. Guretzat etxe ontara ezin bizia ekarri

dezute, eta i salatzen aut, seme. Erru geienak ireak dituk, errain mingain gaizto orri nai duena egiten utzi diokelako. Gu bagiazik emendik. Biar aterako gaituk betirako. Baiña, eskerrak gure suia dan ta sendagille ta aren emazte ta gure alaba maiteari, ez gaituk Erruki-etxera joango. Ik arek baiño zor geiago daukak, il artean gu etxean edukitzeko. Geiago artu baidek. Iretzat, ordea, gurasook ez gaituk iñor. Etxe ta bertako ondasun guziak illobari utziko ote dizkiodan ere zalantzan ibili nauk. Baiña ire antzekoa dek ori ere. Jainkoak bazekik makillarik gabe jotzen. Gu ez gaituk Erruki-etxera joango, baiña zuen borondatea ala uan. Bideak errezen asiak ziñaten. Amaika enbido gaizto bota diguzute beiñepein, eta ori dena nere etxean bizi zeratela. Agur, Joxepa. Ez det zurekin ezertxo ere jakin nai, etxe ondatzaille bat besterik etzera izan ta. Len esan dizutet biar joango gerala geiago ez etortzekotan. Dena ontzat emango nuke, pakea sartuko balitz onera.

Maritxuk negarrari eman zion. Azken agurra zutela esandakoan, billobak ere oso triste jarri ziran. Ama baiño geiago maite zuten amona.

–Ni amonarekin joango naiz –zion Kontxexik.

–Ez. Gera zaite. Zu bezelakoak izan balira denak, gu ere ez giñan joango –esan ta aiton-amonak oatzera joan giñan.

Ez dakit senar-emazteak beren artean zer esango zuten. Serio geratu ziran beiñepein.

Urrengo goizean atera giñan, bai, ta kito. Billoben batzuek arkituko zuten utsuna.

Orain, berriz, lantegiari ere agur eman bearra. Lagun maite asko utziko ditut betirako agur ontan. Ez daukat lanik, eta ez naiz askotarako gauza, eskuak gogortu ta lotu egin zaizkit eta. Berrogei ta

amar urte saskigille ibilita, agurra bai tristea. Zer egingo degu, bada, munduari ere aurki eman bearko diogu ta? Zu bertsolaria zera noski, Joxe.

–Bai. Kantatzeko umorea ta laguna detanean aritzen naiz.

–Goldearen atzetik zoazenean, ez al zaizu alako oldozpen tristerik sortzen?

–Neri, ona besterik ez. Laian amarrek aiña egiten detala orain bakarrik.

–Neri bai. Iraultzen ari naizen zoiak, neretzat gizaldi berri baten itxura dauka. Zaarraren babesean azaltzen da au. Ura zapalduz eta bera gaiñean geratu. Baiña urrena datorren zoiak berdin egingo dio oni. Gu zapalduko gaituena ere urbil da. Zoitik zoirako alde ori da gure bizitza. Mundua beti goldean ari da, aurreko gizaldia atzekoak zapalduz. Gizona sortu ezkeru, mundu au olaxe dijoa, ta ala joango da betiraunean, ez bada galtzen. Zenbat millaka ta milloika sartu dira zoipean? Bizi zirala, aiek ere zerbait izango ziran. Nik nere onak kontatu ditut. Txarrak beste norbaitek esango ditu.

–Ori dena egia al da? Edo kontu kontari ipuiak esan dizkiguzu? –esan zion gure aitak.

–Ez, Joxe. Zerbait dan baiño geiago esatea balitke. Baiña dena egia da.

–Bizitzea zer dan ondo ikasita joango zera orduan mundu ontatik.

–Bai, Joxe. Lana galanki egin ta patrikan xentimorik gabe, errukitsu batzuen bizkar geratuko naiz, Jainkoak deitzen didan arte. Azken agurrak geiengentan tristeak izaten dira, betirakoak badira beñepein.

Gu ao zabalka utzita joan zan gure baserritik, geiago ez biurtzeko.

## AZKENA

Beste gudate bat ikusi baiño len joan nai zuela mundu ontatik esan zigun, eta askotan. Ori Jainkoak etzion entzun.

Azkenekoa ta odoltsuena erdiz-erdi arrapatuko zuen. Ernani'n gaiñera, sarraskirik gaiztoenak egin zituzten lekuan. Bi billoba galdu zituen: bat pusillatua eta bestea aurrean.

Bera azkeneko guda karlistan ibilia nola baizan, auei oso titulu ona eman zieten frankotarrak. *Teniente honorario* izendatu zuten. Baita errian omenalditxo bat egin ere; eta andik aurrera, bizi zan arte, bosteun pezeta kobratuko zituela.

–Ori dena ez da egia izango, baiña oraingotik xox pixar batzuk emango dizkizute –esan zion Maritxuk.

–Ez lirake gaizki etorriko. Baiña auek eman? Ez olako ametsik egin, Maritxu. Kendu bai. Ortarako obeak dira.

–Kendu? Ez dakit nori. Guri ez beiñepein.

Esan bezela, omen txiki bat egin zieten ari ta geiagori ere. Bazkari lege bat eman ere bai. Pakete-

txo bana luzatu zieten, zer zan esan gabe. Pakete xabal bat. Zer izan ote ziteken ura? Ekarri zuen etxera. Emaztea atarian eguzkitan zegoen, eta txuxenean arengana joan zan. Onek ala galdetu zion:

–Zerbait eman al dizute?

–Bai. Baiña dirurik ez. Au eman didate. Ez dakit zer dan. Au izango da noski gure bosteun pezetakoa. Itxura danez, argazkia da. Torizu ta zabal zazu.

Zabaldu zuenean, arrituta, onela zion, gizonari erakutsiz:

–Au al zan guzia? Zer egin bear diogu oni?

–Francoren argazkia da noski? Gaurko jainkoa.

–Ez al da, bada, au gure bi billoben eriotzen erruduna?

–Bere eskuz ez bazituen il ere, ala da noski.

–Billobak ikusten badigute au, botako gaituzte etxetik.

–Orduan zer egin bear degu onekin?

–Ez dakit, bada. Au burla bat besterik ez da noski.

–Ekatzu, ekatzu neri.

Maritxuk artu zuen eskuan eta biak sukaldera joan ziran. An ari zan sendagillea, egunkaria irakurtzen.

–*Teniente honorario* bezela, au eman diote Joan Mañueli. Baiña xentimorik ez.

–Eta zer egin bear diozute orain orri?

–Auxe –lau puska egin ta surtara bota zuen–. Gudazalerik ez det nere begien aurrean ikusi nai.

Sendagilleak par egin zuen, iseka ere bazala ura pentsatuz.

Xox batzuk artzeko itxaropena argazki arek kendu zien. Etziran egundo aberatsak izan, baiña orduantxe bai beartsu geratu zirala.

Saskigintza utzi ta gerora ere, gure aita zanak bisitatxo batzuk egiten zizkion Joan Mañueli. Azokarra joango zan, eta an arkituko zuen saskigillea. Bera baiña beartsuagoekin oitura on bat bazuen gure aitak. Berak kontatuta jakin nuen ori.

Errenterian bazan mutil zaar begi bakar bat, zurgina. Baiña beartu zanean, eziña ari ere etorri. Lanik ez eta patrikak utsak, an egoten zan bere tallerreko ateetan, norbaitek zer aginduko edo zer emango. Beti esku emanez agurtuko zuen gure aita zanak.

–Orrek pozik artzen dik nere eskua –esan zidan, elkarrekin mezetara joan giñan batean, neri ere aolku ori emanez.

«Zer ote dauka nere aitaren eskuak?» –nion nere-kiko.

–Eta ori zergatik? –galdetu nion, ezkutu orren berri ikasi nairik.

–Ez baidiot bein ere eskua utsik luzatzen. Beti pezetaren bat, baita iñoiz duro zillarreraiño, or joango dek nere eskutik arenera.

Garai artan duro zillarra sari aundia zan.

Ari ere ori egiten zion, bada. Gure saskigilleak, berriz, markesaren semea eta *teniente honorario* izanagatik, pozik elduko zion aitaren eskuari, eta esku batetik bestera eroriko zan duro zillar ori.

–Ai, Joxe! –esango zion maitasunez–. Zuk, zerruan sartzeko, ez dezu ezeren trabarik izango. Etxean ez dezu sardin zaar bat ere edukiko jateko. Alare, olako tituluak dauzkan bati opari on bat ematen badakizu.

Meriendatxo bat ere egingo zuten gure aitaren

bizkar. Jakiña, bitartean bien zoritxarrak elkarri kontatuz, negar egingo zuten.

Joan Mañuelen emaztea ere ezagutu zuen, eta arek aldegin zuen mundu ontatik aurrena. Aren illetara ere joan zan aita. Arrunt eroria arkitu omen zuen saskigillea.

–Bakarrik geratu zera –esan zion aitak.

–Egia diozu, Joxe. Baiña urte au bukatu baiño len bilduko gera berriro betiko atsedenean.

Eta asmatu egin zuen. Aren illetara ere joan zan aita, lagun maiteak izan baiziran beti, eta kanposanturaino lagundu zion. Etxera etorri ta ala esan zigun guri:

–Gure saskigille xaarrak bukatu dizkik mundu ontako egunak.

Bego gizarajoa betiko atsedenean!



## ARKIBIDEA

Etorrera .....	7
Aparia.....	14
Tolosako zubia .....	17
Aita motxaille.....	27
Saskigintza .....	32
Aitaren beste ateraldia.....	35
Bazkaria.....	38
Markesaren semea .....	42
Azalpena .....	47
Billauen artean .....	53
Baitegian .....	58
Ernioko semea.....	63
Seme galduaren etorrera .....	70
Maiorazkoa .....	83
Saskigille .....	89
Saskigintzara .....	95
Sagar gorria.....	103
Erasoa.....	109
Etsaiak .....	115

Gudari .....	126
Mutil zaarra.....	130
Gudako legeak .....	136
Prakak norentzat?.....	140
Aita markesa .....	147
Etxera biurtzea .....	156
Fameli berria .....	163
Gizaldi berria .....	167
Baserriari agurra.....	177
Azkena.....	181

## ORAINDAIÑOKO LIBURUAK

### 117'garrenetik aurrera.


- 117-118: *B. Enbeita*: Nere apurra.  
120-121-122: *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.  
123-124-125: *A. Zavala*: Zapirain anaiak.  
126: *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.  
127: *M. Arozamena*: Nere aldia.  
128: *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.  
129: *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).  
130: *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).  
131: *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).  
132: *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).  
133: *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.  
134: *J. M. Arrizabalo, A. Zavala*: Baso-mutillak. (*Aitua*).  
135: *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.  
136: *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.  
137-138: *Ataño*: Txantxangorri kantaria.  
139: *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.  
140: *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.  
141: Bertsolari-txapelketa nagusia, 1980. (*Aitua*)  
142: *A. Zavala*: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.  
143: *A. Zavala*: Nork bere bidea, I. (*Aitua*)  
144: *A. Zavala*: Nork bere bidea, II. (*Aitua*)  
145: *A. Zavala*: Nork bere bidea, III. (*Aitua*)  
146: *A. Zavala*: Berridi eta Kuxkullu bertsolariak.  
147: *Ataño*: Txori. (*Aitua*)  
148: *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak, I. (*Aitua*)  
149: *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak, II. (*Aitua*)

- 150: *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak, III. (*Aitua*)
- 151: *Mattin Treku*: Etxe xokotik kantari. (*Aitua*)
- 152: *Xalbador*: Herria gogoan. (*Aitua*).
- 153: *J. K. Zapirain, Ataño*: Zure Pasio Santua.
- 154: *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak I.
- 155: *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak II.
- 156: *F. Artola «Bordari», R. Artola*: Aritz beraren adarrak.
- 157: *Elkarlanean*: Lexoti bertsolaria.
- 158: *Mari Treku*: Mattin, nere gizona. (*Aitua*)
- 159: *Txomin Garmendia*: Denbora pasa.
- 160: *Txomin Garmendia*: Bizitzaren arian.
- 161: *A. Zavala*: Kuba'ko gerra.
- 162: *J. M. Arrieta*: Nere ondar alea. (*Aitua*)
- 163: *J. C. Arrosagaray*: California-tik kantuz.
- 164: *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak, I.
- 165: *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak, II.
- 166: *M. Manterola*: Lore apal bat.
- 167: *J. M. Lertxundi*: Baso tarteko oiua.
- 168: *P. Lazkano, A. Zavala*: Tiro tartean bertsotan.
- 169: *Basarri*: Kezka-giroan.
- 170: *Txomin Garmendia*: Bordaberri'ko gozo-mikatzak.
- 171: *Txomin Garmendia*: Bertsolari-kurpilla.
- 172: *S. Salaberria*: Nere soroko emaitzak.
- 173: *I. Olea*: Otemotzeko arnasa.
- 174: *A. Zavala*: Kristaubidea bertsotan, I.
- 175: *A. Zavala*: Kristaubidea bertsotan, II.
- 176: *A. Zavala*: Ameriketako bertsoak.
- 177: *Txomin Garmendia*: Erririk-erri.
- 178: *Basarri*: Bertsolaritzari buruz.
- 179: *Ataño*: Espetxeko negarrak.
- 180: *A. Zavala*: Euskal jokoak bertsotan, I.
- 181: *Ataño*: Zigorpean.
- 182: *M. Ostolaiz*: Oroipen-kutxa.
- 183: *A. Zavala*: Euskal jokoak bertsotan, II.
- 184: *A. Zavala*: Esaera zaarren bilduma berria, I.
- 185: *A. Zavala*: Esaera zaarren bilduma berria, II.
- 186: *A. Zavala*: Neska-mutillen arteko bertsoak.
- 187: *A. Zavala*: Ezkondu bearreko bertsoak.
- 188: *Txomin Garmendia*: Beltzak eta zuriak mendian ardiak.
- 189: *Ataño*: Eltzaorra.
- 190: *Pablo Zubiarrain*: Ia kantatuz bezela.
- 191: *Basilio Pujana*: Egi batzuek aixetaratzen.
- 192: *Ataño*: Odol-kutsua.
- 193: *Ataño*: Maitasunaren lanak.

- 194: *Pablo Zubiarrain*: Gaziak eta gozoak.
- 195: *Bartolo Ayerbe*: Nere mundualdia.
- 196: *Ataño*: Etorkizuna.
- 197: *Ramos Azkarate*: Ijitoen kontratuba eta abar.
- 198: *Erramun Etchebarne*: Erramun harginaren oroitzape-nak.
- 199: *Jose Maria Etxaburu*: Neure lau urteko ibillerak.
- 200: *Jose Azpiroz*: Arbol zarraren kimuak.
- 201: *Ataño*: Maite itzazute etsaiak.
- 202: *A. Zavala*: Frantziako Iraultza eta Konbentzioko gerra.
- 203: *Jose Azpiroz*: Gogoz kontrako pausoak.
- 204: *L. Rezola «Tximela»*: Bakardadeko ametsak, I.
- 205: *L. Rezola «Tximela»*: Bakardadeko ametsak, II.
- 206: *J. Lete «Ibai-Ertz»*: Orrela ziran gauzak.
- 207: *Ataño*: Aztia usnari.
- 208: *F. Etxebarria*: Nor garan azaldu.
- 209: *B. Barandiaran*: Zartu gabe ezin bizi.
- 210: *Beñat Karrika*: Armendaritze haur begiez.
- 211: *Basilio Pujana*: Deabruak ostutako urteak.
- 212: *A. Zavala*: Frantzesteko bertsoak, I.
- 213: *A. Zavala*: Frantzesteko bertsoak, II.
- 214: *J. M. Lertxundi*: Igaroari begira.
- 215: *Ataño*: Azkeneko saskigillea.



1051050  
G-128/73



AUSPOA  
LIBURUTEGIA